goiena
Zu hemen zaude.

2018-05-11 EGUBAKOITZA / 771. ZENBAKIA / 18. URTEA
DEBAGOIENEKO DOAKO ALDIZKARIA GOIENA.EUS TOKIKOM

+ Kataluniako CDRetako kide Amaia Txabarri

Pentsio duinak, hilabeteotako aldarria

ORDAINDU/ESKURATU AUZIA MONDRAGON TALDEA

LEKUKOEI ENTZUN OSTEAN, EPAILEAK DU HITZA

Mondragonek dio ez dela argudiorik frogatu demandak aurrera egin dezan / 7

Sergio Treviño, Fagor Etxetresnetako zuzendari nagusia zena, epaiketan lekuko gisa deklaratzen, eguazteneko saioan.

JAGOBA DOMINGO

Debagoieneko eskola publikoek urrian ospatuko dute, lehen aldiz, eskualde mailako jaia / 7

Arabako eskolarteko bertso txapelketako finala jokatuko dute zapatuan bi aramaioarrek / 17

XABI URZELAI

Maila Nazionalerako txartela etxean du jokoan Ford Mugarrik

Arrasateko eskubaloi taldeak Iturripen jokatuko du igoera fasea, beste hiru kontrarioren aurka / 54

Bergarako dendarien elkarteak zilarrezko ezteiak ospatuko ditu zapatuan, herritarrekin / 43

PAZKOAK 2018 / 23

SINADURAK

IÑAKI UGARTEBURU / 10

ANDER BOLIBAR / 43

NEREA MAKAZAGA / 12

XABIER IGARTUA / 50

MARIA IZAGA / 17

IDOIA ETXEBERRIA / 64

Zalantzak argitu dituzte lekukoek

Hamar lekuko eta bi peritu igaro dira Bergarako epaitegitik asteon egin den ahozko bistan. Lekukoek Mondragon korporazioaren argudioak berretsi dituzte behin eta berriz. Atzo, bi abokatuek ondorioak aurkeztuta, epaia emateko gertu gelditu da auzia

Sergio Treviño, Fagor Etxetresnetako zuzendari nagusi ohia, Bergarako epaitegian deklaratzen. J.D.

M.A. eta J.B. BERGARA

Ordaindu eta Eskuratu elkarteen eta Mondragon korporazioaren arteko epaiketaren ahozko bista egin da asteon, astelehenetik ostegunera. Fagor Etxetresnetako bazkide ohiek osatzen dituzten elkarteek 2015eko azaroan jarri zuten Mondragonen aurkako demanda, eta, 2018ko maiatzean egin da epaiketaren ahozko bista, bi urte eta erdi geroago. Auziak oihartzuna izan du, hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko historiako demandarik handiena izan da-eta auzi-jartzaileen kopuruari dagokionez –954 demandatzaile–, baita erreklamatzen zen diru kopuruari dagokionez ere –47,8 milioi euro–.

Demandatzaileen argudioa izan da "Mondragonek engainatu" egin zituela, eta horregatik ez zituztela "Fagor Etxetresnak kooperatiban zituzten ekarpenak berreskuratu".

Bi aldeek eskatutako lekukoak eta perituak igaro dira aste honetan Bergarako Lehen Auzialdiko 1 zenbakidun Epaitegitik, Angela Rodriguez-Monsalve epailearen aretotik, hain zuzen ere.

Lekukoek, orokorrean, ez dute ezusterako tarterik eman euren testigantzetan. Izan ere, demandatzaileen eta defentsaren galderei erantzun ondoren, Mondragonen argudioak berretsi dituzte korporazioko eta Fagor Etxetresnak kooperatibako zuzendari izandakoek, baita Mondragonek aurkeztutako bi perituek ere.

Lau lekuko astelehenean

Ahozko bistaren aurreneko egunerako bost lekuko zeuden aurreikusita, baina demandatzaileek, nahiz eta eurek haren presentzia eskatu, Belen Kortabarriaren lekukotzeari uko egin zioten.

Mondragoneko idazkari nagusi Arantxa Laskurain izan zen deklaratzen lehena. Laskurainek azaldu zuenaren arabera, "kooperatiba bakoitza burujabea da, bakoitzak bere erabakiak hartzen ditu, eta Mondragonek hartzen dituen erabakiak estrategikoak dira, oso orokorrak". Horrez gain, borondatezko ekarpenak, ekarpen bereziak eta merkataritza maileguak Fagor Taldean ematen diren gauza dela, "eta ez Mondragonen", azpimarratu zuen. "Mondragonek sekula ez zuen agindurik eman Fagorren inguruko informazio faltsua emateko, eta *Tu Lankide* aldizkarian argitaratzen ziren albisteak Fagor kooperatibak berak emandako informazioak ziren. Mondragonek ez zuen informazio hori ukitzen", gaineratu zuen idazkari nagusiak.

Bigarren lekukoa Fagor Etxetresnetako zuzendari nagusi ohi eta Mondragoneko presidente ohi Txema Gisasola izan zen. Gisasolak azpimarratu zuen Mondragonen inplikazioa "beharrezkoa" izan zela, "2008tik egoera gainbeheran zetorrelako, soldatek beherantz egin zutelako eta 4.500 langile baino gehiago kendu zituztelako". 2012ko batzar orokorraz galdetuta, Fagorreko bazkideek Mondragonek baino informazio gehiago zuela argitu zuen. "2011n erabili ziren aukeren artean, bat ere ez zen Fagor Etxetresnak ixtea", azaldu zuen Gisasolak. 2012ko apirilean, berriz, ez zitzaion "burutik pasatzen kooperatiba hartzekodunen lehiaketara joaterik".

Gainera, ez zuela lehiaketaren eskaera atzeratu eta ez ziela sekula esan bazkideei euren ekarpenak bermatuta zeudenik azpimarratu zuen Txema Gisasolak, Arantza Estefania Mondragonen abokatuaren galderei erantzunez.

Fagor Etxetresnetako zuzendari orokor ohi Fabian Bilbao izan zen lekukoen aulkian esertzen hirugarrena. Bilbaok "informazio plan bat" egin zela argitu zuen; haren ustez, "bazkideek informazio osoa zuten". Gainera, 2012an "hartzekodunen lehiaketa eszenatoki moduan" aztertu zela adierazi zuen, baina "ez benetako aukera baten moduan, bideragarritasun eta finantzazio plana zeudelako". Fabian Bilbaok ere azpimarratu zuen sekula ez zuela esan ekarpenak bermatuta zeudenik eta Mondragonek ez zuela lehiaketa eskaera atzeratzeko agindurik eman.

Asteleheneko saioko azken lekukoa Jose Maria Aldekoa izan zen. Aldekoa korporazioko presidente ohia da, eta Txema Gisasola bere hurrengo ea zergatik izendatu zuten galdetu zion demandatzaileen abokatuak. Aldekoak epaitegian berretsi zuen erabaki hartan ez zuela parte hartu.

Retegi, Beristain eta Markaide

Martitzenerako lau lekuko zeuden deituta, baina, demandatzaileek berriro hala eskatuta, Raul Tenesek uko egin zion Mondragoneko presidente ohi Javier Sotilen lekukotzeari. Abokatuaren hitzetan, "Agustin Markaidek erantzundakoaren ondorioz, erantzunak oso antzekoak" izango zirela iritzita.

Fagor Etxetresnetako errektore kontseiluko presidente izandako Javier Retegi izan zen lekukotza ematen lehena. Retegik esan zuen Mondragonek ez zuela kooperatibako erabaki estrategikoetan esku-hartzerik izan. "Bazkideak egoeraren jakitun izan ziren une oro, eta ekarpenen arriskua ezagutzen zuten", adierazi zuen. Gainera, Retegik nabarmendu zuen Fagor Etxetresnetako bazkideei ez zitzaiela eskatu "euren etxetik dirurik ekartzeko; inola ere ez".

Javier Retegiren ostean, Ana Mari Beristainek hitz egin zuen Angela Rodriguez-Monsalve epailearen aurrean. Beristainek argitu zuen Fagor Etxetresnetako finantza saileko kontrol arduraduna izan zela: "Mondragonek ez zuen Fagor Etxetresnetako erabaki estrategikoetan esku-hartzerik izan". Horrez gain, bazkideak "egoeraren jakitun" zirela "une oro" eta "ekarpenen arriskua denek" ezagutzen zutela nabarmendu zuen. "Zoritxarrez, denok ezagutzen genuen kooperatibaren egoera zein zen, saio informatiboak zeudelako", azaldu zuen Ana Maria Beristainek.

Mondragonen abokatu Arantza Estefaniak galdetuta, bai Javier

Retegik eta baita Ana Maria Beristainek kooperatiban ekarpen boluntarioak zituztela eta horiek galdu egin dituztela esan zuten. Izan ere, ahozko bistako lehenengo egunean, demandatzaileen abokatu Raul Tenesek galdera bera egin zien lekukoei, eta, hain zuzen, eurek ez zutela ekarpen boluntariorik azaldu zuten.

Martitzena Agustin Markaideren lekukotzarekin bukatu zen. Gaur egun Eroski Taldeko presidente dena Mondragoneko kontseilu iraunkorreko buru moduan izan da testigantza ematen. Markaidek azaldu zuen, besteak beste, ez zekiela Fagor Etxetresnetako egoera zein zen, "kooperatibak Mondragoni errekurtso gehiago eskatu zion arte". Gainera, gehitu zuen hark ez zuela inoiz adierazi ekarpen ekonomikoak bermatuta zeudenik.

Hirugarren eguna

Ordaindu eta Eskuratu elkarteen eta Mondragon korporazioaren ahozko bistaren hirugarren egunean, eguaztenean, Sergio Treviñok, Xabier Bengoetxeak eta Ane Alkortak deklaratu zuten lekuko moduan. Baita Korporazioak eskatutako bi perituk ere. Guztiek egin zuten Mondragonen bertsioaren alde. Sergio Treviño, Fagor Etxetresnetako azkeneko zuzendari orokorra, izan zen deklaratzen lehena. Zuzendari orokor ohiak informazio saioak etengabe egiten zirela eta azalpenak "modu didaktikoan" ematen zirela nabarmendu zuen: "Bazkideei, zenbakiez gain, kooperatibaren argazki erreala azaltzen genien batzarretan".

Kooperatibako kontseilu errektoreko azken presidente Xabier Bengoetxeak deklaratu zuen haren ondoren. Bengoetxeak adierazi zuen Mondragonek ez zuela eskurik hartu hartzekodunen lehiaketan. "2013an, ekarpen boluntarioak zituztenekin batu nintzen behin baino gehiagotan. Ezin geniela interesik ordaindu azaltzeko bildu nintzen eurekin, besteak beste". Gainera, "langile guztiak oso kontziente" zirela "egoeraren larritasunaz" azpimarratu zuen. Horrekin batera, erantsi zuen berak inoiz ez zuela esan ekarpenak ziurtatuta zeudenik ez eta Mondragonek ordainduko zituenik.

Ordaindu eta Eskuratu elkarteetako kideak, eta erdian, Sunion bulegoko abokatuak. J.D.

"MONDRAGONEK EZ ZUEN INFORMAZIO FALTSURIK EMATEKO AGINDURIK EMAN"

ARANTXA LASKURAIN, MONDRAGON KORPORAZIOKO IDAZKARI NAGUSIA

"2012AN, BAZKIDEEK MONDRAGONEK BAINO INFORMAZIO GEHIAGO ZUTEN"

TXEMA GISASOLA, FAGOR ETXETRESNETAKO ZUZENDARI OHIA ETA MONDRAGONEKO PRESIDENTE OHIA

"EZ NUEN INOIZ ESAN EKARPENEN ITZULERA BERMATUTA ZEGOENIK"

FABIAN BILBAO, FAGOR ETXETRESNETAKO ZUZENDARI OROKOR OHIA

"EZ NUEN PARTE HARTU GISASOLA PRESIDENTE IZATEKO IZENDAPENEAN"

JOSE MARIA ALDEKOA, MONDRAGON KORPORAZIOKO PRESIDENTE OHIA

"BAZKIDEEK EZAGUTZEN ZITUZTEN EKARPENEN ARRISKUAK"

JAVIER RETEGI, FAGOR ETXETRESNETAKO ERREKTORE KONTSEILUKO PRESIDENTE OHIA

Lehiaketan ebatzitakoak

Hirugarren lekukoa hartzekodunen lehiaketako kudeatzaileetako bat izan zen: Ane Alkorta. Mondragoneko abokatuek eskatuta joan zen Alkorta epaitegira; azaldu zuen lehiaketan ondorioztatu zela Mondragoneko kooperatibak talde independenteak direla, eta Fagorrek eta Edesak modu autonomoan hartu zutela lehiaketan sartzeko erabakia. "Mondragon ez genuen ikusi hartzekodunen lehiaketako errudun moduan", azaldu zuen Alkortak, eta ondorioztatu zuen ez zuela Mondragonek lehiaketa hori atzeratu. Gainera, argi utzi zuen ez zitzaiela informaziorik ezkutatu hartzekodunei, tartean, Ordaindu eta Eskuratu elkarteei. Horrez gain, Ekimenberri operazioa baldintza egokietan egin zela adierazi zuen, eta ez zela irregulartasunik gertatu marken gaiaren gainean.

Perituen ondorioak

Eguazteneko saioan, bestetik, Mondragonek aurkeztutako bi perituk ere deklaratu zuten lekuko gisa. Haiek egindako txostenetik ateratako hainbat ondorio aurkeztu zizkioten epaileari. Esaterako, ez zegoela "hartzekodunen lehiaketa atzeratzeko arrazoirik, Mondragonek ia 100 milioi galdu baitzituen" lehiaketa heldu aurretik. "Ekimenberri operazioa ez zen arrakastatsua izan Mondragonendako", perituek azaldu zutenez. Horrez gain, "ekarpen horiek zuten etekina bankuek eskaintzen zutena baino askoz handiagoa" zela eman zuten aditzera. "Ekarpen guztiak itzultzea ezinezkoa izango litzateke 2012an ere", gaineratu zuten.

"NIK ERE EKARPENAK NITUEN FAGOR ETXETRESNETAN, ETA GALDU EGIN NITUEN"

ANA MARIA BERISTAIN, FAGOR ETXETRESNETAKO FINANTZA SAILEKO KONTROL ARDURADUNA

"MONDRAGONEK EZ ZUEN ESKATU EMANDAKO DIRUA ITZULTZERIK"

AGUSTIN MARKAIDE, MONDRAGONEKO BATZORDE IRAUNKORREKO PRESIDENTEA

"BAZKIDEEI, EGOERAZ GAIN, ARGAZKI ERREALA AZALTZEN GENIEN"

SERGIO TREVIÑO, FAGOR ETXETRESNETAKO AZKENEKO ZUZENDARI OROKORRA

"LANGILE GUZTIAK OSO KONTZIENTE ZIREN EGOERAREN LARRITASUNAZ"

XABIER BENGOETXEA, FAGOR ETXETRESNETAKO AZKEN ERREKTORE KONTSEILUKO PRESIDENTEA

"LEHIAKETAN SARTZEA MODU AUTONOMOAN ERABAKI ZUTEN"

ANE ALKORTA, FAGOR ETXETRESNETAKO HARTZEKODUNEN LEHIAKETAKO KUDEATZAILEA

Mondragonen balorazioa

Korporazioak azken saioaren ostean azaldu zuen "frogatuta" gelditu dela "Mondragonek ez zituela Fagor Etxetresnetako eta Edesako bazkideak engainatu", eta ez zuela bi kooperatibetako erabakietan parte hartu. "Kooperatiba bakoitza autonomoa da eta bere erabakiak hartzen ditu, hirugarrenen esku-hartze barik", azaldu zuen korporazioak.

Mondragonek erantsi du ez zuela informaziorik ezkutatu, ez zuela informazio faltsurik igorri eta inoiz ez zuela esan ekarpenak bermatuta zeudenik. Gainera, elkartasun mekanismoak ezarri zituela eta 331 milioi euro eman zituela Fagor Etxetresnak eta Edesa laguntzeko, nabarmendu du korporazioak.

Horrez gain, epaiketan zehar Mondragonen ustez oso argi gelditu da "bazkideek kooperatibaren egoera erreala" ezagutzen zutela eta "informazio eguneratua" zutela. Enpleguarekiko erakutsi duen konpromisoa ere nabarmendu du Mondragonek, "kaltetutako bazkideen gehiengoari irtenbide bat" eman zaiola nabarmenduta.

Demandanteen balorazioa

Ordaindu eta Eskuratu elkarteek ere euren balorazioa egin zuten atzo, ahozko bista amaitu ondoren. Elkarteen aburuz, "Mondragon korporazioko bertsio kapitalistenaren biktimak" izan dira bazkide ohiak. Hala ere, Mondragonek Fagor Etxetresnen krisian izan zuen erantzukizuna epaileak kontuan hartuko duelakoan daude.

"Korporazioaren benetako aurpegia" argi ikusi dela nabarmendu dute elkarteek, eta ahozko bista bukatu ostean "poza" azaldu dute. "Epaitegian Fagor Etxetresnetako eta Mondragoneko zuzendari ohiek sistematikoki egin diote uko egiari", azpimarratu dute, "bazkideei konfiantzazko mezua igorri zitzaiela ukatu dute eta".

Elkarteek gogora ekarri dute "Mondragonen kontseilu orokorrean fikziozko kontakizun bat asmatu" zutela eta hori aktetan ikusi dela. Mondragon ez zela "edozelako hirugarren bat" gaineratu dute, "baizik eta erabateko eragina zuela kooperatibetan", eta "bazkideek etorkizuneko berme bat balitz bezala hartzen zituzten mezuak".

Abokatuek ondorioak aurkeztu dituzte

Atzoko saioan, bi abokatuek lekukoei entzun osteko ondorioak aurkeztu zizkioten epaileari. Argudioak entzunda, badirudi Mondragonen alde jarri dela balantza

M.A. eta J.B. BERGARA

Epaiketaren ahozko bistako azken eguna izan zen atzo, eguena, eta abokatuek ondorioak aurkeztu zituzten epailearen aurrean. Raul Tenes demandatzailearen abokatuak hartu zuen hitza aurrena, eta ondoren, Arantza Estefania Mondragoneko abokatuaren txanda izan zen. Epaileak ordubeteko geldiunea egin behar izan zuen Estefania ondorioak azaltzen ari zen bitartean, baina saioari berriro ekin zitzaionean azkar bukatu zuen bere jarduna defentsak.

Saioa bukatzean "auzia epaia emateko gertu" utzi zuen Angela Rodriguez-Monsalve epaileak. Epaia, beranduenez, "uda osterako" espero duela azaldu zuen Arantza Estefania abokatuak.

"Mondragonek hartu zituen erabakiak"

Donostiako Sunion bulegoko taldea zuzentzen Raul Tenes abokatua izan da. Hark defendatu du Ordaindu eta Eskuratu elkarteen demanda epailearen aurrean.

Raul Tenes, demandatzaileen abokatua. J.D

- **Lotura.** Demandatzaileen abokatua etenik barik saiatu zen Fagor Etxetresnak lantegiaren eta Mondragonen arteko lotura eta bigarrenak lehenengoaren erabakietan izan zuen esku hartzea azpimarratzen. Tenesen esanetan, jarraipen zehatza egiten zen Mondragonen aldetik eta 2011 eta 2013. urteen artean Mondragonek hartu zituen erabaki guztiak egoeraren jakitun zela.

- **Kontakizuna.** Hala, "kontakizun" bat helarazi zutela esan zuen. Javier Retegik batzar orokor baten erabilitako hitz hori erabili zuen, behin eta berriz, Tenesek, "Mondragonek bazkideei helarazi zien mezuaz" aritu zenean. Haren esanetan, Retegik batzarrean esan zuen "plan hori" aurrera eramateko ezinbestekoa izango zela bazkideengan eta kanpokoengan konfiantza sortzea. "Kontakizun horrek gidoi bat izan du", azpimarratu zuen Sunion bulegoko abokatuak. "2011ko bukaeratik aurrera, kontakizun bat osatu zuten Mondragoneko zuzendariek, Fagor Etxetresnen lehiaketa atzeratzeko. Jakinik espektatiba faltsu bat sortzen ari zela, mina sortzeko helburuarekin".

- **Elkartasuna.** Sunion bulegoko abokatuak aipatu zuen "elkartasunaren errezeta magikoa" izan zela Fagor Etxetresnetako zuzendariek bazkideei igorri zieten mezua. Horrela lortu zen soilik, Tenesen aburuz, bazkideen %20k eskatzea diruaren itzulera. "Horietatik soilik bik egin zuten demanda, eta bi horiek ez ziren Ordaindu eta Eskuratu elkarteetako kideak. Nola ez, planaren alde egiten zuten bazkideek eta ekarpenak kooperatiban mantentzearen alde, esaten baitzen, horrela ez bazen, hurrengo egunean bertan egongo zirela lehiaketan".

- **Lekukotzak.** Raul Tenesek azpimarratu zuen lekukotzen bitartez argi gelditu dela Fagor Etxetresnetako zuzendarien plangintza "hondamendia" izan zela. "Aurreikuspen falta handia izan zuten", haren ustez, eta "haien erabakiak izan ziren galerak eragin zituztenak". Tenesen hitzetan, gainera, "lekukoek azaldu dutenez, Mondragonek bazuen Fagor Etxetresnetako egoeraren berri, batzar ugari egiten zirelako".

- **Zuhurtziarik eza.** Mondragonek "zuhurtzia handiagoarekin" ibili behar zuen, demandatzaileen abokatuaren arabera. "Zehaztasun handiagoarekin jokatu". Aldiz, "erabaki zuten korporazioaren intereserako Fagorrek etorkizuna ziurtatuta zutela esatea". Raul Tenesen ustez, bazkideak ez zeuden prestatuta, ekarpenen gainean eta finantza kontuetan ezagutza txikia zutelako.

- **Demanda, epe barruan.** "Mondragonek dio epea likidazioarekin batera hasten dela eta guk diogu 2015ko otsailera arte ez zitzaiela komunikatu bazkideei dena galdu zutela. Hau da, kooperatiban baja otsailean eman zitzaien gutun bidez, Bengoetxeak baieztatu zuen moduan, eta, horrenbestez, urtebeteko epe barruan egin zen demanda", gaineratu zuen Raul Tenesek.

"Lekukoek gure argudioak berretsi dituzte"

Uria Menendez bulego entzutetsuko abokatu Arantza Estefania izan da, LKSko eta Mondragon etxe barneko kideekin batera, korporazioaren defentsa eraman duena.

Arantza Estefania, Mondragonen abokatua. J.D.

- **Lehiaketan ebatzitakoak** Demanda bat egiteko "oinarri juridikoak" behar direla eta "egitateak frogatu" egin behar direla nabarmendu zuen Estefania abokatuak. Azpimarratu zuen demandaren arabera Mondragonek bere interesen alde jokatu zuela eta hori erabat ezeztatuta gelditu zela bistaren lau egunetan. "Berebiziko garrantzia" eman zion egun hauetan eztabaidatu diren "hainbat gai dagoeneko hartzekodunen lehiaketan ebatzita" gelditu izanari. Esaterako, lehiaketa ezustekoa izan zela eta han ebatzi zela ez zitzaiela "informaziorik ezkutatu hartzekodunei; tartean, Ordainduri eta Eskuraturi".

- **Beste norabide bat** Arantza Estefania abokatuak azaldu zuen badirudiela demandatzaileek epaiketako ahozko bistako lau egunetan zehar "euren argumentuetan sinisteari" utzi diotela. Hori esateko, honako honetan oinarritu zen hura: "Prozeduran zutabe izan diren gai asko demandanteek ez dituzte ahozko bistan aipatu ere egin. *Tu Lankide* aldizkariko artikuluen eta Txema Gisasolak Forum Europan emandako hitzaldiaren gainean, hain zuzen".

- **Preskribatuta** Uria Menendez bulegoko abokatuaren aburuz, ekarpenen kopurua erreklamatzeko epea "2014ko uztailaren 29an hasten zen, eta urtebeteko epea zuten horretarako". Izan ere, "ekarpen ekonomikoak jasotzeko epea egun hartan iraungitzen zen", Arantza Estefania abokatuak azaldu zuenaren arabera. Demanda 2015eko azaroan aurkeztu zuten Ordaindu eta Eskuratu elkarteek. Beraz, abokatuaren esanetan, "preskribatuta" egongo litzateke.

- **Lekukoak** Abokatuaren hitzetan, epaitegitik igaro diren lekukoek argi berretsi zituzten hainbat puntu garrantzitsu. "Ekarpenen erantzukizuna Mondragoni pasatu nahi izan zaio, baina korporazioak figura horiek, ekarpen bereziak eta merkataritza maileguak ez dituela erabiltzen argi utzi zuen Arantxa Laskurainek, Fagorrenak bakarrik direla aipatu zuen". Gainera, Estefaniaren aburuz, lekuko guztiek esan dute "erabaki estrategikoak kooperatiba bakoitzak" hartzen zituela, "modu independentean".

- **Aktak** Arantza Estefaniak azpimarratu zuen, gainera, lekukoen saioetan eta ondorioetan batzarretako aktetan jarri zuela fokua Raul Tenesek, eta "erabili diren guztietatik bi bakarrik direla Mondragonen organoenak". Gaineratu zuen "bakar batean ere" ez dela agertzen "engainuaren arrastorik, baizik eta soilik korporazioaren kezka" azaltzen dela.

- **Kooperatiba independenteak** Gainera, Arantza Estefaniak aipatu zuen Mondragon korporazioa ez dela "talde bertikal edo holding bat", eta "hori hartzekodunen lehiaketan frogatuta" gelditu zela: "Kooperatibak independenteak zirela ebatzi zuten kudeatzaileek. Dokumentazioa urteetan aztertu ondoren, argi esaten da Fagor Etxetresnak kooperatibak bakarrik hartu zuela lehiaketara joateko erabakia Mondragonen esku-hartze barik", gaineratu zuen Estefaniak.

ELENA LAKA ABOKATUA

Prest, epaia emateko

Ondorioen txanda garrantzitsua izaten da epaiketetan. Alderdi bakoitzak epaian zehar egindako frogak aztertu, eta frogok bakoitzak defendatzen duenari nola egokitzen zaizkion eta froga bakoitzarekin zer gertatzen den azaltzen dute.

Ordaindu eta Eskuratu defenditzen duten kolektiboen abokatuak aipamen gutxi egin dizkio aste honetan zehar deklaratu duten lekukoek eta perituek esandakoari, eta azpimarra gehiago jarri du prozesuan aurkeztu dituen agirietan: aktak, bai Mondragon kontseiluarenak, bai Fagor Etxetresnako batzarretakoak, bai Fagor Kooperatiba Taldeko organoenak; urteko txostenak eta *TuLankide* aldizkariko artikuluak. Bere argudiaketaren zati bat aldatu du demandan esandakoaren aldean: ondorioetan adierazi du Mondragon ez dela enpresa holding ohiko bat, baizik eta kooperatiba sare bat, eta horien oinarrian dagoela kooperatiben elkartasuna eta konfiantza.

Aurkeztu ditu bere bezeroak aurrezkiak galdu dituzten bazkide batzuk moduan, kontuan izanda %80 bazkide jubilatuak zirela, eta gainerakoak, bazkide aktiboak. Eta bazkide guztiei konfiantza emateko eta beraien ekarpenak eska ez zitzaten, Mondragon Taldeak ekintza batzuk egin zituela: *TuLankide*-n Txema Gisasolak aipatu zuen egoera kezkagarria zela, baina ez beldurgarria, Taldearen laguntza izango zuela, eta baita ere San Andres eta Garagartzako sailak erosteko operazioa.

Horren guztiaren bitartez, konfiantza bat sortu zela, konkurtso desordenatu batera ez joateko, eta bazkideek borondatezko ekarpenen bueltatzea eska ez zitzaten. Une oro agertu zela elkartasuna eta konfiantza zirela kooperatiben oinarri, eta, hain zuzen, elkartasun horrek ez zuela "beraien kooperatiba santua" jausten uzten. Batez ere, akta batzuen zatietan jarri du bere argudiaketaren oinarria, esanez "kontakizun" bat egin zela –*errelato* hitza erabili du– konfiantza sortzeko.

Demandan Mondragonek informazio faltsua nahita eman zuela esaten bazuen ere, egueneko azken saioan esan du Mondragon ez zela faltsutasun horren jakitun, baina arduragabe jokatu zuela. Adierazi zutela Fagorrek bazeukala etorkizun argia, jakin gabe zein baliabide izango zituzten etorkizun hori bermatzeko. Mondragoneko zuzendariek beraien adierazpenak gehiago zaindu eta zehaztu beharra zutela, baina ez zutela egin konfiantza hori apurtu ez zedin. Ez da konkurtsoa aurreikusi zitekeela, baizik eta kudeaketa hobe bat eraman beharra zeukala norabide horretarantz ez jotzeko. Zehaztasun gehiago jarri beharra zeukala bere adierazpenetan, bazkideak kaltetuta atera ez zitezen.

Bukatzeko, modu laburrean, auzira ekarritakoak emandako lehen argudioaren kontrako arrazoiak eman ditu: preskripzioa. Esan du kontatzen hasteko data 2015eko otsaila dela, bazkideek guztia galdu zutela jakin zutenean, eta, beraz, demanda 2015eko abenduan aurkeztu zenez, epearen barruan egin zela.

Irizpide juridikoak

Arantxa Estefaniak, auzira ekarritako alderdiaren abokatuak, bestalde, gogora ekarri du auzi batean gaudela, eta erabili beharreko irizpideak juridikoak direla, eta auzi jartzaileari dagokiola frogatzea erreklamatzen ari den egitate horiek. Harridura agertu du frogatzeko, bere iritziz, ahalegin txikia egin duelako auzi jartzaileak. Harritu egin da inongo bazkiderik ekarri ez izanaz lekuko moduan, engainatuak izan zela adierazteko.

Marmarrak entzun dira aretoan Fagor Taldea Mondragoneko kide ez dela adierazi duenean, ikusleen artean batzuek esan dutelako kooperatiba guztiak Mondragoneko kide zirela. Epaileak oharra eman du: "Hurrengo marmarra, eta aretoa hutsaraziko dut". Ez da marmar gehiago gertatu.

ESKATZAILEEN ABOKATUAK AZPIMARRA JARRI DU AURKEZTUTAKO AGIRIETAN

AUZIRA EKARRITAKO ALDEAREN ABOKATUAREN LEHEN ARGUDIOA HONAKO HAU: PRESKRIPZIOA

EZ DELA DEMANDAK AURRERA EGITEKO INOLAKO ARGUDIORIK FROGATU, DIO MONDRAGONEK

Bere lehen argudioa zehaztu du ondoren: preskripzioa. Izan ere, auzi jartzailea erabiltzen ari den akzioak urtebeteko iraunaldia dauka, demanda beranduago jarriz gero, ez du aurrera egiterik izango. Eta epea kontatzen hasteko data 2014ko uztailaren 29an jarri du: hain zuzen, konkurtsoan Cata-ri esleipena egin zitzaionekoa. Orduan jakin omen zuten bazkideek dena galduta zeukatela, eta hortik 2015eko abendura, urtebete luzea pasata dagoela.

Eta ondoren, mami-mamira sartu da: ez dela frogatu kontratuz kanpoko erantzukizun erreklamazioak eskatzen dituen baldintzetako bat ere. Alegia, lehenik: ez dela engainurik gertatu. Mondragonek Garagartza eta San Andreseko sailak erostearekin egin zuen gauza bakarra izan zela "sekulako mesedea" –*favorazo* berba erabili du–. Oso sutsu defendatu du Mondragonek ez zuela onurarik atera, esan du argudio horrek bereziki eman diola mina Mondragoni, taldeak ez zuelako onurarik atera, epaiketan perituek adierazi zuten moduan. Azpimarratu du kooperatibetan, batzar orokorren bitartez, bazkideek momentu oro guztiaren informazioa dutela, eta bazkideak guztiaren jakitun zirela. "Zela egongo da engainua", erantsi du, "kooperatibek 111 milioi baino gehiago sartu bazituzten 2011tik 2013ra arte?". Bigarren baldintza ere betetzen ez dela azaldu du. Ez da indemnizatzeko moduko kalterik izan. Bazkideek jasan duten kaltea, kontratu batetik eratorritako kalte bat da, bazkide zirenez gertatu zen. Ezin da kalte hori kontratuz kanpoko erreklamazio baten gai izan, kontu honetan ari diren moduan. Legea bere erara erabiltzeko nahia egotzi die demandatzaileei, gainerako zordunen aurretik jartzea helburu bakar, eta, gogorarazi du Fagorren pasiboa 1.000 milioikoa zen. Eta hirugarren baldintzaren gabezia azpimarratu du: kausazko lotura balizko engainuaren eta kaltearen artean. Dioenez, ekarpenak ez ziren galdagarriak, ez juridikoki –zordunen berdintasun printzipioa apurtuko litzatekeelako–, ez materialki, bazkide guztiek batera eskatuko balituzkete ekarpen guztiak ezingo zirelako bueltatu. Iritzi dio, beraz, ez dela demandak aurrera egiteko inolako argudiorik frogatu, eta bukatu du bere jarduna epaileari eskatuz demanda ezetsi dezala.

Iritzi dio, beraz, ez dela demandak aurrera egiteko argudiorik frogatu, eta bukatu du epaileari eskatuz demanda ezetsi dezala.

Eta orain zer?

ETAk bukatua du bere "ekinbide politikoa", egitura guztiak "erabat desegin" ostean. Hala jakinarazi zuen aurreko eguenean –maiatzak 3– kaleraturiko amaiera adierazpenean. Eta orain, aurrera begira jarriak dira ordezkari politikoak

Iker Oñate DEBAGOIENA

ETAk bere ibilbidea eten zuen aurreko eguenean –maiatzak 3–. Amaitutzat eman zituen "erakundearen ziklo historikoa eta funtzioa". Hain zuzen, zenbait adierazpenek –apirilaren 20koa eta maiatzaren 3koa– eta hitzorduk –Kanboko ekitaldia, tartean– ezaugarritu zituzten ETAren bukaera. Esan beharrekoa da horiek era guztietako iritziak sortu dituztela panorama politikoan. Hori bai, aurrera begira jarriak dira alderdiak. Hala, euren irakurketa ezagutu guran, hainbat alderdi politikotako ordezkariekin izan da GOIENA.

ETAren adierazpenak

Esangura handiko bi adierazpen egin ditu ETAk azken asteetan. Besteak beste, "ibilbide armatuan eragindako kalteak" onartzeko oharra kaleratu zuen apirilaren 20an. Era berean, ohar horretan, konpromisoa azaldu zuen "gatazkaren ondorioak behin betiko atzean uzteko, eta halakorik berriro ez errepikatzeko".

Horrekin batera, "gatazkan parte hartze zuzena izan ez duten biktimei" barkamena eskatzeko erabili zuen adierazpena; zenbait alderditako ordezkariak asaldatu egin ditu biktimak bereizte horrek. "Elementu berriak, eta, era berean, interesgarriak azaldu zituen adierazpen hartan. Baina hanka-sartze izugarria egin zuen biktimak bereiztean. Besteak beste, esan daiteke arrazoi politikoak eta ekonomikoak lehenetsi dituztela, etikoak beharrean", azaldu du Aitor Urrutiak, EAJko legebiltzarkide eskoriatzarrak.

Bestetik, maiatzaren 3ko adierazpenarekin eman zion bukaera ETAk bere ibilbideari –Marixol Iparragirre preso eskoriatzarrak eta Josu Urrutikoetxea ETAko kide ohiak irakurri zuten azken adierazpena–. Haren bidez, ETAk jakinarazi zuen "erabat deseginda" zituela egitura guztiak, eta, beraz, bukatutzat joa zuela haren "ekinbide politikoa". Are: gaineratu zuen militante izandakoek "beste eremu batzuetan" jarraituko dutela "Euskal Herri bateratu, independente, sozialista, euskaldun eta ez patriarkaren aldeko borrokan, norberak egokien irizten dion tokian".

Eta horrek ere askotariko iritziak sortu ditu ordezkari politikoen artean. Tartean, "baikor" azaldu da Iosu Lizarralde, EH Bilduko Gipuzkoako batzarkide oñatiarra: "Albiste ona da; hala baloratu behar da. Ona da euskal gizarte osoarentzat. Euskal Herrian bakea eta bizikidetza demokratikoa eraikitzeko ekarpen historikoa izateaz gain, euskal gizarteak espero eta desio zuen zerbait izan delako. Finean, esan daiteke gizartearen nahiak erantzuna izan duela ETAren partetik".

Eta, ostera, erdibidean gelditzen denik ere bada. "Gustura jaso dugu ETAren behin betiko desegitea, beharrezkoa zelarik. Hori bai, berandu dator, eta eragindako min bidegabearen aitorpen barik. Ezin daiteke biktimen arteko bereizketarik onartu. Horien guztien giza eskubideak urratu zituen ETAk", azaldu du Isabel Saludek, Unidos-Podemoseko parlamentari eta Ezker Anitza-IUko koordinatzaile bergararrak.

Bestetik, adierazpenaren kontra egin du Rafalea Romerok, PSOE-EEko legebiltzarkide arrasatearrak. "Ez zait eduki doktrinario eta totalitarioa interesatzen; *Inoiz ez zen gertatu behar* esaldiarekin geratzen naiz neu", dio. Eta gaineratu du "berandu" heldu zela adierazpena: "ETA beti heldu izan da berandu". Horri lotuta, Urrutiak 2011ko urriaren 20ko adierazpena dakar gogora: jarduera armatua "behin betiko" eteteko erabakia iragarri zuen ETAk. "Niretzat, hura izan zen garrantzitsuena", argitu du.

GOIENA

"HERRIAK BERBA EGITEKO UNEA DA ORAIN, AKORDIOAK ERDIESTEKOA"

AITOR URRUTIA, EAJ

GOIENA

"HERRI PLURALA GARELA ONARTU BEHARRA DUGU, NORMALIZATU"

ISABEL SALUD, EZKER ANITZA-IU

Kanboko ekitaldia

Adierazpenen ostean etorri zen Kanboko ekitaldia –maiatzaren 4an egin zuten–. Besteak beste, nazioarteko begiraleak –Jonathan Powell, Gerry Adams, Brian Currin...–, Euskal Elkargoaren presidente eta Baionako auzapez Jean Rene Etchegaray, hainbat alderditako ordezkariak eta sindikatuetako kideak izan ziren bertan. Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak, berriz, adierazpen bateratua egin zuten



GOIENA

"MAITASUNA, ENPATIA ETA ELKARTASUNA OINARRI ERAIKI BEHAR DUGU ETORKIZUNA

IOSU LIZARRALDE, EH BILDU

GOIENA

"IRAGANA MINGARRIA DA; ITXAROPENEZ BEGIRATZEN DIOT ETORKIZUNARI"

RAFAELA ROMERO, PSOE-EE

Bertizko jaurerrian (Nafarroa Garaia).

Besteak beste, Lizarraldek uste du "esangura handiko" ekitaldia izan zela Kanbokoa. "Gatazkan egon diren beste herrialdeetan egin den bezala, Harremanetarako Nazioarteko Taldeak (HNT) bake konferentzia antolatu zuen; hark berebiziko garrantzia izan du ETAk egindako azken urratsetan –2010az geroztik–. Beraz, zentzu bakoak dira hitzorduari balioa kentzeko izan diren saiakerak", dio. Eta Iñigo Urkullu lehendakariaren jarrera dakar gogora: "Tristura eta kezka sorrarazi dizkit bere jarrerak. Atsekabetuta sentitu naiz, ez baitabil uneak eskatzen duen maila ematen. Nahiago nuke Etchegaray lehendakariak izan duen jarrera izango balu".

Bestetik, ekitaldian parte hartu zuten horietan sakondu barik, Kanboko konferentzia "berandu" iritsi zela dio Urrutiak. "Denbora larregi igaro da 2011ko adierazpenetik hona. Horrek balio historikoa kentzen dio hitzorduari. Dena den, beti diot: inoiz ez baino, hobe berandu egitea", aitortu du.

Saludek, berriz, "baikorki" baloratu du nazioarteko bitartekaritzaren esku hartzea. Hori bai, kritiko azaldu da egiteko moduarekin: "Bertan parte hartu zuten eragile eta alderdiek ez zuten adierazpena ezagutzen. Ez gaude horrekin ados".

Romerok, aldiz, ez zuen "ziurtasun-ekitaldi berezi" beharrik ikusten, "ETAri berari dagokiolako desegitea". "Nazioarteko begirale ospetsu batzuk, ez dakit zer gatazkaren konponbidearen izenean, ETAren amaieraren eszenifikatze ekitaldira etortzea bigarren mailakoa da", dio.

Aurrera begira

Gaur-gaurkoz, aurrera begira jarriak dira alderdietako ordezkariak. Oro har, presoen urruntze politikoarekin segitzea "justifikatu barik" legoke, horien ustez. "Presoen kontuan ez legoke lege bereizketa egin beharrik", dio PSOE-EEko kideak. Eta gaineratu du presoak libre direla, banan-banan, askatasunez, beren bidea erabakitzeko, "haien senideen sufrimendua ere arindu dadin". Gainerakoan, Romerok "itxaropenez" begiratzen dio etorkizunari, "iragana mingarria den arren".

Bestalde, EAJko kidearen hitzetan, "gauza asko daude aldatzeke". Hala, "giza eskubideen errespetua eta biktima guztien errekonozimendua" aipatzen ditu, tartean. Are: uste du "herriak" berba egin behar duela, "desadostasun politikoak" egon arren. "Akordioetara heldu beharra dugu", aitortu du.

Era berean, "eskubide guztien errespetua" aldarrikatu du EH Bilduko kideak: "Bizikidetza demokratikoa eraikitzeko, ezinbestekoa da eskubide guztiak errespetatzea, baita herri honen eskubide nazionalak ere". Eta "maitasunean, elkartasunean eta enpatian oinarrituriko bakearen eta etorkizunaren" alde egin du.

Eta, bukatzeko, gizartearen "izaera plurala" onartzeko lan egin beharra aipatu du Ezker Anitza-IUko kideak: "Oraindik zabalik daude zauriak. Beharrezko dugu herri plurala garela onartzea, normalizatzea".

Stop Kaleratzeak plataformak Banco Popularren egoitza aurrean eskainitako prentsaurrekoa, eguaztenean. IMANOL SORIANO

Etxetik bota ditzakete: negoziazio fasean dira

Arrasateko bikote bat etxe barik gera daiteke, Banco Popularrek hala eskatuta. Etxe kaleratzea maiatzaren 30erako zegoen iragarrita, baina, azkenean, negoziatzeko prest azaldu da bankua –demandatuek martitzenean izan zuten horren berri–

Iker Oñate DEBAGOIENA

Arrasateko bikote bat etxe barik gera daitekeela salatzeko, prentsaurrekoa egin du asteon Debagoieneko Kaleratzeak Stop plataformak. Eta azken orduko berririk ere eman du bertan: etxeko bizilagunekin negoziatzeko prest azaldu da Banco Popular. "Bankuaren aldeko ebazpena eman zuen Bergarako Epaitegiak: maiatzaren 30erako zuen finkaturik kaleratze agindua. Baina presio sozialak iritziz aldarazi du. Bankua, negoziatzeko prest da orain", azaldu du Juan Luis Merinok, plataformako kideak. Horrenbestez, behinik behin, bertan behera geratu da bikote arrasatearraren kaleratze agindua. Negoziaketa prozesuari ekitea dagokie orain.

Bestetik, kaleratze arriskuan diren bizilagunen ingurukorik ere jakinarazi du Merinok. "Pedro, 67 urteko erretiratua, eta Santa –elbarritasun bat du– dira euren ohiko etxebizitza galtzeko arriskuan diren arrasatearrak", dio.

Hala, eragileetako ordezkariez aparte, zenbait udal ordezkarik –EH Bildu, Ahal Dugu-Podemos, Irabazi eta PSOE-EE– eta sindikatutako kidek –ELA, LAB eta CCOO– esku hartu dute prentsaurrekoan. Bestetik, EAJk azaldu du kaleratze agindua bertan behera utzia zelako ez duela bertan parte hartu. Eta gaineratu du Maria Ubarretxena alkatea harremanetan izan dela Arrasateko Banco Popularreko zuzendariarekin. Plataformako kide Salvador Gonzalezek, berriz, azaldu du "egoeraren larritasunaren adierazgarri" dela jasotako babesa.

Epailearen "akatsa"

Eta abokatuek ere azaldu dute kasuari buruzkorik. Besteak beste, epailearen "akatsa" aipatu dute haiek, errekurtsorako tarterik utzi ez zuela iritzita. "Errekurtsorako ateak itxi zituen Bergarako Epaitegiaren azken ebazpenak. Akatsa da hori", argitu du. Hain zuzen ere, 2017ko abuztuaren 17koa da ebazpen hori.

Horri lotuta, Jose Maria Erauskin abokatuak salatu du "babes judizialerako eskubide urraketa" dakarrela erabaki horrek. Eta, beraz, gaur-gaurkoz, Auzitegi Konstituzionalera eroana dute kasua –Bergarako Epaitegira jo zuten horren aurretik, baina hark ez zien arrazoia eman–. Ondo bidean, maiatzaren 30a baino lehenagorako espero dute auzitegiaren ebazpena.

Abal-emaileak

Bestetik, argitu dute kaleratze aginduaren pizgarria ez dela edozelakoa. "Bere garaian negozio txiki bat ireki gura zuen lagun baten abal-emaile dira. Alegia, eurek ez diote dirurik zor bankuari. Ez dute zuzeneko zorrik. Ordainduta dute etxebizitza", azaldu du Maite Ortiz abokatuak.

Ibarreko euskal eskola publikoek jai berezia egingo dute urrian

Eskoriatzan egingo dute Debagoieneko euskal eskola publikoen festa, urriaren 20an

Egitasmoaren aurkezpen prentsaurrekoa, martitzenean, Luis Ezeiza herri eskolan. IMANOL BELOKI

I.O. DEBAGOIENA

Debagoieneko euskal eskola publikoek jai berezia egingo dute urriaren 20an, Eskoriatzan. *Hezi eta hazi* leloa aukeratu dute egun horretarako. "Lekeition egingo da euskal eskola publikoen jai nagusia. Baina beharrezko ikusi dugu Debagoienean ere halako bat antolatzea, bereziki, Luis Ezeiza eskolari bultzada emateko", azaldu dute egitasmoaren bultzatzaileek.

Hori horrela, egitarau oparoa antolatu dute egun horretarako. Tartean, *flashmob*-a egingo dute ibarreko ikasle, irakasle eta gurasoek –Fernando Eskoriatza plaza aukeratu dute horretarako–. Eta bestelako ekintzak izango dira ostean: ikasleek antolatutako tailerrak, kirol txapelketak, Potx eta Lotx pailazoen emanaldia, herri bazkaria, komedia emanaldia eta Zea Mays taldearen kontzertua, esaterako.

Euskalduna eta inklusiboa

Bestetik, eurenari eusten segitzeko asmoa berretsi dute egitasmoaren bultzatzaileek: "Hezkuntza publiko euskalduna lehenestea dugu erronka nagusi, oinarri demokratikoak abiapuntu izanda, beti ere". Denen artean eraikitzeko beharra berretsi dute.

Eta gizartearen zein hezkuntza publikoaren "aniztasunean" ere jarri dute fokua –familia eredua, kultur aniztasuna...–. Horren aurrean, aniztasunaren "diskurtso positiboa" eraikitzearen alde agertu dira eskola publikoko ordezkariak, "ekitatean eta inklusibitatean" oinarrituriko hezkuntza eredua bultzatuz.

Hain zuzen ere, horiek ditu erdigunean *Hezi eta hazi* leloak: "Aniztasuna ez da arazoa, horri bizkarra ematea baizik. Gizarte

Abdulqadar Mohamed Riaz eta Sana Riaz, euren semearekin, Djamila Zereiby alboan dutela.. E.A.

"Iruzur" baten ondorioak pairatzen ari den familia

Lanbidek diru sarrerak bermatzeko errenta eten zien 240 pakistandarri martxoan, Ertzaintzak Pakistango ondare higiezinen dokumentuak "faltsutzen" zituen talde bat atzeman ostean; horrek zuzenean eragin die Debagoieneko zenbait familiari

Eneko Azurmendi ARRASATE

"Pakistandar batzuek dokumentuak faltsutu izanak ez gaitu pakistandar guztiok errudun egiten". Hala adierazi du Abdulqadar Mohamed Riazek, zuzenean kaltetuetako batek. "Dokumentuak faltsutu dituzten horiek dira errudunak, eta beste pakistandar guztioi eragin digu haiek egindako gaiztakeriak. Kalean ere gaizkileak bagina bezala begiratzen digute, eta guk ez dugu zertan hori jasan". Adierazi du "ezer gabe" gelditu direla Lanbidek diru laguntza kendu dienetik. Izan ere, euren egoera erregularizatu gabe dute hark eta emazteak, Sana Riazek, eta ez dute apenas diru sarrerarik. Sanak Caritasen egiten du lan, egunean lau orduz, baina hilean 140 euro besterik ez du irabazten, eta gizonak ez du lanik. Horrez gain, bi seme-alaba dituzte, 10 eta 13 urtekoak. Lana aurkitzeko "edozer gauza" egiteko prest daudela diote, baina egoera erregularizatu gabe "oso zaila" dela azaldu dute.

Alokairuan bizi dira, eta, orain artekoa ordaintzea lortu badute ere, azaldu dute kalean geratzeko arriskuan daudela. "Zenbait familia pakistandarrek ematen digute dirua, ordaintzen joateko, eta orain arte moldatu gara, baina ez ditugu gehiago molestatu nahi, ezin gara beti eskean aritu", dio Sanak.

Djamila Zereibyk, Emakume Musulmanak Euskal Gizartean Integratzeko Elkarteko presidenteak, dio familia pakistandar asko geratu direla egoera antzekoan, "baina familia honen kasua larriena dela esango nuke, diru laguntza gabe gelditzeaz gain, euren egoera erregularizatu gabe dutelako. Ez dute ezer".

Haurrak lehentasun

Zereibyk gaineratu du elkartetik hainbat ate jotzen ari direla, lanen bat aurkitzeko bietako edonorentzat. "Baina, dauden egoeran egonda, ez da erraza. Janaria erosi eta haurrei jaten ematea da haien lehentasuna. Haiek babestea da garrantzitsuena. Bi haur dituzte, eta baldintza horietan ezin diete behar duten guztia eskaini".

Egoera nahasia

Iruzurra atzematean, Lanbide espedienteak aztertzen hasi zen, eta, antza, zigiluak modu ilegalean eskuratu eta Pakistanek Madrilen duen enbaxadatik pasatu gabe aurkezten zituzten dokumentuak. Baina zigilu bat baino gehiago behar ditu dokumentu horrek balio izateko. Lanbidek ere ez du garbi zeintzuk diren beharrezko zigiluak, eta egoera aztertzen ari da.

Norbanakoak eta familiak dira kaltetuak, eta horien artean ere askotariko egoerak daude. Batzuek, adibidez, urtebete itxaron beharko dute dokumentu hori berriz aurkeztu ahal izateko. Gizarte zerbitzuek adierazi dute "malguago" jokatuko dutela kaltetu horiekin, "egoera argitu bitartean".

Isopopotopotototo, Tresyemas eta Gorringo, hiru talde sarituak

MUk ohiko Arrautza Jaurtiketa Lehiaketa egin zuen atzo eta 88 ikaslek hartu zuten parte, 32 taldetan banatuta

E.A. DEBAGOIENA

Urteroko ohiturari jarraituz, Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoaren San Pankrazio zaindariaren egunean, Arrautza Jaurtiketa Lehiaketa egin dute ikasleek. Helburua da unibertsitateko ikasle edo langileek tramankulu bat diseinatzea jaurtiko duten arrautza babesteko. Arrautza apurtu gabe urrunen jaurtitzen duenak irabazten du sari nagusia.

Hegaldirik luzeena Isopopotopotototo taldearena izan da: 20 metro, hain zuzen. Oier Balbas eta Ander Otegi dira taldea osatu dutenak. Hegaldirik politenaren saria Tresyemas taldearentzat izan da –Eder Sanz, Aitana Bahillo eta Cristina Melendez–. Azkenik, diseinurik onenaren saria Gorringo taldeak irabazi du –Lia Garai, Irati Cobo eta Ane Errazkin–.

Tramankulua diseinatzeko, tamaina ertaineko oilo-arrautza bat, kartoi mehea, soka eta ukipen-kola erabili dituzte.

Aurten 20 urte bete ditu lehiaketak, eta 88 ikaslek hartu dute parte, 32 taldetan banatuta.

Bidarteko erailketa salatu dute hainbat talde feministak

Pasa den astean, maiatzaren 3an, tiroz hilda agertu zen emakume bat Bidarten (Lapurdi), eta epaileak hilketa leporatu dio 79 urteko gizon bati.

Bergarako Martxanterak talde feministak elkarretaratzea egin zuen eguaztenean, erailketa salatzeko, eta adierazi dute "nazkatuta eta haserre" daudela indarkeria matxista kasu berri horren aurrean. "Apirila bereziki hilabete gogorra izan da Euskal Herriko emakumeontzat", gaineratu dute, beste lau erailketa izan direla salatuz.

Aretxabaletan ere egin zuten elkarretaratzea eguaztenean, Bidarteko erailketa salatzeko, talde feministak deituta.

ULMA Hormigón Polímero, S. Coop. Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA • DEIALDIA

Eguna: 2018ko maiatzaren 18a
Ordua: 14:30etan lehen deialdia eta 15:00etan bigarrena
Tokia: MU-Enpresagintzako auditorioa – Oñati (Gipuzkoa)

GAI ZERRENDA

1. AURREKO AKTAREN ONARPENARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA BAZKIDEAK IZENDATZEA BATZAR HONETAKO AKTA ONARTZEKO
2. 2017KO EKITALDIKO GESTIO SOZIALA AZTERTZEA, ETA, ONARTZEA HALA BADAGOKIO, ETA 2018KO GESTIO PLANA BERRESTEA
3. ULMA TALDEARI BURUZKO TXOSTENA
4. 2017KO EKITALDIKO URTEKO KONTUAK AZTERTZEA ETA, ONARTZEA HALA BADAGOKIO
   4.1 2017ko urteko banakako kontuak aztertzea eta, hala badagokio, onartzea
   4.2 2017ko urteko kontu bateratuak aztertzea eta, hala badagokio, onartzea
5. AUDITOREA IZENDATZEA EDO BERRAUTATZEA
6. KAPITALAREN ORDAINKETA. 2017KO EKITALDIARI DAGOZKION INTERESEN SORTZAPENA
7. 2017KO EKITALDIKO EMAITZAK BANATZEA
8. KOOPERATIBAREN BARNE ARAUDIAREN 43. ARTIKULUAK INTERESEN MONETARIZAZIOA NEGOZIOAREN EGOERA FINANTZARIOAREN ARABERA MAILAKATZEARI BURUZ DIOENA ALDATZEA, HALA BADAGOKIO
9. JARDUERA SOZIALA ULMAN ETA HEZIKETA ETA KOOPERATIBA SUSTAPENERAKO ETA INTERES PUBLIKOKO BESTE HELBURU BATZUETARAKO KONTRIBUZIOA APLIKATZEA (IPDK)
   9.1. 2017an IPDKetatik egindako erabilerari buruzko deskargaa
   9.2. 2018an IPDK k aplikatzeko proposamena
   9.3. ULMAren 2018ko jarduera sozialaren ikuspena azalpena
10. BAZKIDE BERRIEN KAPITALERA EKARPENAK
11. KONTSEILU ERREKTOREKO KIDEAK BERRITZEA
12. ZAINTZA BATZORDEKO KIDEAK BERRITZEA
13. KONTSEILU SOZIALEKO KIDEAK BERRITZEA
14. HURRENGO BATZARRA EGITEKO LEKUA
15. AHALMENAK ESKUORDETZEA
16. GALDE-ESKEAK

OHARRAK: Bazkideei gogorarazten zaie ULMA Hormigón Polímero, S. Coop.en ("Kooperatiba")-egoitzan eskuragarri dituztela urteko kontuak, eraustak aplikatzeko proposamena eta kontuen kanpo fiskalitzak egindako gestio txostena, Barne Araudiaren deialdiaren epean zehar orriotu ahal izan dituzten. Halaber, badaude gaiaren jakinarazten zaie Kooperatibaren egoitzan dituztela eskuragarri aranduan proposatutako aldaketaren testu osoa eta aldaketa honen justifikazio txostena, eta hori dena eraiteko edo baloratzeko eskubidea dutela.

KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA
Oñati, 2018ko maiatzaren 3a

GUTUNAK

Eskolen finantzabideak

AITZOL ILLARRAMENDI
ARRASATE HERRI ESKOLAKO GURASOEN ELKARTEAREN IZENEAN
ARRASATE

2018-04-27ko *Puntua*-n aukera eman zitzaion iritzia eman zezan Arizmendi Ikastolako zuzendariari. Hezkuntza sistemaren finantzabidea izan zuen aztergai, zifra eta datu andanarekin. Artikuluan, itunpeko eskola pribatuen alde egiten du, noski, baina horretarako etengabe ipintzen du zalantzan eskola publikoetako kudeaketa, eta puntu batzuk argitu beharra ikusten dugu.

Hasteko, Euskal Eskola Publikoak finantzabide eskasa duenik ukatzen du, azken 10 urteetan jasandako murrizketak aintzat hartu gabe. Laburpen gisa, jakizue hezkuntza inbertsio publikoa Barne Produktu Gordinaren %4,3 izatetik %3,5 izatera pasa dela. Horri aurre egiteko izan dira azkenaldiko mobilizazioak, gurasook ere babestu ditugunak.

Harrituta utzi gaitu, era berean, eskola pribatuetako irakasleen soldata hainbeste aipatzeak: sare pribatuan azken 10 urteetan lan hitzarmenik sinatu ez bada, ez da izan langile publikoen eskaerengatik, patronalaren jarreraren erruz baizik.

Bestalde, ikasleak %50ean banatuta daudenez, diru kontuek ere hala behar luketela dio, baina, gure ustez, diru publikoarekin kudeaketa publikoko erakundeak hobetsi behar dira, beti; dela osasungintzan, dela administrazioan, dela hezkuntzan. Gobernuak diru berdina inbertituko balu Quiron-en eta Osakidetzan, zerbait gaizki egiten ari delako seinale, ez da hala?

Beste gai batzuk ere iluntzen ditu artikuluan. Adibidez, esaten du itunpeko eskolek finantzabide handiagoa behar dutela orain, gizarte-beharrizan handiagoko ikasleak artatzeko, baina esatea ahaztu zaio gaur arte ikasle horiek ze eskolatan hezten ditugun. Edo udalen ekarpenak aipatzean, esan gabe geratu zaio hainbat eskola pribatuk herriarenak diren eraikuntzetan egiten duela lan, eta udala egiten dela hauen mantenuaren kargu, neurri batean.

Hezkuntza gure gizartearen erronka nagusienetako bat da, zailtasunez betea eta etorkizunera begira guztion beharra duena. Nork berea defendatzea zilegi da eta ziur nago egin daitekeela Euskal Eskola Publikoaren aurka jo gabe.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HANDIK ETA HEMENDIK

Gizonok, orain zuen txanda da

LEIRE NARBAIZA ARIZMENDI
'EIBAR.ORG'-N ARGITARATUA
HTTPS://LABUR.EUS/1HQVY

"Apirila da hilik krudelena", hasten da T.S. Eliot-en *Hilen ehorzketa* poema. Apiril hau ere krudela izan da arlo larregitan. Azken astea, batez ere, oso intentsua eta gogorra. Tristura, haserrea, amorrua, higuina, mina… sentimendu horiek guztiak pasatu ditugu, bat baino gehiago batera. Horregatik gaude lur jota, porru eginda.

Ankerra izan da hilabete hau, emakumeen kontrako bortizkeria erakutsi digulako gordin.

Oihu kolektiboa egin dugu egunotan.

Sentipen horiek denak lagunartean, lantokian, sare sozialetan okatu ditugu. Makina bat artikulu idatzi eta irakurri dugu epaiaz, hamaikatxo ideia eta hausnarketa jaurti dira horietan.

Artikulu honetan, baina, gizonengan jarri nahi nuke jo-puntua, uste dudalako badela sasoia eurek, zuek, zeozer egiteko.

Emakumeok aspaldi jarri ginen martxan, baina gizasemeek oraindik buelta asko eman behar dituzte, dituzue.

Bada garaia zuek ere mugitzeko!

Ondo dago sumindura agertzea, manifestazioetara etortzea eta lagundu nahi izatea.

Ederki, baina pauso gehiago daude.

Goizaldean, emakume bat etxerako bidean, kalea hutsik, eta bat-batean atzean pauso batzuk entzuten ditu. Beste emakume bat da. Uf! Zelako lasaitua, pentsatuko du lehenengo andreak. Baina, gizon bat izanez gero, atezuan jarriko da. Agian, giltzak hatzen artean ipiniko ditu, badaezpada ere. Emakume horrek gizona sumatu duenean, ez du pertsona bat ikusi, erasotzaile potentzial bat baizik. Bazenekiten, mutilok? Hori berori lankide gizon bati azaldu behar izan nion pasa den astean, eta haluzinatu egin zuen. Emakume guztioi gertatzen zaigu kontatu dudana. Gizonezkoa izango banintz, eta halakorik kontatuko balidate, lotsa-lotsa eginda egongo nintzateke nire generoak eragiten duen izuarekin! Zelako beldurra sortu diguten txikitatik! Zer egin behar duzue hori aldatzeko?

Inori esajerazioa iruditzen bazaio esandakoa, Twitterren *#MeToo, #BalanceTonPorc, #Cuéntalo,* edo neurri txikiagoan *#KontaEzazu* bilatzea dauka. Mundu osoko milaka emakumek bizitzan zehar jasandako eraso sexualak kontatzen dituzte. Batzuetan, ume-denboretakoak ere bai. Leitzeak oilo-ipurdia jartzen du. Are izugarriagoa da jabetzea eguneroko kontua dela, Lur bira osoan gertatzen dela, eta erasotzaileak beti gizonezkoak direla!

Orain ez dadila inor hasi "gizon guztiak ez gara horrelakoak!" esanez. Jakina, hori baino ez genuen behar! Ondotxo dakigu.

Horregatik eskatzen dizuegu beste pauso bat emateko: jarki, aurre egin, esan stop emakumeen kontrako mespretxuei, txiste sexistei muzin egin zuen taldeetan, kargua hartu bortxaketaz dihardutenei…

Asaldatuta bazaudete, mugitu!

Ez onartu lagunartean halakorik!

Hori da bide bakarra.

Horretaz gain, beste gauza batzuk ere eskatuko dizkizuet: ez gaitzazue kondezendentziaz trata, ume txikiak bagina lez, aitakeriaz, askotan gertatzen den moduan, ez baikara umeak.

Entzun iezaguzue, mesedez, sarriegi gure ahotsa ez delako aintzakotzat hartzen; edota berba egiten dihardugunean ez moztu gure hitza. Eta honekin lotutakoa, ez egin *arzalpenik, mansplaining*-ik; hau da, ez guri azaldu ondotxo dakiguna, gu ere ikasitakoak gara eta.

Eta izan enpatia gehixeago, jarri gure lekuan.

Inflexio puntuan gaude, eta denok egin beharko dugu bira, apiril krudel gehiago egon ez dadin.

Post gehiago 10. orrialdean.

HAUXE BAI JENEROA!

GARBINE UBEDA

ZABALIK

IÑAKI UGARTEBURU

Bizikletaren Nazioarteko Eguna

Urtero legez, apirilaren 19an, Bizikletaren Mundu Eguna izan zen; bizikletaren erabilera sustatzeko, txirrindularien segurtasuna erreibindikatzeko, mugikortasun jasangarria proposatzeko, herritarrentzako herriak eta hiriak eskatzeko, bizitza osasungarriagoa izateko...

Badakit Euskal Herrian bizi garela, eta *amaitzear* dagoen negua nolakoa izan den ere ezin ahaztu, baina bizikletak gehiago erabiltzeko gonbidapenarekin natorkizue.

Asko dira asmatu ditzakegun aitzakiak nire eskaerari ezetza emateko: auto larregi daude, ez dakit nondik joan behar dudan, aldapa asko daude, eguraldia... Kasu askotan, arrazoi guztiarekin, baina, gaur egun, gurea baino hotzagoak eta aldapatsuagoak diren eta auto gehiago dituzten hainbat tokitan, bizikletaren erabilera gurean baino askoz ere handiagoa da.

AUTOENTZAKO KALEAK DIRA ETA GURE BIZI KALITATEAREN MAILA JAITSI EGIN DA

Urte batzuk baditut eta oraindik ere gogoratzen dut 70eko hamarkadan lagun kuadrilla osoak, udan, Debako txaletei buelta ematen genienekoa, bizikletako manilarrean eskuak jarri barik; edo Eibarko kaleetan bizikletaz ibiltzen ginenean. Kaleetan jolasten ginen; oinezkoen, pertsonen, haurren, gazteen eta helduen kaleak ziren.

Gaur egun, gure inguruetako herri gehienetan hori galduta dago. Autoentzako kaleak dira eta gure bizi kalitatearen maila jaitsi egin da. Ez nabil ezer asmatzen; Europako hainbat tokitan apustu garbia eta handia egin dute hiriko mugikortasuna aldatzeko, pertsonentzako hirietara bueltatzeko.

Bizikleta gehiago erabiltzea ona da gure osasunarentzat, gure ingurumenarentzat, gure bizikidetzarentzat... eta, herritarrak garen aldetik, bizikleta gehiago erabilita, hiri eta herri seguruagoak, atseginagoak, politagoak erreibindikatu ditzakegula uste dut.

Norberak egin behar du lehenengo aldaketa, ondoren besteei eskatu edota erreklamatzeko.

Animo, gure esku dago!

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE

HANDIK ETA HEMENDIK

Patenteak

TXERRA RODRIGUEZ

HTTPS://LABUR.EUS/JXTNX

'ARGIA.EUS'-EN ARGITARATUA

Patenteak dira aurkikuntza egin duen pertsonei Estatuek ematen dizkioten eskubideak.

Eskubide horien bidez, pertsonak aurkikuntza hori propio ustia dezake, hau da, beste inork erabilita hari ordaindu behar dio.

Hori da patenteen definizio aseptikoa, esan dezagun.

Baina benetan gaur egun ia edozer patentatu daiteke gure bizitza honetan.

Baita artefaktu kolektiboenak ere.

Esate baterako, hizkuntzak. Patentatu gura duten "antropologo" linguistiko askotxo dabil munduan barrena, Linda Tuhiwai maoriak bere liburu gogoangarrian aipatzen duen bezala.

Horietako batzuk, patentegile batzuk, linguistika deskriptiboaren mozorroan ostendu egiten dira (ez dakit noren aipua den hau, gaztelaniazkoa "La lingüística descriptiva es lingüística destructiva").

Azken finean, euren helburua da hizkuntza bat jasotzea, hizkuntza baten aldaerak jasotzea.

Helburu maitagarria izan daiteke, baina gaur eta hemen, gaur eta hor, gaur eta han, horiek ez badute balio hizkuntza horri etorkizuneko bideetan barneratzeko, zer zentzu du horrek?

Zertarako demontre balio du horrek?

Linda Tuhiwaik aipatzen duenaren harira, maoriak dira munduan ikertuenak izan direnak.

Baina ikerketa horiek guztiek (edo gehienek, behinik behin) zertan lagundu dioten maorien herriari? Zertan?

Hizkuntza lankidetza bidaia baten ostean sortutako burutazio batzuk... (izenburua neoliberalismoa hizkuntzen plazan izan zitekeen ere).

Post gehiago 9. orrialdean.

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea Otalora Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea Eneko Azkarate, Goiatz Arana, Monika Belastegi, Mirari Altube.
Zuzendari komertziala Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna Marta Leturia.

Sailetako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa Imanol Soriano, Aitor Lagoma.
Publizitatea Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza.
Administrazioa Ane Berezibar, Iratxe Bengoa, Nerea Artola.

HARPIDETZA Arrasate 20500 Otalora Lizentziaduna 31 Tel.: 943 25 05 05 *harpidetza@goiena.eus*

PUBLIZITATEA Arrasate 20500 Otalora Lizentziaduna 31 Tel.: 943 25 05 05 Faxa: 943 25 05 00 *publi@goiena.eus*

EGOITZA NAGUSIA Arrasate 20500 Otalora Lizentziaduna 31 132 posta-kutxa Tel.: 943 25 05 05 Telegram eta WhatsApp: 688 69 00 07 *berriak@goiena.eus*

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK

Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala · Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Merkatarien komunitate indartsua sortu nahi dugu"

ASIER AMUTXASTEGI 'MERKATARI' APLIKAZIOAREN KUDEATZAILEA

Eneko Azkarate ARRASATE

Herritarrak eta merkataritza gerturatzeko eta bertako kontsumoa sustatzeko *Merkatari* aplikazio informatikoak urte eta erdi bete du. Baina asmo berriekin dator. Goiena bultzagile den proiektuaren kudeatzaileak eman ditu asmoen berri.

Urte eta erdi bada *Merkatari* aplikazioa Arrasaten abian jarri zela. Gustura emaitzarekin?

Une honetan, emaitzak ez dira oso inportanteak. Proiektu berria da, sektore aldakor baten eta pertsona askoren lana dago tartean. Inportanteena da merkatarien iritzia jasotzea eta haien beharretara zuzendutako tresna ona sortzea. Hori lortzen dugunean, orduan egongo naiz emaitzarekin erabat gustura.

Orain, Eskoriatzara ere zabalduko da, eta hango merkatariak batuko dira…

Bai, oso pozik gaude, beste urrats bat egin dugulako Eskoriatzan *Merkatari* proiektua martxan jarriz. Eskualde mailako proiektua izan da eta Eskoriatzan ere abiatzea aurrerapausoa da.

Asier Amutxastegi, Goienako egoitzaren aurrealdean. ENEKO AZKARATE

Apurka-apurka, gainerako herrietako dendari elkarteak ere batuko dira proiektura?

Hori da asmoa. Jakitun gara sektoreak dituen erronkak handiak direla, eta gu ari gara bidea erraztu nahian. Hortaz, udal, merkatari elkarte eta Mankomunitateko Garapen Agentziarekin ari gara. Helburua da merkatariz osatutako komunitate handi eta indartsua sortzea. Herri bakoitzeko merkataritza ezagutu, aztertu eta lan plangintza bat sortu behar da.

Ze nabarmenduko zenuke *Merkatari* aplikaziotik, zein da haren dohain nagusia?

Azkeneko hilabeteotan aldaketa nabarmenak egin ditugu. Arrasaten hasi ginen eta hasierako frogalditik asko ikasi dugu. Informazioa bereganatu eta hausnartu ostean, konturatu ginen merkatuan aplikazio asko zeudela eta bereizgarri bat behar genuela. Bereizgarria eskaintzeko bidean, zerbitzuan jarri dugu fokua. *Merkatari* aplikazioak duen balio erantsia da hasiera batetik merkatariekin gaudela.

Aplikazioa erabiltzeko samurra da. Zer diote erabiltzaileek eta merkatariek?

Merkatariei hasieran beldur apur bat ematen die, aukera asko eskaintzen dituelako. Baina, erabili ostean, Whatsapp aplikazioa erabiltzearen pareko da. Erabiltzaileek diote erraza dela, eta feedback positiboak jaso ditugu. Bidean aurrera egin ahala, behar berriak agertuko dira eta hobekuntzak egin beharko ditugu.

HAU BE BADOGU!

Asier Garitanoren agur hunkigarria

Entrenatzaile bergararrak ez du Leganesen jarraituko. *#GraciasAsier* traola erabilienetakoa izan da ondorioz:

@GaritanoAsier: "Ez dut agur bat balitz bezala sentitzen. Hiri honek *Adopziozko seme* egin ninduen eta semeak ez dira inoiz joaten. Agian, etxetik joaten dira, baina beti itzultzen dira. Horrela sentitzen naiz. Zuetako bat naiz, hiri honetako seme bat naiz eta beti egongo naiz hemen" (itzul).

'#Mondragonauzia', 'trending topic'

Goienak Bergaran egin den Ordaindu eta Eskuratu elkarteen eta Mondragon korporazioaren arteko epaiketako ahozko bista jarraitzeko erabili duen *#Mondragonauzia* traola Twitterren euskaraz erabilienetakoen artean izan da asteon. Hala jaso zuen astelehenetik hasita sare sozialaren euskarazko jardunaren jarraipen robotikoa egiten duen Codesyntax-eko *@umapeu* kontuak.

Rajoyk "aprobetxategi" deitu dio Riverari

Mariano Rajoy Espainiako presidenteak Albert Rivera Ciudadanos alderdiko buruari "aprobetxategi" deitu zion eguazteneko Kongresuko jardunaldian. Hitzak arrakasta izan zuen sare sozialetako erabiltzaileen artean:

@ElhuyaHizk: "*#HitzPolit* bat: aprobetxategi. "Diruak badu ahalmen berezia dirudunaren ingurutik igarotzen diren putre eta aprobetxategi guztiak erakartzeko".

ITURRI ONETIK

Izaro, Arrasateko jaietan

Izaro Andres Arrasateko San Juan jaietan izango da, ekainaren 26an, martitzenean, Herriko Plazan. Jaietako ekitaldirik aipagarrienetakoa izango da. Arrasateko Udala azken urteotatik hona indartu nahian dabil Herriko Plazako kontzertua, izen handiko artistekin. Iaz, Evaristo-ren Gatillazok jo zuen eta aurten proposamen ezberdin baten alde egin du, Donostiari eskainitako *Easo* izeneko bigarren diskoa argitaratu duenetik aretoak betetzen diharduen pop doinu itsasgarrizko abestiaren egile Izarorekin.

ALBISTE IZAN ZEN

2011-05-14

Mondra, Gipuzkoako txapeldun

Gipuzkoako txapeldun geratu zen Mondra futbol taldea Oñatiko Azkoagainen jokatu zen Eibarren aurkako finala 3-2 irabazita. 2011ko maiatzaren 14an jokatu zen finala. Ainhoa Alonsok sartu zuen garaipenaren gola. Gipuzkoako Futbol Federazioko ordezkarien eskutik txapeldun kopa jaso ostean, taldekideek zaleekin ospatu zuten garaipena. Gainera, bigarren mailarako txartela lortu zuten mondragoetarrek.

JULIO CALLEJA

Jai batzordeko kideak jaietako kartelekin. XABI GOROSTIDI

Umore onaren erreinu, parrandaren erdigune

San Isidro martitzenean izan arren, Zigorrolako bizilagunak festa gosez dira eta asteburu honetan egingo dituzte auzoko jaiak. Aurten ere, jaietako kartelak astoa eta dragoia ditu oinarrian, baina keinu berezia egin dio erretiratuek bizi duten egoerari

Xabi Gorostidi ARRASATE

Astoa ikur nagusitzat duen Zigorrola auzoa Arrasateko parrandaren epizentro bilakatuko da gaurtik domekara bitartean.

Joan den astean aurkeztu zuten jaietako kartela eta egitaraua, eta jai batzordekoek ez dute atsedenik hartu alaitasunaren eta umore onaren erreinuko festetan dena prest egon dadin.

"Jai batzordean, urtarrilean hasten gara festetako egitaraua lotzen. Baina ozen esan beharra dago batzordeko kide ez izan arren jende asko inplikatzen dela Zigorrolako jaiak aurrera eramateko. BTTko batzordean, adibidez, hamar kide inguru gaude, baina lasterketa egunean ia 100 pertsona aritzen gara lanean", azaldu du jai batzordeak.

Bi auzotar gogoan

Jaietako egitarauan, aurten zendu diren bi pertsona jarri dituzte azalean, hein handi batean, Zigorrolako jaietan haien hutsunea nabarituko dutelako. "Iñaki Etxeberriak eta Anjel Bediak agur esan digute aurten. Lehena, jada auzoan ez bizi arren, lehen mailako musakolar bat zen. Beti aritzen zen jaietan astoarekin gora eta behera. Bedia ere saltsa guztietako perrexila zen, eta jaietan ohikoa izaten zen hura esatari lanetan ikustea, mikrofonoa eskuan zuela. Pertsona jatorrak eta alaiak ziren, beti laguntzeko prest dauden horietakoak, eta eurei aitortza xume bat egin nahi izan diegu".

Asteburua aukeratzeko araua

San Isidro da auzoko jaien patroia, eta aurtengoa martitzenean ospatuko da. Hala ere, jai batzordekoek urrezko arau bat ezarrita daukate, aspalditik, jaiak zein asteburutan ospatu behar diren erabakitzeko. "San Isidro eguna egubakoitzetik domekara bitartean jausten bada, ez dago zalantzarik; astean zehar denean, berriz, arau hau jarraitzen dugu: astelehen, martitzen edo eguaztena bada, aurreko asteburuan; eta eguena bada, hurrengoan".

AUZOAREN ALDE LAN "ITZELA" EGIN DUEN TALDE BATEK JASOKO DU AURTENGO URREZKO ASTAKILOA

Kartela, keinuekin

Urtero legez, astoaren eta dragoiaren arteko lehia islatzen du jaietako kartelak. Aurtengoan, baina, pil-pilean dagoen gai bati egin diote erreferentzia. "Erretiratuen gaia oso presente dago, eta euren aldarrikapenei tartea egin nahi izan diegu. Hala ere, bigarren irakurketa bat ere izan dezake kartelak, baina horretarako jai batzordearen agurra irakurri behar da".

Aurtengo urrezko astakiloaren izena ez dute aipatu nahi izan, baina pista bat eman dute: "Auzoaren alde lan itzela egin duen talde batek jasoko du".

Musakolako jaietako egitaraua

Maiatzak 11, barikua
- **10:00** Kanpai errepika eta suziri jaurtiketa.
- **10:15** Haurrentzako kirol jokoak eskoletan.
- **11:30** Umeen danborrada.
- **17:00** Spinning eskola magistrala Kiroldegian.
- **17:30** Txokolate eta *bollikau* banaketa.
- **18:30** Gazteentzako jolasak gazte txokoan.
- **19:00** Ikurrina igotzea, buruhandiak eta gaiteroak.
- **19:30** Auzoko erretiratuen afaria.
- **20:00** Amaia DJren disko-festa.
- **22:30** Bolo txapelketa.

Maiatzak 12, zapatua
- **11:00** Gazteentzako jolasak gazte txokoan.
- **12:00** Antxon magoa San Antolin plazan.
- **13:30** Urrezko astakiloen banatzea.
- **15:00** Herri bazkaria San Isidro eliza alboan.
- **15:30** Motor topaketa.
- **16:00** Gazteentzako jolasak gazte txokoan.
- **17:00** Herri kalejira.
- **18:00** Sokatira txapelketa.
- **18:30** Arrasate Musikalen emanaldiak.
- **19:30** Buruhandiak eta gaiteroak.
- **20:00** Trikidantz taldearen emanaldia.
- **23:00** Dantzaldia San Isidro alboan.
- **00:00** Moda ikuskizuna auzotar xelebreekin.

Maiatzak 13, domeka
- **11:00** Puzgarriak San Antolinen.
- **11:30** Kiroldegian, gimnasia erritmikoa.
- **12:30** Txikiteoa, Elutxa txarangarekin.
- **13:00** Rafa magoa.
- **17:30** Zezentxoak San Antolinen.
- **18:30** Kalejira.
- **22:30** Azken traka itsas pasealekuan.

NIRE USTEZ

NEREA MAKAZAGA

Lur azpiko bizilagunak

Globoz hegan egiteko gogotsu esnatu arren, eguraldi haizetsuak ohera bueltatu gintuen goizeko seietan Kapadozia zaharreko Göreme hirian.

Paisaiako harrietan barrena eraikitako elizak zein etxebizitzak, edota naturak eraikitako tximinia erraldoiak zerutik ezin ikusi izanak eguneko esperantzak eta begirada lur azpira bideratu zizkigun.

Derinkuyu izena du inguru horietan aurkitua izan den lurpeko hiri handienak; kalez, etxez, elizaz eta pasabide amaigabeez osatutako labirintoa denak.

Derinkuyu hitzak *putzu sakona* esan gura du, eta 85 metro eta 7 altuerako –edo baxuerako, zehatzago– sakontasuna kontuan izanda, ezin izen aproposagorik egokitu.

Pentsamenduak zerutik lur azpira bueltan, Arrasate osoa izan zitekeena imajinatu nuen bertan, 3.500 urte atzera egiteak suposatzen duen guztiaz.

Garbitasun faltaren eta ustelduaren kirats olatuak airean, jendetzaren joan etorria pasabideetan edota elkarbizitzaren nondik norakoak antzeman nitzakeen bitartean, bakoitzaren barruko fantasmentzako ere lekurik izango ote zen jakiteko gogoz geratu nintzen.

Txatxilipurdiren udalekuetan izena emateko azken egunak

Udaleku irekietan edo itxietan egon nahi dutenek azken egunak dituzte izena emateko. Itxien kasuan, *Kosta ala kostako* eta Ozaetako plazak agortuta daude jada, baina lekuak geratzen dira Goizuetako eta Zingirako udalekuetara joateko. Izen emateak, Txatxilipurdiren egoitzan edo webgunearen bitartez.

Osoko bilkura, galde eta eskeetan oinarrituta

Maiatzeko osoko bilkuran ez zen gairik, ez moziorik, ez botaketarik izan, baina galde eta eskeetan bi interbentzio egon ziren: etxez etxeko laguntza zerbitzua ematen duten langileena eta Gorka Gonzalezek ingurumen arazo bati buruz egindakoa

Xabi Gorostidi ARRASATE

Karmele Loitik hartu zuen hitza, etxez etxeko langileen egoera azaltzeko. Udal zerbitzu bat izan arren, azpikontratatua eskaintzen da Arrasaten. UTE CLECE enpresarentzat egiten dute lan, eta, salatzen dutenez, lanaldi partzialak dituzte eta lan egindako orduen arabera jasotzen dute soldata. Momentu honetan, enpresarekin negoziatzen ari dira lan baldintzak hobetzeko, eta Udal Gobernuari eskatu diote "beste alde batera ez begiratzeko".

EAJko udal taldeko bozeramaile Anuska Ezkurrak azaldu zuen aurretik batzartu izan direla langileekin eta baita enpresarekin ere. Zerbitzu horren esleipena uztailean agortuko da, eta, Ezkurrak esan zuenez, esleipen berriko lizitazio prezioa %35 handituko dute, "horrek langileen egoera hobetu dezan". "Konpromisoa hartzen dugu esleipen berria egiterakoan zuen interesak defendatzeko". EH Bilduko Eneko Barberenak esan zuen biztanleria zahartzen ari den heinean zerbitzu hori "gero eta garrantzitsuagoa" izango dela. "Izango dugu tartea zerbitzua udalekotzeaz hitz egiteko; gaur egun prekarioa delako eta oso feminizatuta dagoelako".

Karmele Loiti etxez etxeko langilea zinegotzien aurrean hitz egiten. XABI GOROSTIDI

Fagor Ederlanen isurketak

Gorka Gonzalezek, berriz, Fagor Ederlanek Uribarri auzoan atmosferara egiten dituen isurketak salatu zituen. Hiru kexa aipatu zituen: emisio foku batzuk deklaratu gabe daudela, egiten diren emisio batzuek ez dituztela pleguetako parametroak betetzen eta emisio kopurua gainditu egiten dela. Kexa Jaurlaritzako Ingurumen Sailari bidali zioten –haien eskumena da–, eta ekainaren 19a baino lehen erantzun beharko dute.

EH Bilduk bi eskari ditu ospitale alboko etxebizitzetarako

Udal Gobernuak eta Visesak 2017ko azaroan egin zuten akordioa ospitale alboko putzuan 184 etxebizitza eta 199 garaje egiteko. Arrasateko EH Bilduk bi eskari egin ditu horrekin lotuta: etxebizitza guztiak alokairura bideratzea eta garajeentzako solairu bat gehiago egitea.

Euren ustez, etxebizitza promozioa %100ean alokairura bideratzeak "Arrasateko behar sozialari" erantzuten dio, eta gaineratu dute 2020tik aurrera etxebizitza publiko guztiak alokairura bideratzea aurreikusten duela indarrean dagoen legediak.

Visesak aparkaleku-solairu bakarra egitea adostu zuen Udal Gobernuarekin, baina, horretarako, HAPO moldatu behar du Gobernuak, egun indarrean dagoenak aparkaleku gehiago egitea eskatzen baitu. "Guk solairu bat gehiago egitea eskatzen dugu, erdigunetik gertu disuasio aparkalekuak egoteko eta ospitaleak duen aparkaleku egoera prekarioa hobetzeko".

LANBIDE HEZIKETA DEBAGOIENEAN

ikasLAN Gipuzkoa

"etorkizuna zure esku"

ARETXABALETAN
Ate irekiak:
Maiatzak 16, 18:30ean

ALE - Aretxabaleta Lanbide Eskola
Etxebarri auzoa, z/g - 22 Pk. • 20550 ARETXABALETA
✆ 943 79 79 00 / 943 79 79 43
ia.iaretxabaleta.com
www.iaretxabaleta.com

BERGARAN
Ate irekiak:
Maiatzak 17, 18:30ean

Miguel Altuna LHII Bergara
Ibargarai, 1 • 20570 BERGARA
✆ 943 76 24 91 / 943 76 38 40
info@maltuna.eus
www.maltuna.eus

OÑATIN
Ate irekiak: Maiatzak 23, 18:30ean, Larraña egoitzan

IES RM Zuazola - Larraña BHI
San Lorentzo, z/g • 20560 OÑATI
✆ 943 78 21 50
013015aa@hezkuntza.net
www.onati.net

AURREMATRIKULA: Ekainaren 4tik 15era. MATRIKULA: Uztailaren 12tik 18ra.

"Zalantzan jartzen dut 'transexualitatea' hitza"

AITZOLE ARANETA SEXOLOGOA

Arrasateko Herri Eskolak eta Guraso Elkarteak antolatuta, transexualitateari buruzko hitzaldia eskaini du Aranetak, Camila Jauregirekin eta Lurdes Garciarekin batera

Eneko Azurmendi ARRASATE

Chrysallis elkarteko hiru kideek euren esperientzia kontatu zuten Kulturaten, eguaztenean.

Zer moduz joan zen hitzaldia?

Hitzaldia oso ondo joan zen, interes handia piztu zuen eta bete egin zen aretoa. Bukatzean, jendea hurbildu zitzaigun eta eskerrak eman zizkigun, gaia oso ondo azaldu genuela esanez. Eman nituen familietan gai hauek lantzeko baliabideak, bibliografiak, unitate didaktikoak, bideoak, eta abar erabiliz.

Esperientzian eta interakzioan oinarritutako hitzaldia izan zen?

Esperientziatik bai, baina nik, batez ere, zientzia sexologikotik hitz egin nuen. Hau da, zer pentsatzen dugun *transexualitatea* hitza erabiltzen dugunean, nola egiten dugun sinplifikazio bat identitate kontuak genitaletara murrizten eta nola gizarteak kolektibo honekiko mitoak dauzkan. Komunitate honen gainean dauden mitoak ezabatu nituen.

Nola bizi du gaur egungo gizarteak transexualitatea? Zein da onarpen maila?

Bereizi egingo nituzke. Uste dut gizarteak gero eta onarpen maila handiagoa duela, baina, era berean, azaleko onarpen bat da.

Zergatik?

Mito asko birrindu egin behar dira. Horrelako hitzaldi bat entzun ez duen edo formazioa jaso ez duen batek, adibidez, pentsatuko du berea ez den gorputz batean jaio dela. Baina berea ez bada, norena da? Pentsatuko du neska izan nahi duen mutil bat dela. Adin batera heltzean, hormonetara eta kirurgiara joko du. Eta horrek amaitu egin behar du. Kontua ez da norbera gaizki sentitzen dela bere gorputzarekin, kontua da ingurukoek ez badute errespetatzen nor den, horrek arazo asko dakartzala. Ikusi besterik ez dago azken hilabeteetan bi nerabek egin dutela bere buruaz beste. Askok eduki ditugu pentsamendu horiek, baina hori ez da gu gure gorputzarekin gaizki sentitzen garelako, baizik eta besteek gure identitatea ez dutelako errespetatzen.

Aitzole Araneta, eguazteneko hitzaldian, Kulturaten. XABI GOROSTIDI

"TRANSEXUALITATEAK ESAN GURA DU SEXUALITATEA ALDATU EGIN DELA, ETA HORI EZ DA HORRELA"

Zer da transexualitatea, zuretzat?

Transexualitatea hitza bera ere zalantzan jartzen dut. Horrek adierazi gura du gure sexualitatea aldatu egiten dela, alde batetik bestera pasatzen den sexualitatea dela, baina gu ez gara aldatzen. Aldatzen dena da besteek nola ikusten gaituzten. Trantsizioa ez du pertsonak egiten, baizik eta bere ingurukoek eta gizarteak. Inor ez da sexuz aldatzen. Kontua da genitala aldatu arte txipa ez dela aldatzen, eta horri buelta eman behar zaio. Gu beti gara gu.

Zer aldarrikatu gura duzue?

Ez gara salbuespen bat, eta, beste guztiek bezala, gure identitatea daukagu. Jaiotzean ditugun genitalek etiketa sozial bat jartzen digute, eta, horri aurre egiteko, ondo azaldu behar da zer den eta ezer ez den transexualitatea, eta, bestetik, mitoak alde batera utzi behar ditugu.

Horretan diharduzue Chrysallis elkartean.

Bai. Eguaztenekoa bezalako hitzaldiak edota ikastetxeetan egiten ari garen hezkuntza saioak ezinbestekoak dira datozen belaunaldiek hitz hau erabili beharrik ere ez izateko. Etorkizunean, nahi dut pentsatu iritsiko dela momentu bat non mutilak eta neskak izango garela guztiok, zein genital ditugun kontutan hartu gabe.

Nola lantzen duzue gaia elkartean?

Gure material didaktikoek ez diote erreferentzia zuzenik egiten transexualitateari. Aniztasuna adierazten saiatzen gara. Apartekotasun horretan ibili beharrean, orain bada garaia hau benetan plazaratu eta azaltzeko. Denbora luzea daramagu mitoekin funtzionatzen. Transexualitatea oraindik buruko gaixotasun bat bezala dago kontsideratuta, eta hori gainditzeko ordua da.

Mundu osoko jakiez gozatzeko aukera bihar gaztetxean

Kultura aniztasunaren hilabetearen baitan, bazkari multikulturala egingo dute, 11:00etan hasita

E.A. ARRASATE

Ordu horretarako egin dute hitzordua, gaztetxean, eta guztien artean mundu osoko janari ezberdinak prestatuko dituzte. "Saharako, Venezuelako, Pakistango, Nikaraguako eta beste hainbat tokitako jakiak probatzeko aukera izango dugu", azaldu du Amagoia Muniozgurenek, AGAKOko kideak.

Edonork izango ditu ateak zabalik, eta hurbiltzen direnak hiru lantaldetan banatuko dituzte, lehenengo platera, bigarrena eta postrea prestatzeko. Bazkaria prestatzen duten bitartean, Saharako tea edateko aukera ere egongo da. "Azken finean, aitzakia bat da Arrasaten bizi diren pertsona ezberdinekin solasaldi bat izan eta haien kultura gehiago ezagutzeko", dio Muniozgurenek.

Bazkariaz gain, beste bi ekintza egongo dira asteburuan: gaur, egubakoitza, saharar festa egingo dute, Seber Altube plazan, 18:00etan. Bestalde, domekan, emakume aniztasunaren murala margotuko dute Kalealdeko aldapan, 09:30ean hasita.

Maiatzaren 19an 'Natura Jolasean', Monterronen

Txatxilipurdik, Leintz Eskola Kirolak, Besaide Mendizale Elkarteak eta Gaztetxeko Haur eta Guraso Asanbladak egitarau berezia antolatu dute maiatzaren 19rako, *Natura jolasean* lelopean. Egitarau horrekin, haur, gaztetxo zein helduak naturagunean jolasean jartzea da asmoa. Denetariko ekintzak izango dituzte haurrek egun osoan.

OHARRAK

Lezetxikik, 50 urte

Lezetxiki elkartearen 50. urteurrena ospatuko dute datorren ekainaren 2an Garagartzan, bazkaria eginda.

72koen kintada

Ekainaren 2an Tartufon bazkaria egingo dute. 60 euro da izen-ematea, hilaren 28a baino lehen. Ordainketa, kontu honetan: ES14 3008 0253 43 2515454813.

GORA ETA BEHERA

GOIENA

Transformadorea kentzeko lanak

Musakolar batek kexua adierazi du, lanak San Isidro jaien atarian hasteagatik. "Gainera, horrelako itxidurarekin... Ezin ziren astebete geroago hasi? Lotsagarria Udalaren erabakia".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? *berriak@goiena.eus* edo 688 69 00 07.

Asteburu betea dator Dragoiko gimnastentzat

Hainbat hitzordu dituzte asteburuan Arrasate Dragoi Gimnasia Taldeko gimnastek: Espainiako Gimnasia Aerobikoko Txapelketa Sorian, Gipuzkoako Eskolarteko A eta B mailetako txapelketa Azpeitian eta San Isidro jaietako erakustaldia Musakolan

Nahia Irazola, Noah Berrocal eta Izaskun Garcia. ARRASATE DRAGOI GIMNASIA TALDEA

Eneko Azurmendi ARRASATE

Asteburu betea izango dute Arrasate Dragoi Gimnasia Taldeko gimnastek.

Batetik, Espainiako Gimnasia Aerobikoko Txapelketa jokatuko dute bihar, zapatua, Soriako Pajaritos kiroldegian, 10:00etatik aurrera. Estatu mailako 300 gimnasta inguru batuko dira txapelketa horretan eta lau gimnasta arrasatearrek ere hartuko dute parte. Hirugarren mailan ariko dira. Uxue Azkue bakarka lehiatuko da eta Izaskun Garciak, Nahia Irazolak eta Noah Berrocalek hirukotea osatuko dute. Taldeko entrenatzaile Edurne Elkorok adierazi du maila handia dagoela Espainiako Txapelketan, eta "disfrutatzeko helburuarekin" joango direla. "Gimnastek esperientzia bizi izatea da lehentasuna".

Azpeitian

Bestalde, etzi, domeka, Gipuzkoako Eskolarteko A eta B mailetako txapelketako finalak jokatuko dira Azpeitiko kiroldegian, 10:00etan hasi eta egun osoan. Kimuak eta infantilak lehiatuko dira, bakarka eta taldeka; B mailakoak goizean eta A mailakoak, berriz, arratsaldean. Talde arrasatearretik honako hauek hartuko dute parte, guztiek ere goizean: kimuen B mailan, Liyanis Alonso eta Miren Miguelez bakarka ariko dira, uztaiarekin; eta infantilen B mailan, Nora Marko ere bakarka ariko da, pilotarekin.

Musakolan

Asteburu honetan Musakola auzoko San Isidro jaiak ospatuko dituzte, eta, urteroko ohiturari jarraituz, erakustaldia eskainiko dute kiroldegian Dragoi taldeko kideek, 11:30etik aurrera. Hori horrela, taldeko gimnastak gazteenek, 5 eta 14 urte bitartekoek, urte osoan egindako lanak herritarrei erakusteko aukera izango dute.

ARRASATEKO ATLETISMO TALDEA

Multikirola bihar Mojategin

Urtero moduan, multikirola egingo dute bihar Mojategin, Arrasateko Atletismo Taldeak antolatuta, benjamin eta kimu mailako haurrei zuzenduta. Helburua da haurrak atletismora gerturatzea. Altuera eta luzera jauzia, vortex jaurtiketa, 60 metroko lasterketa eta abar egingo dituzte. Debagoieneko 80-100 haur inguru batuko dira. Goian, iazko irudi bat.

EROSKI
ARRASATE

MAIATZAK 12 LARUNBATA

BEZa*
bazkideentzat soilik

oparituko dizugu
EHUN GAIETAN, AZOKAN, ELEKTRONIKAN
eta ETXETRESNA ELEKTRIKOETAN
Bitxietan eta optikan ere bai

Sustapen baliodunak EROSKI hipermerkatuetan produktu hauetan 25€-tik gorako eroskietak egiteagatik.

* Kutxatik pasatzean sartuko dizugu erositako produktuen BEZa EROSKI club txartelean. EROSKI Club kontuan sar daitekeen gehienezko zenbatekoa: 250 €. Adib.: %21 BEZ daukan100 €-tik gorako erosketa batengatik 17,35 € sartuko diskizugu EROSKI club txartelean. Testulibruak, esperientzia-sortak, telefonoen-birkargak, E-pay txartelak (aurreordainketa), errebelatu digitala eta fidelizazioaren sustapenetako produktuak ez dira sustapenean sartzen. Ediozein EROSKI supermerkatuetan eta hipermerkatuetan truka daiteke, bitxi-dendak, optikak eta zerbitzugunea barne (auto-ordainketa ereia izan ezik), baita Eroski bidaietan ere. Gainerako baldintzak supermerkatuan kontsultatu.

Musakola z/g ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30

Nahi duzunean eta nahierako lekuan erosi...
www.eroski.es | EROSKI súper aplikazioa | Eroski dendak

Drop! taldearen zuzeneko azken kolpea

Agurreko kontzertua emango dute gaur gaztetxean, bidelagun izan dituzten hiru talde senideturekin batera. Ia zortzi urteko ibilbideari etena emango diote, eta ziur doinu gogorren eta zuzeneko bortitzen zaleek igarriko dutela haiek utziko duten hutsunea

Hirugarrena, labetik atera berri

DROP! taldeak hirugarren diskoa aurkeztuko du agurreko kontzertuan. *Losing trust* du izena eta hamaika kantuz osatuta dago. Goitik hasita bigarrena da, eta alboan ditu taldeak aurrez grabatutako beste bi lanak –*Ez gaituzte aldatuko* eta *Delusion*–.

Xabi Gorostidi ARRASATE

Ezer ez da betiko, eta, askorentzat espero baino lehen izan bada ere, ziklo bat amaitzea erabaki dute. 1990eko edo 2000ko hamarkadekin alderatuta, Debagoieneko rock eszenak beherakadatxoa izan du azken hamarkada honetan, baina Drop! taldea izan da garai horretan sortu eta aktiboenen aritu izan den taldeetako bat.

Ezkerretik eskumara: Elgezua, Bruña, Casal, Anzizar eta Regaño. XABI GOROSTIDI

2010ean lehen urratsak

Eskoriatzako kiroldegi azpiko garajeetan hasi ziren lehen entseguak egiten, 2010ean, eta handik urte batera osatu zuten taldearen lehen formazioa.

"Ni 2011n sartu nintzen taldean. Ordurako, Asier Elgezua, Kepa Bruña, Harri Anzizar eta Alex Regaño hasiak zeuden bertsioak jotzen eta abesti propioak konposatzen. Nik, beraz, lan erraza izan nuen; sartu eta txilio egin", azaldu du Paul Casal abeslariak.

Urte hartako apirilean –data zehatza ere gogoratzen dute: apirilaren 30a– jo zuten lehen zuzenekoa, Eskoriatzako Aldatz tabernan. Konposatzeari baino, zuzenekoei eman zioten garrantzia, eta pixkanaka hasi ziren kontzertuak bata bestearen ostean kateatzen. 2013a heldu orduko, bederatzi kantu propio pilatu ostean, Aretxabaletako Nekrosounds estudioan grabatu zuten lehen diskoa; *Ez gaituzte aldatuko* izenekoa.

Talde anaia asko

Oholtza elkarbanatzearen eraginez, harremanak saretu izan dituzte hainbat talderekin, eta horietako asko anaiatzat dauzkate.

"Four Score izan zen horietako bat. Gasteizko talde bat zen, gaur egun aktibo ez dagoena. Criminal Remains ere izan zen beste bat. Ez genituen estilo antzerakoak, baina betiko lagunak ziren. Eta hasiera hartako beste talde anaia bat Lukas Prest izan zen. Guretzako, talde erreferente bat zen, batez ere, inguruan inork gutxik egiten zuelako punk amerikarra edo punk hardcorea. Guk hasieratik jo duguna ere ezberdina zen. Metal ukituko hardcorea egiten hasi ginen, eta, pixkanaka, hardcore puruagorantz jo genuen".

Denborak aurrera egin ahala, talde lagunen sare hori hedatzen joan ziren, Euskal Herrian zehar, eta baita Ebron behera ere.

Kontzertu ahaztezinak, ugari

Hasieran euren bertsioak jo ostean, Drop!-ekoek lortu izan dute Hatebreed edo Madball bezalako taldeekin jotzea, baina eurentzako ez dira inondik inora kontzerturik onenak izan. "Miresten ditugun talde handiekin jo izan dugu, baina gehiago gozatu dugu lagun artean. Madballekin jotzen duzu, baina egun osoan zehar ez dizute aurpegira begiratu ere egiten. Baina gero, kontzertu bat egiten duzu Elorrion, lagun dituzun beste bi talderekin, eta inoiz baino gehiago gozatzen duzu", azaldu du Harri Anzizarrek.

Agurraren ordua

"Urte asko daramatzagu batera, eta detaile txikiek asko erre zaitzakete. Hori dela eta, taldearen ibilbidea amaitzea erabaki dugu. Hobe da taldea giro onean utzi, haserretuta amaitu baino", azaldu du Anzizarrek.

Taldekide gehienek zeresana ematen segituko dute egun dituzten beste talde batzuetan: Casalek, Woodstrings-ekin; Regañok, Arkada Socialekin; eta Anzizarrek, Aggressivekin, Legez Kanporekin eta Lukas Prestekin.

Gaur gaueko kontzertuarekin esango dute agur, eta alboan izango dituzte Worth It, Norkzer? eta Bloodbrothers taldeak. "Guretzat, garrantzitsua zen lagunez inguratuta agurtzea. Sarrera debaldekoa izango da, festa handi bat izan dadin".

TALDEAREN AZKEN KONTZERTUA IZANGO DA, BAINA IA DENEK MUSIKAN JARRAITUKO DUTE

Aste bukaeran bi hitzordu ditu Arrasate Musikalek

Ikasturte amaiera gerturatzeaz bat, urtean zehar ikasitakoak plazaratzeko ordua heldu da Arrasate Musikalekoentzat.

Asteburu honetan bi saio egingo dituzte, eta horietako lehena gaur izango da. 18:30ean, Kulturateko areto nagusia musikaz beteko dute familien arteko kontzertuarekin. "Aita, ama, lehengusuak, osaba edo izeba aurrean dituztela jotzea, ikasleentzat hunkigarria izaten da. Gainera, esan beharra dago errepertorio zabala joko dutela", azaldu dute antolatzaileek.

Bihar, berriz, Zigorrolako jaiekin bat egingo dute, eta 75 musikari inguru arituko dira festetako arratsaldeari musika ukitua ematen.

18:30ean, Arrasate Musikaleko metal taldeak, haize-egur taldeak, hari taldeak eta banda gazteak kontzertua emango dute Santa Teresa eliza alboan.

Ttakun elkartearen eskutik, txalaparta ikastaroa

Egurra astinduz musika sortzea zer den jakitako hastapen ikastaroa antolatu du Ttakun elkarteak, beste behin.

Maiatzeko astelehenetan eta ekaineko zapatuetan egingo dute, eta izen emateak astelehenera arte egin daitezke Gazte Bulegoan. 25 euroko prezioa izango du, eta ikasle eta langabeentzat, aldiz, 15 eurokoa.

LABek antolatuta, lan prekarietateari buruzko filma ikusgai

Prekarietatea eta langileen errealitate berriak islatzen dituen *La mano invisible* filma ikusgai izango da Arrasaten. David Macianek zuzendu du, Isaac Rosaren izen bereko nobela oinarri hartuz. Proiekzioarekin batera, filmaren kokapena egingo da eta ondoren solasaldirako tartea izango da. Hitzordua: maiatzaren 23an, Kulturaten, 18:30ean.

Jaietan animalien erabilpenari buruzko dokumentala bihar

Uluak Debagoiena Talde Antiespezistaren eskutik, *Gurean* izeneko dokumentala eskainiko dute zapatuan, 18:00etan, Arrasaten, Kulturaten. Euskal Herriko jaietan animaliak nola erabiltzen diren da dokumentalak erakusten duena. Askekintza taldeak egin du dokumentala, Euskal Herriko 30 herritako kasuak aztertu ondoren.

Martin Abarrategi eta Aitor Ugarte. JULEN IRIONDO

Bi aramaioar Eskolarteko txapelaren bila, Legution

Martin Abarrategi eta Aitor Ugarte izango dira biharko finaleko sei bertsolarietako bi. Iaz Arabako zein Euskal Herriko txapelketak irabazi zituen Aroa Arrizubieta izango da aurten ere faborito; lehen biak sailkatuko dira beste herrialdeetakoekin kantatzeko

Julen Iriondo ARAMAIO

Bertsoa Bizi Gazte Eguna ospatuko dute bihar, zapatua, Legution, eta eguneko egitarauaren barruan da Arabako Eskolarteko Bertsolari Txapelketako finala ere. 10:30ean hasiko dute eguna, kultura etxean, eta bideoklip lehiaketara aurkeztu diren lanen proiekzioa egingo dute aurrena. Ondoren, eta hamaiketakoaren ostean, 12:00etan hasiko da bat-bateko finala.

Finalean, Abarrategi, Ugarte eta Arrizubietarekin batera, Mikel Martinek, Beñat Canok eta Peru Amorrortuk kantatuko dute. Abarrategik eta Ugartek Arrizubieta ikusten dute aurtengoa ere irabazteko faborito nagusi: "Oso ausarta da, eta publikoarekin konektatzeko gaitasuna dauka", dio Ugartek; "Ni, adibidez, batzuetan, urduritasunarekin kikildu egiten naiz oholtzan; hark erraztasuna du bertsotarako", Abarrategik.

Dena dela, Aramaioko ordezkariak lan txukuna egiteko asmotan doaz finalera; dakitena eginda gustura geratuko lirateke, nahiz eta beste inor hobeto aritu; Aitor Ugartek bigarren egin zuen iaz, bere lehen partehartzean –Abarrategik hirugarrena du–: "Kantatutakoarekin, neure buruarekin gustura geratzea da garrantzitsuena niretzat, postua baino gehiago; eta saio polita egitea denon artean".

Ugartek aitortzen du, hala ere, iaz esperientzia ederra izan zela Euskal Herriko Eskolarteko finalean kantatzea –lehen biak sailkatzen dira–: "Iaz Euskal Herrikoan kantatu eta gero, autoan bueltan gentozela esan nion amari: 'Aurten lan pila bat egin behar dut, berriz ere Euskal Herrikoan egoteko'. Ze, hainbeste gozatu nuen egun horretan! Baina, bueno, orain ez dut hain argi ikusten [Barre]".

GORBEIALDEKO BERTSO ESKOLEN TOPAKETA IZANGO DA GAUR ARAMAIOKO KULTURA ETXEAN

Finaleko lanen artean bada bat errespetu berezia eragiten diena, bakarkakoa gaia emanda: "Orain arte bertso bakarra izaten zen, baina aurten bi izango dira, eta ez gaude ohituta. Bi bertso izatera, pentsatu behar duzu zer bota behar duzun lehenengoan eta zer gorde bigarrenerako", dio Abarrategik.

Finalaren ostean, herri bazkaria egingo dute plazan, eta 16:00etan sari banaketa eta amaiera jaia.

Gorbeialdeko topaketa

Gaur, berriz, Gorbeialdeko bertso eskolen topaketa –14 urtetik beherako bertsolariak– izango da Aramaion, kultura etxean. Dozena erdi bat bertso eskolatako 100 lagun inguru elkartuko dira, bat-batean zein aurrez prestatutako bertsoekin jarduteko. 17:30ean merienda izango dute, eta 18:00etan emanaldia.

Aramaio, Herriarteko pilota txapelketan, bihartik aurrera

Bihar, zapatua, hasiko da Arabako Herriartekoa, eta parte hartuko duten zortzi herrien artean da Aramaio. Launa herritako bi multzo izango dira, eta aramaioarrekin batera daude Gasteiz, Zigoitia eta Laudio.

Azken horiek izango dira Aramaiokoen lehen kontrarioak, 16:30ean, herriko pilotalekuan. Markel Arriolabengoa eta Julen Olaizola kadeteetan, Axier del Campo eta Aimar Kintana gazteetan eta Ander Axpe eta Ibon Ruiz de Alda seniorretan ariko dira etxekoen partetik. Gazte mailako neurketa zaila izango da, Yuste eta Barbara laudioarrek bikote indartsua osatzen dute eta; baina beste bi partiduetan badira irabazteko aukerak.

Txapelketaren lehen fasean erabakiko den bakarra da beste multzoko zein herriren kontra jokatuko duten gero kanporaketa. Klubeko kideek badute esperantza aurtengo txapelketan aurreko urteetan baino lan txukunagoa egiteko.

Pascualen hitzaldia, astelehenean. J.I.

Lorabarri Astea amaitzeko, filma eta azoka zapatuan

Aurreko aste hondarreko ekintzen ostean, Unai Pascualen klima aldaketari eta ekonomiari buruzko hitzaldiarekin hasi zen hau. Lorabarri Astea amaitzeko, berriz, azoka izango da plazan bihar, 11:00etatik 14:00etara, askotariko produktuekin, herriko zein Euskal Herriko; hainbat, ekologikoak. 21:00etan, berriz, *Captain fantastic* filma emango dute kultura etxean.

NIRE USTEZ

MARIA IZAGA

Ez dakit

Udaberria martxoan iritsi zen. Ez dakit, euri tantaka, elur maluta eta txingor artean pasa dira azken hilabeteak. Ez zirudien udaberria, gauza bategatik izan ezik, alergia. Alergiak jota nabil. Gramineoei eta hautsari dela diote. Ez dakit, txikitan ez nuelako eta orain bai. Ez dakit. Beharbada, ez da gramineoei, ezta hautsari ere. Ez dakit. Beharbada, beste zerbaitek ematen dit alergia. Alergeno posibleen bila ibili naiz eta, beharbada, morboari alergia diodala da. Ez dakit. Telebistako morboari, irratiko morboari, egunkarietako morboari; berri bat hartu eta deformatu ostean geratzen zaion formari. Nola mediatizatzen den guztia morboaren ikuspegitik, nola guztiari ematen zaion buelta eta komeni den aurpegia erakusten den –ez didazue esango azkenaldian ez denik egin–. Ez dakit. Hobe isilik geratu, azkenaldian esaten denagatik garesti ordaindu dezakegulako. Hobe isilik, gero nik bilatu dudala, hasi dudala edo nahi nuela esango dutelako. Ez dakit. A, begira, antihistaminikoa, balioko du? Ez dakit. *Morbodina 180 g*.

Agirreazaldegi eta Alberdi izango dira literatur solasaldian

Txirritola Euskara Elkarteak *Begixekin leirlu, bihotzaz gozatu* kanpaina jarriko du martxan berriz ere. Irakurzaletasuna bultzatzea helburu duen kanpaina abiatzeko Uxue Alberdi eta Ainhoa Agirreazaldegirekin literatur solasaldia antolatu dute eguaztenerako, hilaren 16rako. 18:00etan izango da, herriko parkean.

Iaz, Atxorrotx Kultura Elkartearen egunean, Fernando Eskoriatza plaza jendez beteta. GOIENA

'Inurrien antzera, pauso txikiz aurrera bidean'

Atxorrotx Kultura Elkartearen eguna ospatuko da zapatu honetan, Eskoriatzan. Aurtengo ediziorako, ekintza ezberdin ugariz bete dute egitaraua, eta elkartearen marka den musika emanaldiek izango dute lekua, besteak beste

Imanol Beloki ESKORIATZA

Atxorrotx Kultura Elkartearen eguna zapatu honetan ospatuko da, eta egitarau zabala prestatu dute elkarteko kideek, *Inurrien antzera, pauso txikiz aurrera* lelopean. Ekintza guztiak Fernando Eskoriatza plazan, Inkernu taberna kanpoaldean, eta Inkernun bertan izango dira, eta, urtero ohikoa den moduan, musikak garrantzia azpimarragarria izango du egunean.

Eguna hasteko, puzgarriak izango dira txikienentzat, eta ostean, txistularien kalejira izango da. Horrekin batera, Eskoriatzako Talogileak taldekoek prestatutako talo goxoak jan eta sagardoa edateko aukera izango da. Ostean, Atxorrotx Kultura Elkarteko bazkideen talde argazkia aterako dute. Honela adierazi du Iñaki Kortazarrek, elkarteko kideak: "Gaur egun, 110 bazkide inguru ditu elkarteak, eta guztiei bidali dizkiegu bertaratzeko gonbidapena. Ez dakit denok batuko garen, baina gehienek etorriko direla konfirmatu dute".

Zapatuko egitaraua

Herriko plazan
- **11:00** Puzgarriak.
- **12:00** Txistularien kalejira.
- **12:30** Taloak eta sagardoa.
- **14:00** Bazkideen talde argazkia.

Inkernu kanpoan
- **14:30** Paella-jana.
- **18:00** Iker Laurobaren eta Leire Berasaluzeren kontzertua.
- **18:30** Buruhandiak.
- **19:00** Kontzertua: Guda Dantza.
- **22:00** Ziza zozketa.
- **22:30** DJ Parrucho.

Bazkaritarako, paella

Bazkaria Inkernu taberna kanpoaldean egingo dute, eta 70 pertsona inguru batuko direlakoan daude. Bazkalostean, berriz, kontzertu akustikoa izango da Iker Laurobaren eta Leire Berasaluzeren eskutik. Gero, buruhandiak izango dira, ondorengo kontzertua prestatzeko. Izan ere, Guda Dantza taldearen emanaldia izango da; duela gutxi atera duen diskoko kantuak eskainiko ditu. 22:00etan, berriz, kilo bat ziza zozketatuko dute, eta, eguna amaitzeko, DJ Parrucho izango da Inkernun.

Errekan Gora prestatzen

Atxorrotx Kultura Elkartekoek adierazi dutenez, aurtengo Errekan Gora jaialdiko emanaldiak bi hilabetean egin nahi dituzte, uztailean bakarrik egin beharrean. "Uztailean ekimen kultural asko daude, eta programazioa uztailean eta irailean egitea pentsatu dugu".

Pilota berpiztuz ekimenean batu ziren nagusienak. IMANOL BELOKI

'Pilota berpiztuz' ekimena jarri berri dute martxan Eskoriatzan

Eskupilotarako zaletasuna eta Kontzejupe frontoi gisa erabiltzeko ohitura berreskuratzeko ekimena abian da

I.B ESKORIATZA

Lehen Hezkuntzako hirugarren eta seigarren maila arteko neska-mutikoentzat, *Pilota berpiztuz* ekimena jarri dute martxan Eskoriatzan. Arizmendi Kirol Elkarteak Tortolis ludotekarekin batera eta Udalaren babesarekin antolatutako ekimena da, eta eskupilotak herrian indarra hartzeko sortu berri dute.

Horretarako, eguaztenero, eskoriatzarren arteko pilota partiduak jokatuko dira, 19:15etik 20:15era, eta izen-ematea zabalik dago, Tortolis ludotekan, edo saio egunetan pilotalekura joanda. Eguaztenean hasi ziren, eta, lehenengo pausoa izan arren, irailera begira taldetxo bat finkatzeko asmoz antolatu dutela adierazi du Asier de la Flor begiraleak.

Saio berezia, zapatuan

Eskupilota Federazioak Luis Ezeiza eta Arizmendi ikastetxeetan pilota saioak eskaini ditu azken hilabeteotan, pilota haurrei gerturatzeko, eta, saioei amaiera emateko, zapatuan pilota jaia egingo dute pilotalekuan, 16:00etatik 18:00etara bitartean.

Haurren danborradan izena emateko epea irekiko dute asteburuan

Ekainaren 30ean hutsik egiten ez duen hitzordua da haurren danborrada, San Pedro jaien barruan; parte hartu nahi dutenentzako izen-ematea irekiko dute asteburuan. Horretarako, izen-emate orria bete, eta kultura etxean, Luis Ezeizan, Jose Aranan edo Almenen entregatu beharko da, buzoietan sartuta, maiatzaren 23a baino lehen.

Haurren danborrada 4 urtetik aurrerakoentzat zuzenduta dago –txikienak 2014an jaiotakoak–, eta entsegu egunak, bestalde, astelehenetan eta eguaztenetan egingo dira, arratsaldeko seietan, pilotalekuan. Jantziak bueltatzeko azken eguna uztailaren 4a izango da.

Haur masaje ikastaroa antolatu du Luis Ezeizak

Gurasoek euren txikiarekin batera hazkunde goxoa bideratzen duen esperientzia bizitzeko aukera izango da, Luis Ezeiza Herri Eskolak antolatu duen haur masaje ikastaroan. Haurraren garapen neuronalerako estimulurik onena kontaktua izanik, gurasoek seme-alaben seinaleak hobeto sumatzeko eta lotura afektiboa sustatzeko antolatu dute ikastaroa.

Lau saio eskainiko dituzte hilabete honetan: maiatzaren 21ean, 23an, 28an eta 30ean, eta 17:30ean hasita, Luis Ezeizako eraikinean. Ikastaroan parte hartzeko interesa dutenek 943 71 49 38 telefonora deituta eman beharko dute izena.

EskoCup txapelketa, areto futbola sustatzen

Eskoriatza Kirol Elkarteak txikienen artean areto futbola sustatzeko lehen aldiz antolatutako ekimena arrakastatsua izan da. Alebin eta benjamin kategorietako haurrei zuzendutako txapelketa izan da, eta hamahiru talde izan dira parte hartzen

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatzako areto futbol taldeek amaitu dute ligako denboraldia, eta, datorren ikasturteari begira, txikienak kirol horretara bultzatzeko asmoz, EskoCup areto futbol txapelketa antolatu du Eskoriatza Kirol Elkarteak.

Aurtengoa lehen edizioa izan da, alebin eta benjamin mailetako neska-mutikoei zuzenduta. 8-10 laguneko taldeetan banatuta, alebinetako bost talde eta benjaminetako zortzi talde batu ziren pasa den asteburuan, Euskal Herri osotik etorritakoak.

Talde bat, partidu aurretik. ESKORIATZA K.E

Balorazio positiboa

Antolatzaileen esanetan, arrakastatsua eta errepikatzeko moduko txapelketa izan da. Hauxe adierazi du Aratz Kortazarrek, areto futbol eskolako koordinatzaileak: "Aurtengoa lehenengo edizioa izan da, eta, izan duen harrera ikusita, datorren urtean ere antolatuko dugulakoan gaude. Izan ere, gure kasuan, maila honetako gaztetxoentzat ez dago ligarik, eta lagunartekoak soilik jokatzen dituzte. Txapelketara etorri zirenak, aldiz, lehiatzen dira, eta euren artean areto futbolaren gainekoak ikasteko eta alor horretan pauso bat emateko hitzordua izan zen. Manuel Muñoz kiroldegian eta Luis Ezeiza Herri Eskolako kantxan aritu gara asteburuan, eta Euskal Herriko herri ezberdinetatik etorri dira gaztetxoak gurera. Gustura aritu dira, eta eskerrak eman nahi dizkiet bertaratu ziren guztiei: txapelketan lehiatu ziren haurrei, eta baita animoak ematera etorri ziren familiakoei eta areto futboleko zale guztiei."

Areto futbola indartu

Azkenaldian, pauso handiak ematen ari dira Eskoriatza Kirol Elkarteko kideak areto futbola gaztetxoen artean sustatzeko asmoz, eta lan horretan jarraituko dutela adierazi du Aratz Kortazarrek: "Euskal Ligan, ohorezko mailan... lan handia egiteko daukagula uste dut, baina txikienen artean, eskola kirolean, erraztasun gehiago behar ditugula uste dut...".

GORA ETA BEHERA

Lukas Prest! musika taldea, berriz oholtzara

Ia hiru urte pasa dira Lukas Prest! Eskoriatzako musika taldeak azken kontzertua eman zuenetik. Bada, betiko kantak jotzen jarraituko dute, nahiz eta aldaketa batzuekin bueltatuko diren. Hain zuzen, maiatzaren 25ean Bergarako kartzela zaharrean kontzertua eskainiko dute.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?
berriak@goiena.eus
edo 688 69 00 07.

LUKAS PREST

Iaz, Gatzagako BTT martxa hasi berritan. GOIENA

Leintz Gatzagako BTT martxa ekainaren 2an izango da

XVI. edizioari begira, antolaketari eman izan nahi diote garrantzia, parte-hartzea handiagoa izan dadin

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Dorletako Ama Txirrindulari Elkarteak antolatutako BTT martxa inoiz baino lehenago dator. Aurten, ekainaren 2rako antolatzea erabaki dute antolatzaileek: batetik, parte-hartze kopurua handiagoa izateko; bestetik, eguraldia hobea izateko esperantzarekin; eta azkenik, antolaketa lanak behar bezala egiteko. Dagoeneko zabalik dago izen-ematea, *kirolprobak.com* webgunean.

Antolaketari garrantzia

Azken urteetako edizioetan parte-hartzaile kopurua jaitsi izanak ekarri du data aldatzeko erabaki hartzea, besteak beste, eta horren ondorioetako bat da iaz gazte talde batek ibilbide zati bat aldatu izana. Honela adierazi du Ibai Agirreurretak, Dorletako Ama Txirrindulari Elkarteko kideak: "Urtero egin izan ohi dugu lasterketa Gatzagako jaietan, eta, antolaketarako jende falta izaten dugunez, azken momentuko prestaketa momentuetan ere... erabaki dugu ondo antolatzeari garrantzia ematea. Aurten ez da egongo ibilbidean aldaketarik, baina aldaketatxo batzuk egingo ditugu. Anoa postuak hobeto jarriko ditugu, leku ezberdinetan, eta irteerako gunea beste urtetan baino txukunago jarriko dugu. Horrez gain, ibilbide bukaeran dagoen aldapa gogorra saihesteko irtenbidea jarriko dugu. Bestela, ez dago aldaketa handirik".

Logo berria, berritasun gisa

Aurtengo lasterketa iragartzeko, gainera, Dorletako Ama Txirrindulari Elkartearen logoa berritu egin dute. Jone Martinez diseinatzaile grafikoak egin du ilustrazioa, eta elkarteko kideak gustura geratu dira emaitzarekin.

Pagoederrera bidean zuhaitz garbiketa egin dute

Goi-tentsioko linea elektrikoak zuhaitz-eremuetatik igarotzeko bete behar dituen agindu espezifikoak betetze aldera, pagadi zati bat bota du Gatzagako Udalak Pagoeder inguruan. Horrez gain, Iñurrieta baserrirainoko bidean ere hainbat pinu bota dituzte.

Guztira, 30 pago eta 100 pinu inguru bota dituzte, eta, hamabost egunean egin dituzten lanei amaiera emateko, azken hondarrak ateratzen ari dira. Honela adierazi du Juanito Bengoak, Mendietako zinegotziak: "Iberdrolak ezartzen duen arauaren arabera, linea dagoen tokitik aldeetara zortzi metroko distantzia egon behar da, eta, arriskua baldin badago ere, bota egin behar dira inguruko zuhaitzak. Iaz ere egin genuen garbiketa, baina neguan hainbat jausi dira, eta, behin kentzen hasita, eremua ere txukundu nahi izan dugu".

Lau hitzaldi gurasoen trebakuntzan laguntzeko

Lehen eta Bigarren Hezkuntzan seme-alabak dituztenen gurasoen zalantzak argitzeko hainbat gairen gaineko hitzaldiak antolatu dituzte Udalak eta Guraso Foroak elkarlanean; udaletxeko ganbaran izango dira, astean bat, ekaina bitartean

Mirari Altube ARETXABALETA

Gurasoak trebatzen jarraitzeko asmoarekin antolatu du hitzaldi sorta Udalak, Guraso Foroarekin batera: "Horien bitartez, familia bizitzan sortu ohi diren egoera zailak bideratzen lagundu nahi diegu", adierazi dute antolatzaileek, eta gaineratu: "Aktualitateko gaiak dira guztiak, etxe askotan kezka iturri direnak".

Gurasoak, irakasleak eta hezitzaileak gonbidatu gura dituzte: "Mugikorra duen haurraren gurasoa edo erostear dagoena. Beste herrialde batzuetako haurrekin ikasten ari diren haurren gurasoak eta etorkinak diren gurasoak; baita ikastetxeetako irakasleak ere. Hirugarrenerako, sare sozialak ezagutzen ez dituzten gurasoak: alta nola eman, zer diren, nola funtzionatzen duten ikasi nahi dutenak. Garrantzitsua baita sare sozialetan ere nola eta norekin ibiltzen diren jakitea. Azkena nerabeen gurasoei zuzenduta dago. Nerabezaroa aro gorabeheratsua da, emozioak puri-purian dauden aroa, alegia. *Bullying*-a gai hartu nahi dugu, eta familian nola lagun daitekeen aztertu".

Hitzaldi guztiak udaletxeko ganbaran dira, euskaraz eta gazteleraz, eta parte hartzeko ez dago izenik eman beharrik.

Hizlariak

MAIATZAK 17 (18:00)
AMELIA BARQUIN

Kulturarteko hezkuntza izango du berbetarako gai Filologia Hispanikoan doktore eta MUko Huhezi fakultatean Kulturartekotasun hezkuntzako irakasle denak.

MAIATZAK 23 (18:30)
IRATXE ESNAOLA

Smartphoneen eta bideo jokoen eta haurren arteko harremanaren gainean egingo du berba Deustuko Unibertsitateko irakasle den informatika ingeniariak.

MAIATZAK 30 (18:00)
M. LIZARRA / N. LARRINAGA

Sare sozialak –Facebook, Instagram…– zer diren azaltzeko tailer praktikoa emango du Aretxabaletako kale hezitzaile lanetan diharduen bikoteak.

EKAINAK 5 (18:00)
IDURRE ALBIZU

Nerabezaroa eta bullyinga: familiaren esku-hartzea hitzaldia eskainiko du, *bullying* kasuetarako pistak emateko asmoarekin, *coach* eta PNL jarduten duen Albizuk.

MIRARI ALTUBE

Aretxabaletako tomatea, liburuan

Aretxabaleta izena duen tomatearen gaineko kontuak jaso ditu liburuan Marc Badal katalanak: *Aretxabaletako tomatea. Bioaniztasuna, lurraldea eta jakintza partekatua*. Hori aurkeztu zuten, atzo, idazleak berak eta Cristinaenea Fundazioko, Mankomunitateko eta Udaleko ordezkariek, eta tomatearen berri eman zieten gero herritarrei. Liburua Arkupen dago salgai.

Erretiratuen Eguna ospatuko dute bihar, kiroldegian

Hainbat urtean antolatu ez den Erretiratuen Eguna berreskuratu du Udaleko Ongizate Sailak, eta bihar, maiatzak 12, egingo dute. Bazkarirako txartelak aurrez jarri zituzten salgai, eta, horri esker, jakinekoa da 154 erretiratu elkartuko direla; aspaldiko partez egingo den lehenengoa izanik hainbat erretiratuk ez duela izan horren berri uste dute antolatzaileek, eta horregatik uste baino "kopuru baxuagoa".

Ibarra kiroldegiko kantxan elkartuko dira bazkaltzeko, 14:00ak bueltan; sartu aurretik, baina, talde argazkia aterako dute guztiek batera, "erretiratuek hala eskatuta".

Ohiturari eutsita, bazkalostean dantzaldia izango da, eta dantzan egiteko gogotsu ez daudenek kontu-kontari jarduteko denbora izango dute mahaiaren bueltan.

ANDRA MARI
Aholkularitza
2017ko errenta kanpaina
Aholku pertsonalizatua
Etorri eta lagunduko dizugu
Andra Mari Auzunea 3 • ARETXABALETA • Tel. / Fax.: 943 79 29 26 • naiara@asesoriaandramari.com

Mugarriak berrikusteko ohitura, taula gainera

'Mugarrixak' antzezlana estreinatuko dute Arkupen bihar, zapatua, Apropoxek ekoiztuta eta zuzenduta; udal ordezkariek, Otala Zelai egunean, herriaren mugarriak berrikusteko duten ohitura nondik datorren azalduko dute umore handiarekin

Mirari Altube ARETXABALETA

Urtero-urtero, Otala Zelaiko erromeria egunean, mugarriak berrikustera joaten dira udal ordezkariak; eta aurten ere halaxe egingo dute. Herritar askok ez jakin arren, ehunka urte dituen ohitura da. Hori jaso gura izan dute Kultura Saileko kideek, eta antzezlana egiteko proposamena egin zioten Apropox sormen taldeari. Bihar, zapatua, aurkeztuko dute *Mugarrixak* lana, Arkupen (22:00); sarrera lau euro da.



Jon Zubiaga eta Beñat Arizabaleta, entsegu batean. APROPOX

Mugarrien gaineko eztabaida

Ikusleak historian kokatuko dituen proiekzio batekin emango diote hasiera ikuskizunari: "1490era joango gara, eta sasoi hartan Aretxabaletan zelan bizi ziren aditzera emango dugu", argitu du Iurgi Etxebarriak, Apropoxeko gidariak. Mugarriak ikustera joan aurreko egunean, San Martin elizan, zin egin ohi zuten leialak izango zirela eta tranparik ez zutela egingo mugarriak mugituta. Hori abiapuntu hartuta, mondragoetar bat eta aretxabaletar bat izango dira ikuskizuneko protagonista: "Mugarria zuzen jarrita dagoen edo ez eztabaida izango da oholtza gainean", dio Etxebarriak. Datu interesgarriak jaso direla ere jakinarazi du: "Esaterako, lehen ez ginen Aretxabaleta, Leintz bailara baizik; eta erdiguneak ez zuen herria egiten, auzo guztiek garrantzi berbera zuten".

Herriko aktoreak

Eskarmentu handiko Jon Zubiaga *Osoron* arrasatearrarekin batera, Beñat Arizabaleta eta Lur Garai gazte aretxabaletarrak izango dira oholtza gainean. "Azken orduan batu da Lur Garai, eta neuk egin behar nuen paper txiki bat egingo du", dio Etxebarriak. Aldaketarik ez bada behintzat, emanaldi bakarra eskainiko dute, biharkoa.

"Historia kontuak jaso ditugu, era entretenigarrian"

IURGI ETXEBARRIA APROPOX SORMEN ITURRIKO GIDARIA

GOIENA

Mugarrixak antzezlanaren gidoia egin du, baita zuzendu ere.

Historia kontuen berri antzezlanaren bitartez...

Bai; uste dut hitzaldiarekin baino samurrago barneratzen direla halako kontuak. Horregatik, lan entretenigarria eta barregarria egin dugu, 40 minutu ingurukoa, luzeegia ez dadin izan.

1490era joango zarete; hizkuntza, janzkera... zaindu dituzue?

Bazegoen asmoa, baina, azkenean, ahal izan duguna egin dugu. Ematen diren datuak zehatzak dira, baina gainerakoa, ez erabat. Aretxabaletako euskara erabiliko dugu.

Herriko kontuak jaso izanarekin pozik?

Bai; edozein lani nago zabalik. Urritik nabil proiektuarekin bueltaka, gogotsu, eta polita izango da, kontu interesgarriak jaso dira eta.

1.080 euroko pentsioa ziurtatu beharra defendatu du EH Bilduk

Pentsio sistema propio baten alde agertu da Nerea Kortajarena legebiltzarkidea herritarren aurrean

M.A. ARETXABALETA

Azken hilabeteotan pentsioek sortu duten kezka eta zeresana jakinik, horren gaineko argibideak ematera etorri ziren eguaztenean EH Bilduko legebiltzarkide Nerea Kortajarena eta Duintasuna elkarteko Marian Esnaola, Aretxabaletako EH Bilduk gonbidatuta.

Donostiako erretiratuek azken hilabeteotan egindakoaren berri eman zuen Esnaolak: "Pentsaera, izaera eta pentsio oso ezberdinak ditugun herritarrak elkartu gara mobilizazioetan". Eta datu batzuk ere partekatu zituen: "EAEn 548.000 pentsiodun daude, horietatik 200.000k 700 euro baino gutxiago jasotzen dituzte eta 300.000k, 1.080 eurotik behera".

Esnaola eta Kortajarena. M.A.

Kortajarenak 1.080 euroko gutxieneko pentsioaren alde egin zuen, eta hori ziurtatzeko pentsio sistema propio baten beharra aldarrikatu: "Euskal Herriko alderdiak Madrilera begira daude pentsio duin eske; gu oso eszeptikoak gara". Borondate politikoa izanez gero posible dela 1.080 euroko pentsioa ziurtatzea aipatu zuen: "Baina geure sistema propioa izan bitartean gizarte-segurantza transferitzeko eskaerarekin bat egin dugu". Era berean, erretiratuei eskatu zien kaleko mobilizazioekin tinko jarraitzeko, horri esker azken asteetan "hainbat mugimendu" izan direla iritzita.

40. herri lasterketa iristear da Otala Zelaira

Joseba Larrinaga 'Mardo' hil zela bost urte bete dira, eta herritar asko elkartuko dira domekan Urkulu urtegi inguruan, haren izena daraman krosa jokatzeko. Behin hori bukatuta, erromeria giroa nagusituko da Aozaratzako zelaian, eguraldiak lagunduz gero

Mirari Altube ARETXABALETA

Urteurren borobilarekin dator aurten Joseba *Mardo*-ren oroimenezko krosa: 40.a, hain zuzen ere. Nobedaderik ez dute iragarri antolatzaileek, baina, aretxabaletarrek estimu handian duten lasterketa izanik, korrikalari mordoa elkartu gurako lituzkete domekan Otala Zelai inguruan.

Lasterkariak korrikan hasteko gertu iaz. IMANOL SORIANO

Umeak lehenengo, helduak gero

Azken urteotan lez, neska-mutikoen lasterketak izango dira egunari hasiera emango diotenak: 10:00etan, benjaminek (2008-2009) 500 metro egingo dituzte; 10:10ean, kimuek (2006-2007), 1.000 metro; eta 10:20an, infantilek (2004-2005) 1.500 metro. "Astean zehar 65 bat umek eman du izena, baina egunean bertan ere mordoa gerturatzen da", jakinarazi dute Leintz eskola kiroleko kideek.

Helduen krosa 11:00etan hasiko dute, Otala Zelain, eta Urkuluri buelta emango diote; zelaian bertan bukatuko da (8.410 metro).

Bakarka edo bikote mistoak osatuta parte har daiteke aurten ere. Izena aurrez emanez gero –*www.herrikrosa.eus* eta Ibarra kiroldegia–, 8 euro ordainduko ditu lasterkari bakoitzak eta egunean bertan, 15 euro.

Erromeria giroa

Behin lasterketak bukatuta, jai giroa nagusituko da Aozaratzako zelai ezagunean, eguraldiak laguntzen badu, behintzat –txarra eginez gero, erromeria Iturrigorri pilotalekuan egingo dute eta paella lehiaketa bertan behera gelditukо da–. Animaliekin jolas egiteko aukera izango dute umeek eta gaztetxoek lehenengo, eta ondoren, trikiti doinuen inguruan sagardoa dastatuko dute bertaratzen direnek. Paella lehiaketari ere orduantxe emango diote hasiera –aurrez eman behar da izena Arkupen, 5 euro ordainduta–.

Urtero lez, norberak eroandakoa bazkalduko dute herritarrek, eta arratsalde partean musika eta Leizarra musika eskolako dantzarien emanaldiak izango dira protagonista.

Otala Zelaiko egitaraua

Lasterketak
- **10:00** Umeen lasterketak.
- **11:00** Helduen krosa.
- **12:30** Sari banaketa.

Erromeria
- **13:00** Animaliekin jolasak.
- **13:00** Paella txapelketa.
- **13:30** Sagardo festa, Leizarra musika eskolako trikitilariekin.
- **14:30** Herri bazkaria; norberak eramango du.
- **16:00** Euskal disko-festa.
- **18:00** Dantza saioak.
- **19:00** Euskal disko-festa.

Musika eskolako ikasleen emanaldiak daude maiatzean

Leizarra musika eskolako ikasleek hainbat emanaldi eskainiko dituzte maiatz eta ekain artean, ikasturtean ikasitakoa erakusteko. Astean hasi dituzte kontzertuak flautako ikasleek, eta datorrenean, bi egunetan izango dira musikariak Arkupeko oholtzan; martitzenean, hilaren 15ean, metal, egur eta haize instrumentuen ikasleak elkartuko dira (19:00) eta eguaztenean, hilaren 16an, perkusio ikasleak (18:00).

Trikitilariek eta pandero-joleek hilaren 21ean, astelehena, eskainiko dituzte euren saioak, eta gitarra-joleak bi egunetan elkartuko dira: maiatzaren 28an eta 29an. Hirurak dira 18:00etan.

Odol ateratzeak egingo dituzte hiru astelehenetan

Datozen hiru astelehenetan, maiatzaren 14an, 21ean eta 28an, odol ateratzeak egingo dituzte Arabako odol bankuko kideek. Horretarako, autobusa etorriko da Durana kalera (16:45-20:00),eta herritarrak bertaratzera gonbidatu dituzte.

Odola emateko arrazoi asko daudela gogorarazi dute odol emaileen ordezkariek; besteak beste, gabezia handia eta laborategian sortu ezin izana. Eta "oso samurra" dela ematea argitu dute; 18 eta 70 urte artean izan beharra dago (50 kilo) eta ez dago baraurik joan beharrik. Eman aurretik, gainera, medikuaren kontrola pasatzen dute guztiek.

Lau ikastaro antolatu ditu Jaikik, Dantza Astearen barruan

Kontakids, tangoa, dantza afrogaraikideak eta dantza urbanoak ikasteko saioak maiatzaren 26an izango dira

M.A. ARETXABALETA

Laugarrenez antolatu du Jaiki elkarteak, Udalaren laguntzarekin, Dantza Astea. Maiatzaren 25etik ekainaren 1era artean ikuskizun eta saio mordoa eskainiko dituzte, baita ikastaroak ere.

Helduek bi izango dituzte: batetik, tangoa ikasteko saioa, kuartelean (10:00-13:00). Gasteiztik etorriko diren Teok eta Pilik egingo dituzte irakasle lanak. Eta bestetik, dantza afrogaraikideak izango dira protagonista Arkupen (10:00-13:00), Arantza Iglesiasen gidaritzapean.

Umeek, 2 eta 5 urte artekoek, Kontakids saioa izango dute, Zigor Lasagabasterrek gidatuta, kiroldegian (11:00-12:00). Eta helduagoek, 6 urtetik gorakoek, dantza urbanoak egingo dituzte Iruñeko Yummygyalsen eskutik.

Izen-ematea zabalik

Izena emateko epea zabalik dago. Hona bideak: tangoa eta Kontakids: 688 84 37 01; afrogaraikideak: 659 35 92 21; eta dantza urbanoak: 688 81 96 65. Baita *jaikielkartea@gmail.com* helbidean eta Facebook bidez ere.

Mobiliario ARENAZA
ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

LANA • FISKALITATEA • KONTABILITATEA • JURIDIKOA-ABOKATUAK
zenbaki
aholkulariak-abokatuak
30 urteko eskarmentua fiskal, kontabilitate, lan eta merkataritza arloetan, enpresen, autonomoen, partikularren eta enpresa bat sortu nahi dutenen zerbitzura
Basabe Industrialdea Pab. FO - 10. bulegoa • 25 Postakutxa
20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa) • Tel.: 943 71 21 12 www.zenbaki.eus

PAZKOAK 2018

- Jaietako egitaraua
- Egitarau herrikoia
- Zapietako irudiak
- Jaioberriei ongietorria
- Txupinazoa
- Erraldoiak
- Zezenak
- Errekortadoreak
- Bakailao lehiaketa
- Idi-probak
- 'Freestyle' erakustaldia
- Goitibeherak
- Drogen prebentzioa
- Kultura agenda
- Herritarren jaiak

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Ondo pasa Pazkoetan!

Nagore Agirre Mazorriaga
Odontologia Kolg. zbk. 162-A

Alaitz Agirre Mazorriaga
Odontologia Kolg. zbk. 611

Ibargarai 9 - 1º B. BERGARA | Tel.: 943 76 00 23 | Mug.: 665 72 36 28

RPS 327/13

PAZKOAK 2018

GOENA TELEBISTA | HEMEN DEBAGOIENA | JAIAK: PAZKOAK 2018, BERGARAKO JAIAK
MAIATZAK 21 ETA 22, 18:00, 20:00, 22:00

GOIENA TELEBISTA | JAIAK: PAZKOAK 2018, BERGARAKO JAIAK
MAIATZAK 23, 21:00 ETA 23:00

goiena
Zu hemen zaude.

ALKATEAREN AGURRA

ELENA LETE BERGARAKO ALKATEA

Jaiak errespetuz gozatzeko unean

Aurtengo negua luzea izan bada ere, herria loratzen dago berriro, jendea kalean, eta, bide batez, bizipoza areagotuz doa egunerokoan. Eta bizipozaz ari garela, Pentekoste jaiei berriro ere ongietorria egiteko gogoz gaude. Jai kuttunak dira bergararrontzat eta udaren atari ere badira, urtaro legez.

Bergara eskarmentudun herri ekimentsua da, historia handia duena, baina egunerokoaz disfrutatzen dakiena eta aurrera begiratzeko gaitasuna duena. Ikasi, prestatu, proiektuak sortu, aurrera atera eta gozatu; denetatik egiten dakigu, berezkoa dugu. Eta horietan guztietan 90 urte luzez bidaia-lagun izan dugun eta luzarorako izango dugun Miguel Altuna Lanbide Heziketak izango du aurtengo jaietako txupinazoa botatzeko ardura.

BERGARA HERRI EKIMENTSUA DA, BAINA EGUNEROKOAZ DISFRUTATZEN ERE BADAKIENA

Bestalde, ezin dugu ahaztu aurten Bergararen Hiri-gutuna banatu zeneko 750. urteurrena betetzen dela. Urtemuga borobil hori baliatu dugu gure ondorengoek guretzat lortutakoa eta landutakoa behar den bezala gogoratzeko, baina, batez ere, gure eta etorriko direnen bizi kalitatea hobetzeko pauso gehiago emateko eta Bergara ezagutzen ez dutenei gu bisitatzeko gonbidapena egiteko. Jaietara hurbiltzea aitzakia ona da!

Eskerrik asko Jai Batzordeari eta parte hartzen duzuen eragile guzti-guztioi! Ondo pasa Pentekoste jaiak, osasunez, errespetuz eta modu inklusiboan!

PAZKOAK 2018 EGITARAUA

EGUBAKOITZA 18

15:00 IKASLE BAZKARIA San Martin plazan, Xaxau-ren eskutik.

17:00 TTEK ELEKTRO-TXARANGA kaleetan zehar.

20:00 Jaiei hasiera emateko TXUPINAZOA Miguel Altuna Lanbide Heziketaren eskutik eta BITORIANATXOREN JAITSIERA, San Martin plazan. Segidan, BERGARAKO MUSIKA BANDAREN KALEJIRA, hiriguneko kaleetan San Martin plazatik irtenda.

19:00 Matxiategin BARRAKAK IREKITZEA.

20:30 Bideberrin TXOSNAK IREKITZEA, bertso eskolakoekin.

20:30 PARRILLADA auzolanean Seminarioko karpan Oxirondo Aisialdi Guneko gurasoek antolatuta, haur eta gurasoentzat. Tiketak salgai 6 eurotan Azokako Izotz postuan.

21:00 KONTZERTUA Bideberriko txosnagunean: Turtukiña DJ.

22:00 Kili Kili Punk HAUR BERBENA, Seminarioko karpan.

22:30 Nomadak eta Garilak 26 taldeen KONTZERTUA San Martin plazan.

Bitorianatxo, jaitsi berri, udaletxean, iazko jaien hasieran. GOIENA

23:00 KONTZERTUAK Bideberriko txosnagunean: Sofa eta Anita Parker.

02:00 DJak txosnagunean: Aitor_MU eta Alvva.

ZAPATUA 19

09:00 GAUPASEROEN ARGAZKIA. Ondoren, IZENBAREKUAK txaranga eguerdi arte. Bideberriko txosnagunean.

10:00 DIANA. Bolutik, Bergarako Txistulari Banda; Labegaraietatik, Bergarako trikitilariak; Oxirondotik, Elgoibarko dultzaineroak. Ondoren, herriko plazan elkartuko dira guztiak eta Mizpirualdera egingo dute bisita.

11:00 ERRALDOIEN GUNEA, San Martin plazan: erraldoien erakusketa, erraldoiak egiteko tailerra, gomazko erraldoien erakusketa, palomita-makina, umeek margotzeko erraldoien liburuxka, xaboi-ponpa erraldoiak, umeentzat puzgarria. Antolatzailea: Bergarako Erraldoi Taldea.

11:00 Herriko Elkarteen arteko BAKAILAO LEHIAKETA San Martin plazan. Sukaldarientzako lapiko eta amantalak: Lacor-ek emandakoak. Herritarrentzako mokadua etxe hauei eskerrak: Konde Panaderokua, Mizpildi, Ogizun, Ogiberri Elkoarti eta Mila okindegiak; Vinos Atxega, Manso Hermanos eta Txomin Zubeldia edari banatzaileak; Leturia, Imaz, Urcelay, Antia, Igarza, Gorka eta Rezola harategiak.

J. Alberto Gorosabel Mendizabal doktorea
GOROSABEL DENTAL
RPS: 266/13
Bisita ezazu gure webgune berria: www.gorosabeldental.com
- Ortodontzia. Odontopediatria. PADI (Osakidetza).
- Odontologia orokorra.
- AHO eta INPLANTEEN ZIRUGIA punta puntako teknologiarekin.
- Estetika eta hortzen zuritzea TEKNIKA BEREZIAREKIN.
- PRGF (PLASMA).
- SEDAZIOarekin, nahi baduzu, zirugia eta gainontzeko tratamenduak

Ondo pasa jaietan!
Tel.: 943 76 56 88
Fraiskozuri 5A, 1-D. BERGARA
www.gorosabeldental.com
1990. URTETIK ZUEKIN BERGARAN. ESKERRIK ASKO DANOI!

11:00 Pentekosteetara ONGIETORRIA EMATEKO EKITALDIA. Iazko jaietatik hona, mundura etorri diren bergarar txikitxoei, udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Ondoren, argazki bateratua udaletxearen kanpoaldean, San Pedro kalean.

11:30 Espoloitik KALEJIRA Artikako, Berriozarko, Ondarroako eta Reusko erraldoi konpartsekin.

12:00 ERREKORTADOREEN ESKOLA IBILTARIA zezen-plazan. Sarrera 2 euro.

13:00 ERRALDOIEN DANTZAK, San Martin plazan. Ondoren, ongietorria erraldoi taldeko ordezkariei, udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

13:30 BAKAILAO LEHIAKETAKO SARI BANAKETA, San Martin plazan.

14:30 Erraldoi konpartsen BAZKARIA Seminarioko patioan.

15:00 ELKARTASUN BAZKARIA Bideberriko txosnagunean.

17:00 'FREESTYLE' ERAKUSTALDIA: *dirt jump,* Trialsin eta *flatland,* Mariaren Lagundiko jolas-tokian.

17:30 BURUHANDI ETA KILIKIEN IRTEERA San Martin plazatik.

18:00 Bergarako, Iruñeko, Artikako, Berriozarko, Ondarroako eta Reusko ERRALDOI KONPARTSEN KALEJIRA Bergarako kaleetan. Ibilbidea: San Martin plaza, Bidekurutzeta, Ramon Maria Lili, Ibargarai, Irizar, Kruz Gallastegi, Bideberri, Fraiskozuri, Herrilagunak, Domingo Irala, Barrenkalea, San Martin plaza.

18:30 ERREKORTADORE GAZTETXOEN ERAKUSTALDIA (8-15 urte artekoak). Sarrera: 3 euro.

19:30 TTIPTIKA Bideberriko txosnagunean.

20:30 TTIPTIKA Bideberriko txosnagunean.

22:30 GATIBU taldearen kontzertua Bergarako San Martin plazan.

23:30 KONTZERTUAK Bideberriko txosnagunean: Nogen eta Atom Rhumba.

00:00-03:00 ESTING Irala kalean.

02:00 DJ AIFIL Bideberriko txosnagunean.

DOMEKA 20

09:00 BIGANTXAK zezen-plazan. Sarrera: 2 euro.

Errekortadoreen ikuskizunak, zapatuan eta domekan, zezen-plazan. GOIENA

11:00 Umeentzat GOITIBEHERA zirkuitua Herrilagunak kalean. Antolatzailea: Inertzia kirol elkartea.

11:00 37. HAUR ETA GAZTEEN SIMON ARRIETA PLASTIKA SARIKETA, San Martin plazan. Laguntzailea: BEART elkartea.

11:00 MEZA NAGUSIA San Pedro parrokian.

13:00 Haur eta gazteen Simon Arrieta plastika lehiaketako SARI BANAKETA, San Martin plazan.

12:30 BERGARAKO MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA Espoloian. Egitaraua: *Campo de rosas* (pasodoblea), Miguel Gonzalez Bastidarena; *Egmont* (obertura), L. van Beethoven-ena; *Arizona* (indiar folk abestia), F. Cesarini-rena; *Call of the valley*, Alfredo Gonzalez Chirlaquerena; *Solo bossa* (fliskorno eta bandarentzat, Mikel Maniega bakarlari dela), O. M. Schwarz-ena; *Bergarako ereserkia*, Alfredo Gonzalez Chirlaquerena. Zuzendaria: Alfredo Gonzalez Chirlaque.

14:00 JAU!KANAU BAZKARIA Bideberriko txosnagunean: nork berea eroanda.

15:30 GOITIBEHERA TXAPELKETA San Martzialgo bidean. Antolatzailea: Inertzia kirol elkartea.

16:00 SORMEN TAILERRA Bideberriko txosnagunean.

17:00-20:00 EGURREZKO JOKO ERRALDOIAK Arrizuriaga azpiko jolas-parkean.

18:00 IKUSKIZUN PARTE-HARTZAILEA: *Munduan berbena.* Bideberriko txosnagunean.

18:30 GAZTEEN ERREKORTADORE TXAPELKETA, hainbat modalitatetan, zezen-plazan. Sarrera: 3 euro.

19:30 KONTZERTUA Bideberriko txosnagunean: Audience.

20:00 GIMNASIA ERRITMIKO ERAKUSTALDIA, San Martin plazan.

21:00 LOKATZA AFAIXA Bideberriko txosnagunean.

22:00 AUKERAN dantza taldearen *Aukeran 20 urte* DANTZA EMANALDIA, Udal Pilotalekuan.

4ki aholkularitza LAUKI AHOLKULARITZA
• AHOLKULARITZA FISKALA
• AHOLKULARITZA LABORALA
• KONTABILITATEAK
• ERRENTA AITORPENAK
• USUFRUKTU DOHAINTZAK
• HAINBAT ZERBITZU
• GESTORETZA
Ondo pasa jaietan!
Ibargarai 18, behea - BERGARA • Tel.: 943 76 12 28
Faxa: 943 76 38 36 • lauki@asesorialauki.com

BOSCH Service
Lagun Garajea
Santalaitz, 3
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Ondo pasa jaixetan!

22:30 KORTO LEHIAKETAKO EMANALDIA, Bideberriko txosnagunean.

ASTELEHENA 21

KOADRILEN EGUNA

11:30 KUADRILLEN ARTEKO HERRI KIROLEN TXAPELKETA, zezen-plazan, Zaldibiako trikitilariek eta Incansables txarangak animatuta.

12:30 DANTZALDIA La Nueva Talisman Orkestrarekin Espoloian.

14:30 HERRI BAZKARIA San Martin plazan. Kuadrillan jarri nahi dutenek taldean agertu beharko dute bazkaltzera, mahaien antolaketa ez oztopatzeko. Ez da alkoholdun edaririk emango bazkarian. Txartelak salgai: 12 euro.

17:45 I. EMAKUMEEN BERGARA HIRIA pilota txapelketako finalak. Ondoren, Gizonezkoen BERGARA HIRIA PILOTA PARTIDETAKO FINALAK Udal Pilotalekuan. Antolatzailea: BKEko pilota saila.

18:30 GAZTETXOENTZAKO ZEZENTXOAK ETA BIGANTXAK zezen-plazan. Sarrera: 3 euro.

19:00 Kantu Kolore taldearekin *Far West* HAURRENTZAKO ERROMERIA, San Martin plazan.

Asteleheneko herri bazkariak jende asko erakarriko du aurten ere. GOIENA

20:00 ERROMERIA Bideberriko txosnagunean: Laket taldea.

23:00 CAMP DANTZALDIA La Nueva Talisman Orkestrarekin Espoloian.

23:00 Ilargi Beltza taldearekin ERROMERIA, San Martin plazan.

23:00 KONTZERTUAK Bideberriko txosnagunean: Liher, Bad Sound eta Sista Kata.

MARTITZENA 22

UMEEN ETA HELDUEN EGUNA

09:00 BIGANTXAK zezen-plazan. Sarrera: 2 euro.

11:00-14:00 HAURRENTZAKO eta GAZTEENTZAKO JOLAS-PARKEA Ipintza II-ko patioan. Puzgarriak, *jumping*-a, *wipe out*-a -egur zoroak-, giza futbolina, *super jumping*-a…

12:00 IDI-PROBEN ERAKUSTALDIA Bergarako abeltzainen eskutik, San Martin plazan.

13:00 MARIATXIAK Domingo Irala kalean: Los Tenampas.

14:30 BAZKARIA eta DANTZALDIA, San Joxepe elkartean. Izen-ematea, maiatzaren 18aren aurretik.

16:30 Bergarako BOLO, TOKA ETA IGEL JOKOEN TXAPELKETA San Joxepen. Antolatzailea: San Joxepe Elkartea.

17:00-20:00 HAURRENTZAKO JOLAS-PARKEA, Ipintza II-ko patioan.

17:00 PILOTA PARTIDA PROFESIONALAK Bergarako Udal Pilotalekuan.

18:30 ERREKORTADORE ESKOLA IBILTARIA ZEZENTXOEKIN zezen-plazan. Sarrera: 2 euro.

19:00 KONTZERTUA: Anje Duhalde, Bideberriko txosnagunean.

20:00-22:00 DJ FESTA, Oihan Vegarekin, San Martin plazan.

22:00 BITORIANATXOREN IGOERA San Martin plazan.

22:15 DJ FESTA, Oihan Vegarekin, San Martin plazan.

Jakitekoak

- **130.000 euro** aurreikusi dira Pentekoste jaietarako. Gatiburen emanaldiak daroa zatirik handiena: 21.780 euro.
- **Zer gustukoen?** Udalak hainbat batzar egin ditu herritarrekin, jaietan gustukoen dutena jakiteko. San Joxepe erretiratuen elkartekoek Espoloiko kontzertuak eta bakailao lehiaketa dituzte gustukoen. Gaztetxoek, berriz, barrakak, zezenak, motor-triala, erraldoiak…
- **Txoko morea** jarriko dute txosnagunean. Indarkeria matxistaren gaineko informazioa eta baliabideak ematea da helburua, eta, bertan egoteko, txandak antolatu dituzte. Txandetan egoteko, *martxanterak@gmail.com* helbidera idatzi behar da.

GOKI ERREFORMAK, S.L.
Teilatuak, fatxadak, igogailuak, sukaldeak, bainugelak.
Ondo ibili jaixetan!
Irizar ibilbidea 1 behea
BERGARA
Tel.: 943 76 53 42
Faxa: 943 76 52 16
bergara@gokierreformak.es
www.gokierreformak.net

Eskaintzaz gozatzea bakarrik falta da

Xaxauk gune euskalduna, feministaskea eta alaia prestatu du. Horrez gain, lanean eta ardura postuetan genero berdintasunarekin bat egin dute. Betiko moduan, musikak bere tartea izango du,eta baita janari postuak ere: bertakoa eta osasuntsua

Arantzazu Ezkibel BERGARA

Eskaintza zabala prestatu du aurten ere Xaxauk; eskaintza hori, gainera, balio jakin batzuei lotuta egongo da. Txosnagunea euskaldun, feministaske eta alaia izatea gura dute.

Bertakoa eta osasuntsua

Txosnaguneko janari postuaren kudeaketa izango da aurtengo berritasuna. Bertako produktuen alde egin dute, eta elikadura osasuntsuarekin duten konpromisoa erakutsi. Janari postuan, harategiko eskaintzaz gain, eskaintza begetarianoa eta beganoa ere izango da ogitartekoetan eta errazioetan.

Txosnagunea, iazko jaietan. GOIENA

Afalorduan, gainera, egunero platerean paella jateko aukera egongo da. Herriko hainbat kuadrillak hartu dute lan hori egiteko ardura.

Domeka: Lokatza eguna

Iaz egin zuten moduan, aurten ere herriko eragile bat omenduko dute: Lokatza ziklismo eskola, hain zuzen. Gainera, domekan, eurek izango dute paella prestatzeko ardura.

Eta, nola ez, musikak ere bere tokia izango du. Eskaintza zabala prestatu dute. Xaxauk eskerrak eman nahi dizkie herritarrei, antolakuntzan erakutsitako prestutasunagatik.

Egitarau herrikoia

Xaxauk egitarau zabala prestatu du jaietarako. Hainbat musika estilo entzuteko aukera egongo da. Horrez gain, haurrendako jolasak eta antzerkia ere egongo dira. Taula gainean, lanean, barran, arduretan eta jaian "genero berdintasunarekin bat" egin dute.

Egubakoitza 18

- **15:00** Ikasle bazkaria eta Ttek Elektrotxaranga.
- **20:30** Bideberriko txosnen irekiera.
- **21:00** Turtukiña Vj.
- **23:00** Sofa eta Anita Parker.
- **02:30** Aitor_MU eta Alvva.
- **09:00** Gaupasero argazkia. Ondoren, Izenbarekuak txaranga.

Zapatua 19

- **15:00** Elkartasun bazkaria.
- **19:30** Ttipika.
- **23:30** Atom Rhumba eta Nogen.
- **02:30** Dj Aifil.

Domeka 20

- **14:00** Bazkaria JAU!kanau: bakoitzak berea ekarri.
- **16:00** Sormen tailerra: Makedo.
- **17:30** Munduan barrena. Ikuskizun parte-hartzailea.
- **19:30** Audience.
- **21:00** Lokatza afaria.
- **23:00** Film laburren lehiaketako emanaldia.

Astelehena 21

- **20:00** Laket.
- **23:00** Liher eta Bad Sound + Sista Kata.

Maiatzak 22

- **19:00** Anje Duhalde.

Irudi berritua izango dute aurtengo jaiek

Aitor Marauri da Pentekoste jaiak iragartzeko kartel irabazlearen egilea, eta Jardunek aterako dituen zapiak nagusiendako eta umeendako egingo ditu aurten; nagusien irudi irabazlea Eneko Ibañezek egin du eta haurrena, berriz, Elaia Maurek

Amaia Txintxurreta BERGARA

Itxura berria estreinatuko dute Pentekosteek. Urtero moduan, jaiak iragartzeko kartela zein izango zen aukeratzeko, lehiaketa egin du Udalak, eta, guztira, hamazazpi lan aurkeztu ziren –beste bat erretiratu egin zen–. Astebetez udal webgunean egon ziren ikusgai kartel guztiak, herritarrek gustukoena aukera zezaten, eta jai batzordeak aukeraketa egin du: beste urte batez, Aitor Marauri diseinatzaile bergararrak irabazi du jaiak iragartzeko kartelaren lehiaketa. *Airean balantza eta Pentekosteetan dantza* izena jarri dio aurten kartelari.

Haurren zapirako marrazkia. JARDUN

Helduen zapirako marrazkia. JARDUN

Zapiek, irudi berriak

Bestetik, Jardun euskara elkarteak jaietarako atera zituen zapi guztiak agortu egin ziren iaz, eta aurten, 1.750 berri aterako ditu egun hauetarako; helduendako 1.650 egingo dituzte eta haurrendako, berriz, 100 aterako dituzte.

Estreinakoz, gainera, bereziki haurrendako izango diren zapiak aterako dituzte, eta horietan jarriko den irudia ere lehiaketa bitartez aukeratu dute.

Jaietako kartela. AITOR MARAURI

Helduen zapirako marrazki irabazlearen egilea Eneko Ibañez izan da, eta, haurren sailean, Elaia Maurek egindakoa izan da onena, epaimahaiaren ustetan.

Lelo bera eramango dute biek, Elaia Maureren esaldi hau: *Aho bizi, euskaraz bizi!*

Herriko zenbait tabernatan eta jaietako egubakoitzean San Martin plazan jarriko dituzte salgai, 3 eurotan.

80 jaioberriri egingo diete ongietorria hilaren 19an

A.T. BERGARA

Azken urteetan, ohiko ekitaldi bihurtzen ari da herrian urtean jaiotako neska-mutikoei udaletxean ongietorria egitea festetan. 2011n hasitako tradizioari jarraituta, aurten ere ekitaldi hori mantendu egingo dute eta hilaren 19an, zapatua, 11:30ean, egingo dute, udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

Udalak aurreikusi du, aurreko urteen antzera, 80 ume ingururi egingo dietela ongietorria aurten ere. Guztiei banan-banan jarriko diete jaietako zapitxoa, eta, ondoren, talde argazkia aterako dute San Pedro elizaren aurrean. Ongietorria jasoko duten jaiotako ume horiez gain, euren gurasoak, aitona-amonak eta familiartekoak ere gonbidatuta daude ekitaldira, jaietan ume txikienak ere integratuta egon daitezen.

Txupinazora joango diren ordezkariak Miguel Altuna Lanbide Heziketako eraikinean. ARANTZAZU EZKIBEL

Miguel Altunakoek botako dute txupinazoa

Garai bateko eta egungo langile talde bat igoko da udaletxeko balkoira; esker oneko hitzak izango dituzte herritarrendako. Aurtengoa izango da Ibargarai kaleko eraikinean egingo duten azkeneko ikasturtea; lekuz aldatuko dira ondoren

Arantzazu Ezkibel BERGARA

Miguel Altuna Lanbide Heziketako ordezkarien eskutik hasiko dira aurten Pentekoste jaiak. Txupinazoa botatzeko ardura izango dute haiek; eta, hain zuzen ere, esker oneko hitz batzuk esango dituzte udaletxeko balkoitik.

Jai batzordeak erabaki du ohore hori Miguel Altuna Lanbide Heziketari ematea. Hainbat izan dira horretarako arrazoiak: aurten 90 urte bete ditu Miguel Altuna Lanbide Heziketak. Urte hauetan guztietan bergararrei eta inguruko herritarrei emandako zerbitzua eskertzeko modua da, duda barik. Gainera, ikasturte berrian, Miguel Altuna eraikinez aldatuko da; hori dela eta, *Agur Elementala* kanpainan murgilduta daude.

Lehengoak eta oraingoak

Txupinazoa botatzera joango dira gaur egungo langile taldea eta baita garai batean lanean ibilitakoak ere. Denak udaletxeko balkoira igotzea ezinezkoa izango denez, ordezkaritza batek hartuko du txupinazoa botatzeko ardura.

Eskolako ordezkariek "lau hitz" esango dituzte. Batetik, Jai batzordeari eskerrak nahi dizkiote, eurekin akordatu direlako. "Bestetik, Pentekoste jaiak ondo pasatzeko desioko diegu herritarrei", adierazi dute, eta, horrez gain, "beti errespetuz jokatzeko" eskatuko dute.

'Agur Elementala'

Miguel Altuna Lanbide Heziketa *Agur Elementala* kanpainan buru-belarri dabil. Bazkaria egingo dute ekainaren 9an, zapatua, eta izena emateko azkeneko eguna gaur, barikua, izango da. Bazkarira joan nahi duenak –20 euro– 943 76 70 49 telefonora deitu beharko du, edo *maltuna.eus* helbidera sartu.

Lanbide Heziketak Bergaran izan duen ibilbidea oparoa izan da. 1845ean sortu zen; orduan, probintziako Bigarren Hezkuntzako goi mailako institutua zen, eta Errege Seminarioan kokatu zen. Gaur egungo eraikina 1944an ireki zuten. 74 urteren ondoren, lekuz aldatuko dira. 2018-2019 ikasturtean Miguel Altunako eraikin berrian amaituko dituzte ikasketak.

Iazko jaietako erraldoien ekitaldia pilotalekuan egin zuten, eguraldi txarragatik, baina jende ugari hurreratu zen. GOIENA

Erraldoiak, umeen eta nagusien gozamenerako

Berriozarko, Artikako, Ondarroako eta Reusko erraldoiak izango dituzte lagun herrikoek, eta, gainera, beste urte batzuetan baino erraldoi gehiago izango dira aurten ikusgai; 36 handi, ertain eta txiki ekarriko dituzte herrira jaietan

Amaia Txintxurreta BERGARA

Urtero hainbat lekutako gonbidatuak ekartzen dituzte herrira Bergarako Erraldoi Taldekoek, eta halako egunak aprobetxatzen dituzte taldekideek elkar ezagutzeko eta, bide batez, baita kanpotik etorritako erraldoiak erakusteko.

Bergararrak iaz egon ziren Ondarroan euren erraldoiekin, eta, elkartrukean, aurten, hangoak etorriko dira hona. Kataluniako Reus hirira, berriz, datorren urtean joateko asmoa dauka Bergarako taldeak, eta aurtengo Pentekosteetan Bergaran izango dira haiek. Bi talde horiez gain, Berriozarkoak eta Artikakoak ere etorriko dira hilaren 19an, zapatuan, Bergaran izango den Erraldoi Eguna ospatzera.

11:30ean, talde gonbidatu horiek guztiek kalejiran egingo dute Espoloitik San Martin plazarainoko bidea; eta 13:00etan, dantza erakustaldia egingo dute plazan.

Goizean, gainera, 11:00etatik 14:30era bitartean, San Martin plazan hainbat lurraldetako erraldoi txikiak izango dira ikusgai, umeendako puzgarriak izango dira, baita palomita makina ere.

Bazkaltzen, Seminarioan, 200 lagun inguru elkartuko dira, eta, 18:00etatik aurrera, kalejira eta dantzak egingo dituzte herriko kaleetan zehar. Herriko erraldoiek ere parte hartuko dute arratsaldeko ekitaldian, eta, guztira, 36 elkartuko dira, erraldoi handiak, ertainak eta txikiak kontuan hartuta.

Egun aberasgarria

Bergarako Erraldoi Taldeko kide Andoni Goitik adierazi du eurendako egun "garrantzitsua" izaten dela eta entseguetan murgilduta dabiltzala, jaietako egun handian guztia primeran atera dadin. Gaineratu du publikoaren erantzuna "oso ona" izaten dela, umeak, gazteak eta nagusiak erakartzen dituztelako egun horretan, eta, eurendako, egungo erronkarik handiena taldearen jarraipena bermatzeko herriko gazteen konpromisoa dela. Urrian, esaterako, Torrejon de Ardoz-era joango dira (Madril), eta datorren urtean haiek ere izango dira Pentekosteetan.

Zezen-plazak 25 urte beteko ditu aurten

Udaletxea berritzeko lanak zirela eta, zezen festak antolatzeko zezen-plaza desmuntagarria jartzea erabaki zuen Udalak orain dela 25 urte. Egoera baliatuz, txekorketa antolatu zuen Zezen Zaleak taldeak. Polemika sortu zuen erabakiak

1993an Bergarako zezen-plazan egindako txekorketaren irudi bat. BERRIGARA

Eneko Azkarate BERGARA

Aurten 25 urte betetzen dira jaietan ipini eta kentzeko 2.000 lagun hartzeko moduko zezen-plaza lehen aldiz jarri zutela. 1993ko maiatzean izan zen. Lehengo beheko geltokiaren ondoan jarri zuten. Zezen-plaza jartzearekin batera, hainbat zezen festa antolatu ziren bertan, ordura arte San Martin plazan eta inguruko kaleetan egiten zen sokamuturraren ordez. Aipagarriena, txekorrekin egindako zezenketa, toreatzaile eta guzti. Entzierroa –Gasparrenetik zezen-plazaraino–, bigantxa bolaztatuak eta Kuadrillen Eguneko zaldi txikiekin eta basurde txikiekin egindako jolasak ere antolatu zituzten.

Orozkotik ekarri zuten zezen-plaza, Orozkoko Benigno Manzargoitiari alokatuta. Txekorketaz gaindiko gainerako zezen jaiak ere Manzargoitiak antolatu zituen.

Orduko 800.000 pezeta ordaindu zizkion Udalak Manzargoitiari zezen-plazagatik eta gainerako jaiengatik; txekorketa, berriz, Bergarako Zezen Zaleak taldeak hartu zuen bere gain. 1.500.000 pezetako kostua izan zuen. Zezenketako sarrerak 2.000 eta 1.500 pezetatan jarri zituzten salgai.

Bergarako Zezen Zaleak taldekoak, 1993ko jaien bezperan egin zuten txekorketaren aurkezpenean. BERRIGARA

Hamalau urtez jarraian

Urte hartan udaletxeko lanak zirela-eta San Martin plazaren erdia itxita zegoen. Horregatik erabaki zuen Udalak zezen-plaza jartzea. Harrezkero, urteroro jarri da zezen-plaza, nahiz eta tokiz aldatu den azkeneko urteotan: lehengo geltokia zegoen orubean etxeak egin zituzten, ingurua berrurbanizatuz, eta, ondorioz, Seminarioko patioan jartzen da azkeneko urteotan, nahiz eta edukiera txikiagokoa. Manzargoitiak berak jartzen du.

OROZKOTIK EKARRI ZUTEN PLAZA, 1993AN, ETA GAUR EGUN ERE HANDIK EKARTZEN DUTE

Zezenketak hamalau urtez antolatu ziren, 2006ra arte, toreatzaile hasiberriekin. 1993koan, Edu Garcia iruindarra eta Javier Chacon gasteiztarra izan ziren Cesar Moreno ganadutegi nafarraren txekorren aurrean jarri zirenak. 350 bat kiloko bost txekor akabatu zituzten. Jaietako domeka hartan, zezen-plaza goraino bete zen. Zezenketaren aurretik, kalejira egin zuten, Zezen Zaleak taldeak deituta, San Martin plazatik zezen plazaraino. 1993ko haren aurretik ere egin ziren txekorketak Bergaran. Azkenekoz, 1965ean. La Carlotan (Kordoba) jaio eta Bergarako San Antonion bizi zen *El Carloteño* izan zen orduko izarra.

TXEKORKETAK IKUSMIN HANDIA SORTU ZUEN, BAINA KONTRAKO 700 SINADURA BATU ZIREN

Zezenketak antolatzeko erabakiak polemika sortu zuen herrian Zezenenganako Errespetuaren Aldeko Batzordearen bitartez. Txekorketaren aurrako sinadura bilketa ere egin zuten. 700 bat sinadura batu zituzten. Talde horrek eskatzen zuen Udalak ez ematea txekorketak antolatzeko ezelako babesik. Izan ere, Bergarako Zezen Zaleak taldeak egitura juridikorik ez zeukanez, Udala agertzen zen txekorketaren antolatzaile. "Ekimen honekin, herriko zezenzale multzo bati jaiez gozatzeko beste aukera bat eman nahi diogu", adierazi zuten Zezen Zaleak taldekoek. Kontrakoek txekorketagatik protesta egiteko kartelada egin zuten eta pintaketak agertu ziren zezen-plazan. Zezenenganako Errespetuaren Aldeko Batzordeak adierazi zuen Udala "bergarar guztiona" dela eta, horrenbestez, "herritarren sentsibilitate guztiak" kontuan izan beharko lituzkeela.

Zezenari iskin egitea erakargarri denean

Zapatutik martitzenera bitartean, hainbat zezen festa antolatuko ditu Bergarako Zezenak ganadutegiak. Domekan, errekortadore gazteen txapelketa jokatuko da. Baina erakustaldiak eta jolasak ere izango dira, besteak beste

Eneko Azkarate BERGARA

Zaila da irudikatzea zezen festarik bako jairik. Animaliei ematen zaien tratuaren inguruan ahots kritikoak beti egon izan dira eta azkenaldian gehiagotan entzuten dira talde antiespezisten aldarrikapenak. Hori horrela izanik ere, jende asko erakartzen dute Bergaran ere zezenplazan antolaturiko festek: errekortadoreen txapelketa, bigantxak, eskola ibiltaria, kuadrillen arteko herri kirolak... "Gazteen artean oso estimatuak dira zezenak protagonista dituzten jaiak. Zezen-plaza bete egin ohi da, eta, jaien gainean herriko gazteei galdetuta, zezen festak daude gazteek gustuko dituztenen artean", dio Iñigo Almortzak, Bergarako Zezenak ganadutegiaren eta Bergarako Errekortadore Eskolaren sortzaileetakoa.

Bergarako Errekortadore Eskolako kideak. UNAI ARANA

Hain justu ere, herriko ganadutegi horrek antolatuko ditu aurten ere zezen-plazako ekitaldiak. Jaietako ekitaldien artetik, bigarren aurrekontu handiena duena da, 18.000 eurorekin.

Domekan, txapelketa

Egubakoitzean izan ezik, egunero izango dira zezenak protagonista dituzten festak. Eta errekortadoreen erakustaldiak eta txapelketak toki nabarmena hartuko dute, zapatuan eta domekan. Gaztetxoen eta gazteen erakustaldia eta txapelketa –azken hori domekan– antolatuko dituzte. Horietan, hainbat debagoiendar ariko dira adarren aurrean iskin eta saltok egiten. Gaztetxoen mailan (8-15 urte artekoak) Beñat Piñeiro, Anartz Almortza, Beñat Garin eta Unai Aranguren, laurak bergararrak; eta 16 urtetik gorako gazteen artean, Jon Maiztegi eta Julen Murgiondo bergararrak eta Aitor Murgiondo arrasatearra.

Euskal Herrian erreferente, 10 urte bidean

Bergarako Errekortadore Eskola erreferente da. Herririk herri aritzen da. Laster 10 urte egingo ditu eta ordurako "zerbait berezia" antolatu nahi du, Bergaran egindako txapelketako "irabazleak batuz", dio Unai Arana *Xurra*-k. Lau lagun aritzen dira erakusten: Iker Agirre *Txili* eta Unai Arana *Xurra* bergararrak; Blas Cruz arrasatearra; eta Ibai Kortabarria soraluzetarra. Errekortadore onak hiru egoerak menderatu behar ditu: iskin egiten ondo moldatu behar du, eta baita saltoan eta errekortean ere; hau da, "gogoa eta irakasle onak eduki eta arina, abila eta ausarta izatea" garrantzitsuak dira, Aranaren iritziz.

Aiz-Pe elkarteko kide Jenny Higuero eta Antonio Gonzalez bakailaoa egiten. ANTONIO GONZALEZ

Iazko lehiaketako saridunak, Elena Lete alkatearekin. GOIENA

Bakailaoak prest, epaimahaikideak probatzen hasteko. GOIENA

"Saltsa ondo loditzea oso garrantzitsua da"

Azken hiru urteetako bakailao lehiaketa Aiz-Pe elkarteko sukaldariek irabazi dute. Antonio Gonzalezek eta Jenny Higuerok bikote ederra osatu dute; bada, aurten, beste lagun batekin aurkeztuko da Gonzalez hilaren 19ko bakailao lehiaketara

Mireia Bikuña BERGARA

Bakailaoa, olioa eta berakatzak. Horiek dira bakailao lehiaketarako parte-hartzaileek jasoko dituzten osagaiak. Guztiendako berberak. Eta horiekin egin beharko dute Pazkoetako bakailao onena. Goxoena.

Elkarteen arteko lehiaketa hilaren 19an egingo dute, San Martin plazan, 11:00etan. Eta, azken urteetako palmaresa ikusita, bakailao onena Osintxukoa dela esan daiteke, zalantza barik. "Egia esan, nahiko harrituta nago lehiaketan lortutako emaitzengatik: lehenengo urtean ez genuen saririk lortu; bigarrenean, bigarren lekuen geratu ginen; eta azken hiru urteetan, irabazi egin dugu", esan du Aiz-Pe elkarteko Antonio Gonzalezek.

Saltsa loditzea

Eta harridura hori bereziki dator bakailaoa pil-pil erara Pazkoetako lehiaketan bakarrik egiten duelako. "Gainera, ez zait askorik gustatzen bakailaoa eta etxean ere ez dut prestatzen. Pazkoetan bakarrik", dio, barrez.

Hark eta Higuerok egindako bakailaoaren gakoa non dagoen galdetuta, ez du erraz erantzuten. "Ez dakit. Guk ohiko erara egiten dugu". Akaso, saltsan dago trukoa? "Saltsa ondo loditzea oso inportantea da. Hori da pil-pil eraren ezaugarri garrantzitsuena. Loditasun hori lortzeko, lapikoa mugitu egin behar da, bakailaoak duen gelatinak olioarekin bat egin dezan", kontatu digu.

Beste laguntzaile bat

Lehiaketa irabazi duen hiru aldietan Higueroren laguntza izan du. Aurten, baina, beste laguntzaile bat topatu beharko du. "Jennyk ezkontza bat dauka. Hortaz, laguntzaile bila nabil", kontatu du, barrez.

AZKEN HIRU URTEETAN AIZ-PE ELKARTEKOEK PRESTATU DUTE BAKAILAO GOXOENA

Epaimahairen lana

Lau lagunek izango dute bakailao onena aukeratzeko ardura, eta aurrez zehaztutako irizpideak puntuatuko dituzte: zaporea, itxura, saltsa, gatz puntua... "Bakarka, bakailao guztiak probatuko ditugu eta bakoitzari puntuazio bat emango diogu. Ostean, lauron artean aukeratuko dugu irabazlea", esan du epaimahaiko kide Iñaki Agirrek.

Era askotako bakailaoak daude eta horrek ere eragina dauka azken emaitzan. "Iaz, adibidez, Portugalgo bakailaoa erabili zuten. Jateko latza da eta ez du askorik laguntzen saltsa loditzen, baina emaitza goxoak egon ziren", dio.

Prestatzeko era oso inportantea dela dio: "Pazientzia eta neurria ondo hartuta edukitzea ezinbestekoak dira".

Mikel eta Ainhoa, idi parea gidatzen, iazko erakustaldian. GOIENA

Erakustaldia egingo dute 2.000 kiloko harriarekin

Bi idi pare egongo dira San Martin plazako saioan, 25 metroko ibilbideari hogei minutuan buelta gehien nork ematen dion erakusten. Animalien lana gidatzen, Belarreta eta Gorostiola egongo dira, laguntzaile banarekin

Mireia Bikuña BERGARA

Idiak eta 2.000 kiloko harria izango dira protagonista maiatzaren 22an, San Martin plazan, 12:00etan egingo den erakustaldian. Ez dago lehiarik, ezta desafiorik ere. Idiak nola gidatzen diren erakutsiko dute Belarretak eta Gorostiolak. "Lehiaketetan egiten den probetako bat egingo dugu. Alegia, plazan zehaztuko den 25 metroko ibilbidean joanetorrian ibiliko gara, hogei minutuz. Tarte horretan distantzia luzeena egiten duena izango da idi pare onena", esan du Jose Ramon Salegi bergararrak.

Distantzia hori neurtzeko, *iltze* delako unitatea hartzen da kontuan. Hau da, ibilbidearen joanetorria kontuan hartzen duen unitatea.

Belarretak eta Gorostiolak *probarri* edo harri berbera izango dute. 2.000 kilokoa. Hortaz, animalien gidaritzan egongo da erakustaldiaren gakoa. "Nork bere idiak eramango ditu. Hortaz, euren lana eta gure gidaritza izango dira inportanteak. Askotan eta leku askotan egindako lan berbera da, baina egun guztiak ez dira berdinak", esan du. Iazko Pazkoetan Mikel semeak gidatu zituen etxeko idiak. Aurten, aita izango da lan hori egingo duena. "Mikelek igeltsua dauka besoan. Hortaz, niri dagokit aurtengo erakustaldia egitea", dio Salegik.

San Martin plazako zorua ona ei da animaliekin ibiltzeko. "Plaza ona da. Animaliak gustura ibiltzen dira, labaindu barik, eta herritarrek ere ondo erantzuten dute".

Laguntzaileak

Idi-probetarako erabiltzen den probarria errektangularra da. Zertxobait estuagoa da aurreko aldean. Hor zulo bat dauka, katea ipintzeko. Kate horretan lotzen da harria. Hori gidatzen laguntzeko, bina lagun ditu idi pare bakoitzak. Idi-probalariak dira horiek. "Gure artean *karretero* berba erabiltzen dugu. *Karreteroak* gara idiekin ibiltzen garenak", azaldu du.

Belarreta eta Gorostiola aurrean joango dira, akuiluarekin. Eta atzetik, lagun bana izango dute. Belarretak Idoiaren laguntza izango du eta Gorostiolak, Ainhoarena.

'Freestyle' erakustaldian, kirola eta ikuskizuna

Bizikletaren gainean egiten diren estilo ezberdinez disfrutatzeko aukera izango da Mariaren Lagundiko jolastokian. Besteak beste, airean egiten dituzten ikaragarrizko saltoekin gozatu ahal izango dute bertaratzen direnek

Imanol Beloki BERGARA

Bergarako Pentekoste jaietako egitarauaren barruan, kirola eta ikusgarritasuna nahastuko dituen bizikleten *freestyle* erakustaldia izango da maiatzaren 19an, zapatuan. 17:00etatik aurrera izango da hori, Mariaren Lagundiko jolastokian, eta bizikleta gainean erakustaldi bikainak ikusteko aukera izango da izen handiko *ryder*-en eskutik.

Bizikleta gainean kirol ezberdinak uztartuko dituzte: trialsin, *dirt jump* eta *flatland* estiloak, hain zuzen ere. Trialsinean, modulu ezberdinetatik jauziak egiten zirkuitu bat osatu behar-ko du bizikleta gainean doanak, eta ezingo du hankarik lurrean ipini. *Dirt jump* estiloa, berriz, ikusgarriagoa izango da; izan ere, airean jauzi eta akrobazia arriskutsuak egingo dituzte. Gainera, ikusleek adrenalinaz betetako ikuskizunaren parte-hartzeko aukera izango dute. *Flatland* modalitatea, aldiz, BMX estiloko bizikletekin egiten da, eta lurretik altxa gabe bueltak emango dituzte, truko ezberdinak eginda.

Erakustaldia egiten hainbat *ryder* izango dira Bergaran. *Dirt jump* estiloko erakustaldian, Dani Kortabi *ryder* donostiarra eta Martxel Arribillaga izango dira. Trialsin modalitatean, berriz, Oier Mitxelena. Eta *flatland* estiloan, Iñigo Arroyo.

Arrisku gutxi, arrakasta asko

Martxel Arribillaga *ryder* nafarrak adierazi du arrakasta handiko ikuskizuna eskainiko dutela, bertaratzeko dei eginda: "Erakustaldia ikustera joateko zalantzan dauden horiei, bertaratzeko dei egin nahi diet, ordubete inguruko sekulako erakustaldia eskainiko dugu eta. Gainera, *ryder* bakoitzak bere estiloan maila ikaragarria du, eta ikusleek flipatu egingo dutelakoan nago; beraz, badakizue, gerturatu".

Martxel Arribillaga, saltoa egiten. MARTXEL ARRIBILLAGA

EuroTaller
Murillo Garajea
Auto konponketak orokorrean
Ondo pasau jaietan!
Leizeaga 4 - BERGARA
Tel.: 943 76 13 84

itesa
Ondo pasa jaixetan!
BERGARA • San Juan auzoa • 943 76 22 97

Iaz, Bergarako goitibehera jaitsieran, San Martzialgo aldapan behera. GOIENA

Ziztu bizian San Martzialen behera

Maiatzaren 20an, domekan, jokatuko da Pentekoste jaietako San Martzialgo goitibehera jaitsiera; bederatzigarren aldiz antolatu dute. Euskal Herriko Inertzia Kirolen Federazioaren ligako lehen proba izango da, Euskal Ligarako puntuagarria

Imanol Beloki BERGARA

Azken urteotan errotu egin da San Martzialen behera egiten den goitibehera lasterketa. Hala, aurten ere ez du hutsik egingo Goitibeherak Elkarteak Bergarako Udalaren eta Euskal Herriko Inertzia Kirolen Federazioaren laguntzarekin antolatutako probak.

Urtero bezala, Bergarako goitibehera txapelketa Euskal Ligarako puntuagarria izango da; aurten, ligako lehenengo proba. Maiatzaren 20an, domekan, izango da lasterketa, arratsaldeko hiru eta erdietan.

Izen-ematea, azken momentuan

Aurtengoa bederatzigarren edizioa izango da, eta bertan pilotu asko batuko dira –asko, etxekoak–, eta zaleek gertu-gertutik jarraitu ahal izango dituzte goitibeheren nondik norakoak. Antolakuntza taldeko kide Julen Markezek adierazi duenez, azken momentuan emango dute izena pilotu askok: "Oraingoz, hogei parte-hartzaile inguruk eman dute izena, baina, beti gertatzen den moduan, azken egunak izaten dira izen-emate gehien egoten direnak; horrenbestez, ziur aurreko urtekoen parean ibiliko dela parte-hartzaile kopurua: 50 inguru". Horrekin batera, Debagoienetik urtero hutsik egiten ez dutenak ere izango direla adierazi du Markezek, eta baita iazko irabazleak ere, Markez anaiak, eta Aitor Zabaleta eta Maddi Gutierrez herrikideak. Iaz, nork bere kategoriako lehen eta bigarren postuak eskuratu zituzten.

Ligako proba azkarrena

1.300 metro luze den jaitsiera Euskal Ligako azkarrena dela adierazi du Markezek, eta kontuz ibili beharreko bidea dela gaineratu: "Ibilbidearen zati gehienak baserri-bide estuetatik izaten dira, eta lehenengo postuan ibiltzen direnek ia 100 kilometro orduko hartzen dute. Zatirik arriskutsuena Surrako bidegurutzea pasatu ondoren eskuinera dagoen bihurgunea da. Gainera, aurten aldaketak izan dira tarte horretan, mendiari zati bat kendu diote eta. Ongi aritzeko, abiadura handiarekin akatsik egin gabe pasatzean dago trukoa".

Droga-analisiak egiteko gunea izango da zapatuan

Pentekosteetan, 00:00etatik 03:00etara bitartean droga analizatzeko eta informazioa eskuratzeko gunea izango da Irala kalean. Horrez gain, alkohol maila neurtzeko proba egiteko aukera izango da. Nahi duenak era boluntarioan egin ahal izango du

Imanol Beloki BERGARA

Bergarako Pentekoste jaietan izango diren ekintza guztien artean, festa eta parranda seguru egongo direla, eta, horiekin batera, askotan izaten da alkohol kontsumoa eta bestelako drogen erabilpena. Hala, kontsumitu behar dutenek egin behar duten kontsumoaren inguruko kontsultak egin ditzaten, eta informazioa zehatz eta pertsonalizatu horrekin kontsumo horiek izan ditzaketen arriskuetatik babesteko, maiatzaren 19an, zapatuan, 00:00etatik 03:00etara bitartean substantzien gaineko testa egingo dute Ai Laket! elkartekoek, Irala kalean.

Ai Laket! elkartearen gunean jendea informatzen. AILAKET!

Ai Laket! elkartearen gunea

Droga-analisiak egiteaz gain, informazioa jaso nahi duen edonorentzako ere baliagarria izango da jarriko duten gunea. Horrekin batera, alkohol proba egiteko aukera izango da, pertsonaren benetako maila etilikoa jakiteko eta kontsumo horren ondorioei buruz sentsibilizatzeko. Ai Laket! elkarteko Unai Perez de San Roman kideak adierazi duenez, gehien, droga legalak kontsumitzen dira: "Kafeina, tabakoa eta alkohola dira ohikoenak; bestalde, kalamua ere asko analizatzen dugu, eta, droga gogorragoetan zentratuz, speeda da Euskal Herrian gehien analizatzen duguna".

'Edan?, Hartu?, Hausnartu?!'

Jai ereduaren inguruko hausnarketa bultzatzeko helburuarekin, leloa eta bertsoa prestatu du Udalak. Leloa honako hau da: *Edan?, Hartu?, Hausnartu?!* Eta bertsoa, berriz, hauxe: *Parranda egitean, dantzan zein hitzezko, izan ditzadan zenbait une umorezko, marra txuri, pilula, kalimotxo fresko…, Aukerako zaituztet, ez derrigorrezko!*

Pentekoste jaietan ere, prebentzioa

Bergarako Udaleko Droga Mendekotasunen Prebentziorako Sailak hainbat neurri bultzatu nahi ditu, alkoholaren eta bestelako drogen kontsumoak dituen arriskuen prebentzio neurriak hartzeko. Sentsibilizazio modura, taberna eta merkatarien artean adikzioen legeak dioena gogorarazi dute, kartelak banatu dituzte komertzioetan jartzeko, gurasoen artean eskutitzak banatu dituzte… Eskuhartze modura, bestalde, adingabeen artean arriskuak gutxitzeko, *Botiltzarra* programa jarri dute abian, gazteekin kalean bertan landuko dute gaia, arriskuak gutxitzeko pautak emango dizkiete…

GARRAILAN 97
ZERBITZU eta GARRAIOAK
Bergararrokin **20 urtean** lanean.
Matxiategi 36, Bergara • 943 76 90 83 • garrailan@garrailan.com
Aholkularitza zerbitzuak:
- Fiskala
- Laborala
- Kontablea
- Erakundeekin tramiteak
- ERRENTA AITORPENAK...
Zorionak, bergarar guztioi!

autopullmans Araba
Ondo pasa jaiak!
Angiozar 3-1 BERGARA • Tel.: 943 76 55 70 - 686 47 68 52
www.arababusbergara.com • info@arababusbergara.com

"Ikuskizunaz gozatzera animatzen ditut guztiak"

EDU MURUAMENDIARAZ KOREOGRAFO ETA ZUZENDARIA

Aukeran dantza konpainiako koreografo eta zuzendaria da Edu Muruamendiaraz bergararra; Pentekoste jaietan, konpainiaren azken lana egongo da ikusgai, frontoian

Edu Muruamendiaraz, Bergaran. IMANOL SORIANO

Eneko Azurmendi BERGARA

Aukeran dantza konpainiak *Aukeran 20 urte* ikuskizuna eskainiko du maiatzaren 20an Bergarako frontoian, 22:00etan. Sarrera doan da.

***Aukeran 20 urte* izeneko ikuskizuna eskainiko duzue. Nolako emanaldia da?**

1997an sortu zen Aukeran dantza konpainia, eta, 20. urteurrena ospatzeko, ikuskizun hau osatu genuen iaz, 2017an. Urte hauetan guztietan egin ditugun zenbait koreografia agertuko dira, hainbat aldaketarekin. Horiez gain, koreografia berriak ere eskaintzen ditu ikuskizunak.

Hogei urteotan egin duzuen ibilbidearen bilakaera moduko bat da?

Ez nuke esango. Azken finean, koreografia esanguratsuenak aukeratu ditugu, eta moldatu egin ditugu ikuskizun honetarako. Baina ez du hogei urteotako ibilbidea deskribatzen.

Zuzeneko musika ere badauka emanaldi berri honek, ezta?

Hala da, bai. Zuzeneko musikarekin uztartzen ditugu dantzak, eta goi mailako musikariak dira, gainera: Mixel Ducau izango da musika zuzendaria eta Xabier Solano, Xabier Zeberio eta Iñigo Egia ere izango ditugu.

Zuen emanaldietan ohikoa da zuzeneko musika?

Lehenengo urteetan, zuzeneko musikarekin hasi ginen, baina esfortzu handia dakar horrek, bai ekonomikoki, baita estruktura aldetik ere, eta grabatutako musikara pasatu ginen. Edozelan ere, urteurren hau behar bezala ospatzeko, zuzenekora itzuli gara.

Ohorea izango da halako musikariekin oholtza partekatzea.

Bai; zorte handia eduki dugu, eta, guretzat, ohore handia da maila honetako musikariekin aritu ahal izatea. Izan ere, ikuskizunaren parte garrantzitsu bat da musika.

Zenbat pertsonak osatzen dute ikuskizuna?

Dantzariak eta musikariak batuta, hogei bat kide egongo gara oholtza gainean.

"GURETZAT, OHORE HANDIA DA MAILA HONETAKO MUSIKARIEKIN ARITU AHAL IZATEA"

Joan den azaroaren estreinatu zenuten *Aukeran 20 urte*, Victoria Eugenia antzokian.

Bai. Esan dizudan moduan, urteurrenaren harira sortu genuen ikuskizun hau, eta hiru aldiz eskaini dugu. Donostian estreinatu genuen eta Bilbon eta Irunen ere egon gara. Bergarakoa laugarrena izango da.

Eta ze erantzun izan duzue orain arteko emanaldietan?

Ikaragarria. Aretoak bete egin ditugu eta jendeak zoriondu egin gaitu. Ikuskizunak maila izugarria daukala esan digute behin eta berriz. Zuzeneko musikak balio erantsi bat ematen dio, eta koreografiek kutsu ezberdina dute. Nabaritzen da hogei urte daramatzagula batera. Ondo ezagutzen dugu elkar, eta ikuskizunean ondo baino hobeto islatzen da hori.

"ONDO EZAGUTZEN DUGU ELKAR, ETA IKUSKIZUNEAN ONDO BAINO HOBETO ISLATZEN DA HORI"

Ikus-entzunezko muntaia ere azpimarratzekoa da, ezta?

Zalantzarik gabe. Jesus Mari Lazkanok koadro bat egin zigun 20. urteurrena ospatzeko, eta koadro horretan oinarritzen da emanaldia. Leitmotiva koadro hori da, ezinbestekoa, eta horren baitan egiten den ikus-entzunezko muntaiak istorioa ehuntzen laguntzen du.

Ainhoa Aierbe da eszena zuzendaria. Zein izango da haren zeregina?

Hein batean, hark gidatzen du ikuskizuna, hark garamatza alde batera eta bestera.

Nola salduko zenuke *Aukeran 20 urte?* Zer nabarmenduko zenuke?

Ez da Aukeran dantza konpainiaren ohiko emanaldi bat izango. Betiko estiloa mantendu dugu, baina ikuskizun honek maila bat gehiago duela esango nuke. Orain arte, behintzat, jendeari asko gustatu zaio, eta zerbaitegatik izango da hori. Ordu eta erdi inguruko ikuskizuna da, oso dinamikoa; dena jarraian doa, etenik gabe.

Bergararrei frontoira joateko dei egiten diezu, beraz.

Noski. Seguru gustatuko zaiela, eta herritar guztiak animatzen ditut ikuskizunaz gozatzera.

Konpainiari dagokionez, zein egoeratan dago gaur egun?

Oso egoera osasuntsuan gaude. 2017koa eromena izan da. Ikuskizun asko eskaini ditugu, toki askotan egon gara, eta, hogei urteren ostean, merkatuan izen bat daukagula esango nuke.

Aurrera begira, beste proiekturik baduzue esku artean?

Orain, proiektu honekin zentratuta gaude buru-belarri eta horri eutsi nahi diogu. Baina aurrera begira badugu proiektu potolo bat, datorren urterako edo. Hala ere, oraindik ezin dugu ezer aurreratu.

EGUBAKOITZA 18

Bergarako Musika Banda
Kalejira, 20:00etan.
Egubakoitzean, eztanda egingo du jaiak Bergaran, eta jarraian, Bergarako Musika Bandarekin kalejira egiteko aukera egongo da.

'Dantzateke' dantzaldia
Seminarioko karpan, 22:00etan.
Gaztetxoek dantzatzeko aukera ederra izango dute Zirika Zirkus-ko kideek eskainiko duten emanaldian.

Nomadak eta Garilak 26
San Martin plazan, 22:30ean.
Lehengo Emon taldearen errautsetatik eraikitako Nomadak Bergarako talde berriak festa doinuz girotuko du plaza. Trikitia, tronboia, tronpetak, gitarra eta sintetizadoreak uztartzen dituzte bergararrek.

Ostean, trikitia, alboka eta gitarra doinuak uztartzen dituen Garilak 26 bandaren emanaldia ere egongo da.

Ttek elektrotxaranga
Txosnetan, arratsaldean zehar.
Kaleko jai giroa pizten dagoeneko adituak dira Ttek elektrotxarangako kideak.

Anita Parker eta Sofa
Txosnetan, 23:00etan.
Iaz Arrasaten sorturiko Anita Parker taldeak elektroswing kutsua duen eta taldearen izen berbera daraman aurreneko lana aurkeztuko du txosnagunean.

Gainera, Sofa taldea osatzen duen Zarauzko eta Zumaiako hirukote instrumentalak ere eskainiko du kontzertua.

Gatibu osatzen duten lau musikariak. GATIBU

Musika aukera zabal-zabala

Urtero moduan, musikaz blai etorriko dira aurten ere Bergaran Pazkoetako jaiak. Izan ere, adin guztietarako eskaintza izango da, eta bergararrek estilo askotariko emanaldiez gozatzeko aukera izango dute herriko hainbat txokotan

Arnita Parker, zuzenean. GOIENA

Oihan Vegaren disko-festa. GOIENA

Liher taldeko kideak. LIHER TALDEA

Maio eta Alvvak DJak
Txosnetan, 02:00etan.
Elektronika doinuek ere tokia izango dute txosnagunean, Maio eta Alvvak DJekin.

ZAPATUA 19

Kalejira Bergaran zehar
Herrian zehar, 10:00etan.
Dianarekin batera kalera irtengo dira, goizeko hamarretan, Bolutik Bergarako Txistulari Banda, Labergaraietatik Bergarako trikitilariak eta Oxirondotik Elgoibarko dultzaineroak. Herriko plazan elkartuko dira guztiak eta Mizpirualdera egingo dute bisita.

Gatibu
San Martin plazan, 22:30ean.
Alex Sarduik gidatutako taldeak bere azken laneko kantuak aurkeztuko ditu herriko plazan. Hain zuzen, *Aske maitte, aske bizi* disko arrakastatsuko doinuak eta aurreko lanetako abesti esanguratsuenak eskainiko dituzte.

Nogen eta Atom Rhumba
Txosnetan, 23:30ean.
Donostiako Nogen musika bandak folk-pop doinuak eskainiko ditu txosnetan. Iaz, hain zuzen, *LYS* izeneko EP bat atera zuten, abestietan euskara eta ingelesa uztartuz.

Bilboko Atom Rhumba taldeak, bestalde, bere rock estilo eklektikoa eskainiko du. Zazpi urte lan berririk kaleratu gabe egon ostean, iaz, *Cosmic Lexicon* diskoa kaleratu zuten.

Gorpuzkingz eta Ttun Ttun Brigade
Txosnetan, 02:00etan.
Euskaraz abestutako traparen aitzindaria da Gorpuzkingz taldea, eta kritika onak jaso ostean izango da Bergaran.

Ostean, Bergarako Ttun Tun Brigadek pop-elektroniko doinuak eskainiko ditu.

DOMEKA 20

Bergarako Musika Banda
Espoloian, 12:30ean.
Urtero eskaintzen duten moduan, kontzertu berezia eskainiko dute musika bandako kideek.

'Munduan berbena'
Txosnetan, 18:00ean.
Ikuskizun parte-hartzailea eskaintzen duen *Munduan berbena* izango da arratsaldean txosnetan.

Audience
Txosnetan, 19:30ean.
Iaz, *Isla* lana aurkeztu zuen Gernikako taldeak. Rock, country eta blues doinuak uztartzen dituzte bizkaitarrek.

ASTELEHENA 21

Kantu Kolore
San Martin plazan, 19:00etan.
Haurrendako erromeria eskainiko du *Far West* ikuskizunarekin.

Laket
Txosnetan, 20:00etan.
Erromeria, Laketen eskutik.

La Pasarela orkestra
Espoloian, 23:00etan.
Camp dantzaldia eskainiko du La Pasarela orkestrak.

Ilargi Beltza
San Martin plazan, 23:00etan.
Dantzarako aukera egongo da Ilargi Beltza taldeak eskainiko duen erromerian.

Liher, Band Sound System eta Narbai
Txosnetan, 23:00etan.
Lide Hernando musikariak gidatutako Liher taldeak emanaldia eskainiko du txosnetan. Duela bi urte *Hauts* lanarekin arrakasta izan ostean, *Tenpluak erre* izeneko bigarren lana aurkeztuko dute donostiarrek Bergaran.

Ondoren, Bad Sound System Irungo taldeak eta Narbai DJak girotuko dute gaua.

Nomadak talde bergararra. GOIENA

Anje Duhalde, zuzenean, Oñatin. GOIENA

Audience taldea. GOIENA

MARTITZENA 22

Los Tenampas
Irala kalean, 13:00etan.
Mexikoko kantuekin girotuko dute Irala kalea mariatxiek.

Anje Duhalde
Txosnetan, 19:00etan.
Musikari lapurtarraren ibilbideko kantu ezagunenekin gozatzeko aukera egongo da txosnetan.

Oihan Vega
San Martin plazan, 20:00etan.
DJ festa eskainiko du bergararrak arratsaldean, eta, Bitorianatxoren igoeraren ostean, Oihan Vegak plaza girotzen jarraituko du.

construcciones Goitu eraikuntzak S.L.
Ondo pasa jaiak!
• Eraikuntza orokorra • Fatxadak • Teilatua
• Terrazak • Birgaitze orokorra • Baserriak
• Unifamiliarrak • Pabilioiak • Proiektoak...
Tel.: 943 76 11 23 - Faxa: 943 76 30 41 | Masterreka 14-16 / 20570 BERGARA (Gipuzkoa)
goitu@grupogoitu.com | www.grupogoitu.com

iBARRALDE
Administrazio zerbitzuak SL
• Fiskalak
• Laboralak
• Kontableak
• Finken administrazio zerbitzua
Ondo pasa jaiak!
25.068 kolegiatu zenbakia
Ibargarai 30 BERGARA
Tel.: 943 76 52 88 - Faxa: 943 76 25 64

Nola ospatuko dituzu Pentekosteak?

IÑIGO ALMORTZA

"Jaiak lan egiten pasatuko ditut. Zezenekin gora eta behera errekortadoreak direla eta. Lana bai, baina gustukoa; hala ez balitz, ez genuke egingo. Horrez gain, jaietako beste hainbat ekitalditan ere izango gara ondo pasatzeko asmoz. Lehengo garaiko jaiekin alderatuz, elkarlana falta dela esango nuke; denok batuta jai hobeak antolatuko genituzkeela uste dut".

JON ALTUNA

"Egubakoitza izaten da, nire ustez, egunik onena. Jende guztia fresko dagoelako, akaso… Lagunok afaria egiten dugu, eta gero, parranda. Horrez gain, zapatu eguerdiko presoen aldeko bazkarira joatea ere asko gustatzen zait, nahiz eta ajearekin joan. Astelehena egun ona dela esango nuke, Kuadrillen Eguna da, eta, kanpoan bizi naizen arren, saiatuko naiz joaten".

BILAITZ MARZAN

"Jaietan gustukoen dudana herriko giroa da, kaleko giroa. Egunero irtengo gara pixka bat; behintzat, buelta bat ematera. Egitarauari dagokionez, bestalde, Bitorianatxoren jaitsiera gogoko dut, eta erraldoien egunean egoten den giroa ere ederra da. Horrez gain, asteleheneko herri bazkaria oso ondo egoten da, eta aurten, Gatiburen kontzertuan giro aparta izango da".

MIKEL AGINAGALDE

"Aurten ez naiz egongo Pentekoste jaietan nahi bezain beste. Astelehena egun handia izaten da, eta ea egun horretan bertan izateko aukera dudan. Hainbat urtetan, Nebulosa dantzaldi-show ikuskizuna eman izan ohi dugu, eta aurten ez gara egongo; izan ere, taldekideak beste hainbat proiektutan ari gara… Hala ere, egitarauan dauden emanaldiak ikustera gerturatuko gara".

AINHOA NARBAIZA

"Bergarako Pentekoste jaiak kontzertu eta musika giroan, konpainia onean eta dantzan ospatuko ditut. Parranda eta ardo apur bat ere ezin falta. Bestalde, urtero-urtero txosnagunean egitarau herrikoi bat izateko egiten den ahalegina handia izaten dela uste dut. Beste urte batzuetatik hona, jauzi kualitatibo handia egin dela uste dut".

DINA HAQUIESA

"Betiko moduan, jaietan ondo pasatzeko asmoa dut. Lagunekin egon, bazkaria, umearekin barraketara… Edozelan ere, lan egin beharra daukat. Horrez gain, kontzertuetara joango naiz, eta ahal dugun ondoen aprobetxatzea izango da aurtengo asmoa, urtero bezala. Bestalde, egitaraua ederra prestatu dutela uste dut; horrenbestez, bikain joango dira jaiak".

alet
BERGARA
www.alet-taldea.com
Tel.: 620 56 13 16
669 36 69 53
Ingenieritza eta Instalakuntza
Energia fotovoltaikoa • Energia Termikoa • Geotermia
Biomasa • Zoru Erradiatzailea • Biomasa galdaratan aukera zabala
BERRIA: Pellet eta egurrezko galdara mistoak jartzen ditugu.
Aerotermia eta aire berriztapenean adituak.
Ondo pasau jaixetan!

"Komertzio txikirik gabe, kalea hil egingo litzateke"

Bedelkar elkarteak 25 urte bete dituela ospatzeko jai berezia egingo dute bihar Espoloian, 19:00etatik 23:00etara: "Ospakizunaren helburua da bergararrei esker ona adieraztea, eta komertzio txikirik gabe kalea hil egingo litzatekeela gogora ekartzea"

Etxenagusia taberna zena, Bidekurutzeta kaleko 5. zenbakian. BEDELKAR

Jokin Bereziartua BERGARA

1993ko uztailean Bedelkar merkataritza elkartea izango zena eratzeko batzarra egin zenetik 25 urte pasatu dira, eta urteurren borobila aprobetxatu gura izan du zuzendaritzak Espoloian jai berezia egiteko. "Ez da arroparik jarriko salgai, ez da moda desfilerik egongo... Baina horrek ez du esan nahi girorik ez denik egongo. Bergararrei esker ona adierazteko jaia izango da, hori izango da ospakizunaren helburu nagusia. Horrez gain, komertzio txikirik gabe kalea hilda egongo litzatekeela gogora ekarriko dugu", dio elkarteko presidente Maitane Azkaratek.

Euririk ez egiteko itxaropena

Bedelkarrek erronka handiak izango ditu beste 25 urte bete ahal izateko. Duela 25 urte merkataritza-gune handien hedapenarengatik sortu zen, besteak beste, elkartea bera, eta mehatxu horrek bizirik dirau oraindik. Edozelan ere, *online* erosketak dira gaur egungo komertzio txikiaren etsai nagusiak.

Espoloiko ospakizunari dagokionez, zerura begira egongo dira antolatzaileek, euria dagoeta iragarrita. Euria egiten badu, agertokia arkupeetan jarri beharko dute, eta horrek nabarmen desitxuratuko luke jaia. 19:00etan, aurkezpen txiki bat egingo dute; gero, DJ Elvis Cainok musika jarriko du –festa osoan zehar ibiliko da lan horretan–; 20:00etan hasiko da Mery May musikari arrasatearra eta Maitane Azkarate bera protagonista izango dituen taldearen kontzertua; 21:30 aldera egingo dute zozketa –maiatzaren 1etik bihar arte Bedelkarreko dendetan erosketaren bat egin dutenen artean, eta irabazleak 300 euroko abonua jasoko du–; ondoren, 25 urteotako errepasoa jasotzen duen bideo bat erakutsiko dute; eta, jaia borobiltzeko, Azkaiter Peloxen kontzertua egongo da.

NIRE USTEZ

ANDER BOLIBAR

1,5 abiadura

Gero eta ohikoagoa da 1,5 abiadura baliatzea ikus-entzunezkoak kontsumitzerakoan. Podfaster ezizenarekin bataiatu dira kontsumitzaile aseezinak. Oso gazteen joera bat bezala ezagutu badugu ere, arreta partzial jarraitua, irakurketa diagonala, presaren preso bizitzea eta lasaitasunik eza gure garaiko pandemia orokorrak dira dagoeneko. Bizitzako hiru denboraldi biren denboran ikusteko irrikak bizi gaitu. Oporren biharamunean lagunari esan nion: "Tope deskantsatzera bai". Ederra oximoroia. Denbora hutsuneek ere estresatzen gaituzte dagoeneko. Etengabe garuna estimulatze honek lotura zuzena du gure jakiak kontsumitzeko ohitura, eta elikadurari eskaintzen diogun denborarekin. Erritmo hau zalantzan jartzeko dugunok elkartzeko proiektu berezi batek sustraiak botako ditu hurrengo egunetan Bergaran. Ereindajan Bertako Elikagaien Topaguneak denda irekiko du gure herrian. Zortekoak gu. Ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko harreman justuago bat naturalizatzeaz gain, bertako eta garaiko elikagaien topaguneak gure erritmoa iraultzeko hiru aukera eskainiko dizkigu egunero. Poliki gozatzeko eta galdera berriak ereiteko ordua iritsi zaigu.

Ereindajan denda-topagune berria posible egin dutenetako batzuk *Zapaterikua* zenaren barruan lanean. JOKIN BEREZIARTUA

Ereiten eta jaten segitzeko ilusioz

Ereindajan denda-topagune berria inauguratuko dute domekan 'Zapaterikua'-n eta astelehenetik aurrera martxan egongo da goizez zein arratsaldez; 150 bazkide dituzte, eta edozein bergararrek erosi ahalko du bertan: "Etorri eta ezagutu lehen pertsonan"

Jokin Bereziartua BERGARA

Domekan inauguratuko dute Ereindajan denda-topagune berria (19:00). Joan XXIII.a plazan egongo da aurrerantzean, *Zapaterikua* moduan ezaguna zen lekuan. Ekitaldirik ez da izango, "zerbait xumea" baizik. "Urtebetean asko izan gara modu baten edo bestean proiektuaren bueltan ibili garenak: logistika kontuak kudeatzen, lokala atontzen, komunikazio lanak egiten... Horiekin guztiekin, bazkideekin eta interesa duen ororekin ospatu nahi dugu proiektuaren fase berri baten hasiera. Zerbait xumea izango da: jan-edan pixka bat eta giro ona!", diote.

'0 kilometro' filosofia

Lau ezaugarri nagusi ditu Ereindajan proiektuak: bertakoa, bailarako ekoizleak eta "kalitatezko produktuak" direlako oinarria; osasuntsua, gehigarririk gabeko sasoian sasoiko produktuak direlako herritarren eskura jartzen direnak; justua, prezioak "justuak" direlako ekoizleendako eta "arrazoizkoak" kontsumitzaileendako; eta kooperatiboa, proiektuak elkarlana duelako oinarri.

Ereindajanen arabera, Euskal Herrian jaten dugunaren %4 besterik ez da hemen ekoiztutakoa: "Jaten ditugun produktuek milaka kilometro egiten dituzte gure platerera iristeko; bidean uzten dituzte petrolio tonak, eta produktuen kalitatea zalantzagarria izaten da kasu gehienetan". *0 kilometro* filosofiaren bueltan

LAU EZAUGARRI DITU EREINDAJANEK: BERTAKOA, OSASUNTSUA, JUSTUA ETA KOOPERATIBOA

kokatzen da Ereindajan, eta ezinbestekotzat jotzen du Euskal Herriko elikagaiak herritarren eskura jartzen dituzten proiektuen sorrera. Hori guztia, betiere, modu justu eta osasuntsuan: harreman justuak eraikiz eta agroekologia oinarri hartuz.

Egoera horren aurrean, diotenez, Euskal Herrian "asko" dira bertan ekoiztu, bertan jan filosofia bultzatzen ari diren proiektuak, gorputzen eta lurren osasuna defendatzeko. Eskoletako jangelak bertako produktuekin hornitzeko mugimenduak, kontsumotaldeak, baserritarren kolektiboak eta Ereindajan bera moduko egitasmoak aipatu dituzte.

Eskaintza zabala eta neurrira

"Oinarrizko beharrak" asetzeko moduko gunea da Ereindajan, eta eskaintza zabalik ez da faltako denda-topagune berrian: barazki freskoak, fruta, gozoak, esnekiak, belarrak, haziak, askotariko kontserbak, zerealak, pastak, garbiketa-produktuak, edariak, arrautzak, olioa, haragia, lekaleak, irinak, zizka-mizkak, bidezko-merkataritzako produktuak... "Produktu gehienak neurrira eskuratzeko aukera dago, hau da, soltean. Sistema horrek aukera ematen du erosketa etxe bakoitzeko beharretara egokitzeko, eta baita zabor gutxiago sortzeko ere", gaineratu dute.

BAZKIDEAK DIRA PROIEKTUAREN ZUTABEA, BAINA EROSKETAK EDONORK EGIN DITZAKE BERTAN

"Ezagutu lehen pertsonan"

Proiektuko arduradunek argi utzi gura izan dute gune irekia dela eta edonork eros dezakeela bertan: "Edonor etor dadila denda ezagutzera lehen pertsonan, besoak zabalik hartuko ditugu bergarar guztiak". Hori bai, bazkideak dira Ereindajanen zutabea.

"30 bat lagun ari gara auzolan etengabean"


I.S.

AITZIBER PLAZAOLA OREGI
EREINDAJAN PROIEKTUKO KIDEA

Nolakoak ari dira izaten irekiera aurreko egunak?
Zoramen hutsa. Lokalari azken ukituak ematen dihardugu, irekitzen dugunean txukun-txukun egon dadin. Bestetik, biltegia produktuz betetzen ari gara: ekoizle guztiekin zuzeneko harremana egiten, produktuak ezagutzen... Furgoneta hartu eta Nafarroako Erriberara ere jaitsi gara; olioa, ardoa eta kontserbak ekarri ditugu. Lan handia da, baina prozesua oso polita ari da izaten. 30 lagun inguru ari gara auzolan etengabean; giro ederra sortu da, eta ilusioz dihardugu.

Zer dakar proiektuko bazkide izateak?
Debagoieneko lehen sektorea babestea eta tokiko garapenaren alde egitea. Urtean 50 euroko kuota ordainduta, abantailak izango dituzte: %5eko deskontua erosketa guztietan, lehentasuna eskari bidezko produktuetan eta hitza, informazioa eta erabakia kooperatibaren jardunean.

Lokala gertu, eta 150 bazkidetik gora

Bazkideak erakartzeko postua. J. A.

Ereindajan denda-topagune berria Joan XXIII.a plazan egongo da, *Zapaterikua*-n: "Bergarar askok oroitzen dute garai batean lokal honetan egon zen *Zapaterikua* denda. Xarma berezia du lekuak, eta uste dugu ederra dela komertzio txiki bat izan zena berritu eta halako proiektu baten bilakatzea". Astelehenetik egubakoitzera –09:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 20:00etara– eta zapatuetan –09:00etatik 13:30era– egongo da zabalik.

Herrian ikusmina piztu du Ereindajan denda-topaguneak eta horren adierazle da dagoeneko 150 bazkidetik gora lortu dituztela: "Harrituta gaude proiektuak herritarrengan izan duen harrera bikainarekin. Kalean asko hitz egiten da Ereindajanez, eta jendeak badu kuriositatea. Etor daitezela dendara eta ezagutu dezatela proiektua lehen pertsonan, gustura azalduko diegu-eta".

"Beldurrak desmitifikatu eta gainditu behar ditugu"

NAROA ARGOITIA IÑURRITA EMAGIN ELKARTE FEMINISTAKO KIDEA

Autodefentsa feminista ikastaroa emango dute, doan, bihar, Agorrosinen (10:00-14:00); gaur da izena emateko azken eguna: 'berdintasuna@bergara.eus' edo 943 77 91 55

Jokin Bereziartua BERGARA

Ikastarorako taldea osatu berri dela erantzun ditu Naroa Argoitia Iñurritak GOIENAren galderak, luze eta zabal.

Zer lantzen duzue tailer horietan?

Indarkeria matxista bere osotasunean. Biolentziaren icebergaren kontzeptuaz aritzen gara, bereziki; icebergaren puntan eraso fisikoak, erailketak eta bortxaketak badaude ere, guk bereziki azaltzen duguna da hori sostengatzen edo posible egiten duen kultura oso bat dagoela. Indarkeria mota guztiak identifikatzen saiatzen gara, eta horiek gure bizitzetan duten eragina ikusarazten. Hortik abiatzen gara indarkeria matxistari aurre egingo dioten erreminta kolektiboak bilatzeko.

Zein da kultura horren oinarria?

Emakume bezala hezi gaituztenean, beti izan da beldurraren aldagaia sozializazio prozesurako gakoetako bat. Txikitatik, beldurra izaten irakatsi digute, gauza asko egiteko beldurra. Autodefentsa feminista ikastaroaren helburuetako bat da, hain justu, beldurra dagokion lekuan kokatzea. Ez dezala izan beldurrak nonahikotasunik gure bizitzetan; gure zaintzarako beldur kuota mantendu bai, baina gainerako beldurrak desmitifikatzen joan beharra dugu. Izan ere, gure askatasuna eta ongizatea asko mugatzen ditu beldur horiekin bizitzeak.

***Autodefentsa feministaren* kontzeptua xehatzen hasita. Zergatik behar du *auto* izan behar?**

Ideia da indibidualki zein kolektiboki defendatzea. Hasteko, nor bere buruarekin, eta gero, emakumeok gure artean. Beti irakatsi digute biktimaren papera betetzea, geure burua defendatzeko gai ez garela esan izan digute. Esan digute defendatu egin behar gaituztela: lehenengo, aitak; gero, senarrak; edo politika paternalistetan oinarritzen den gobernuak...

Naroa Argoitia Iñurrita, artxiboko argazki batean. EMAGIN

"ASKOK ESAN OHI DUTE INDAR BEREZI BATEKIN IRTETEN DIRELA; OSO SAIO EMANKORRAK DIRA"

Ideia horri buelta eman nahi diogu eta emakumea aldarrikatzen dugu subjektu moduan. Ahalduntze bat bilatzen dugu autodefentsa saio hauetan, hots, kolektibo moduan estrategiak hartu eta gure buruak defendatzeko erremintak jorratzeko.

Zergatik *defentsa* hitza? Zergatik dago defendatu beharra?

Ulertzen dugulako egunerokoan hainbat eta hainbat eraso jasaten ditugula. Horietako asko ez dira eraso moduan identifikatzen; kulturalki horren naturalizatuak dauden gure gorputzaren, izaeraren eta bizimoduaren gaineko komentarioak, txisteak... Guk diogu horiek erasoak direla, gure ongizatea eta duintasuna kolokan jartzen dutelako. Publizitatea da adibide garbia: emakumea ia beti agertzen da gizonaren menpeko rolean. Emakumeak bere burua menpeko ikusten badu publizitatean, rol horiek erreproduzitu ditu bere egunerokoan. Bi hitzetan: eguneroko erasoen aurrean defendatzeko beharra sentitzen dugu.

Eta, zergatik *feminista?*

Feminismoak balio justuagoetan oinarritutako harremanak lantzen dituelako. Jendarte justuago baterako ezinbesteko ikusten dugu emakumeok ahalduntzea, beldurrak gainditu eta beste era batera harremantzen hastea. Gizonek ere euren bidea egin behar dutelako, jarrera ez zapaltzaileak garatu behar dituztelako. Indarkeria matxistarena egiturazko arazoa da eta horri buelta emateko proposamena dira saioak.

Lehen aldiz parte hartzen dutenak nola irten ohi dira saiotik?

Gehienek esaten dute indar berezi bat sentitzen dutela aurrez sentitzen ez zutena, defendatzeko gai ikusten dutela euren burua. Gainera, askok komentatzen dute nolako harreman politak eta sendagarriak sortzen diren halako espazio intimoetan eta seguruetan gaudenean, eta baita indarkeriarekiko ikuspegia ireki zaiela ere. Neska gaztetxoei erasoa identifikatzen laguntzen die bereziki; oso saio emankorrak dira.

Euskaraldirako batzordea eratu gura dugu maiatzaren 15ean

Irizar jauregian egingo dugu batzarra (18:30); eragile eta norbanakoendako, ateak parez pare ditugu zabalik!

Goiena komunitatea

Jardun euskara elkartea / BERGARA

Martxoaren 26ko osoko bilkuran udalbatzak aho batez onartu zuen Bergara herri moduan Euskaraldia ekimenera batzea, eta Udalarekin batera hitzarmena sinatu genuen Euskaraldiaren bueltan antolatuko diren ekintzak bideratzeko. Batzordea osatzeke dugu, eta bergararrei dei egiten diegu martitzenean, maiatzak 15, Irizar jauregian egingo dugun batzarrera etor daitezen (18:30). Egun horretan batzordea osatzea da helburua, eta hortik aurrera martxan jarriko gara, badago-eta zer antolatu. Laguntzeko gertu dauden eragileendako eta norbanakoendako, ateak parez pare ditugu zabalik!

Esaldi eta zapi lehiaketa

Bestalde, jaietarako zapiek badute marrazkia eta esaldia; bi zapi ezberdin aterako dira aurten, lehenengo aldiz: bata, betiko zapia; eta bestea, berriz, haurrendako eta gaztetxoendako, txikiagoa. Bi zapiek honako esaldi hau izango dute: *Aho bizi, euskaraz bizi!*

GORA ETA BEHERA

I.S.

Plastikozko poltsak organikoaren lekuan

Herritar batek goiko argazkiaren bidez sare sozialetan salatu duenez, organikoarendako edukiontzi marroian plastikozko poltsak daude. "Zertarako bost edukiontzi?", galdegin du.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? *berriak@goiena.eus* edo 688 69 00 07.

Gaur da azken eguna udaleku irekietan izena emateko

Uztailaren 2tik 27ra egingo dira udaleku irekiak –hiru astez parte hartzeko aukera ere badago–, eta gaur da izena emateko azken eguna. Liburutegia 20:30ak arte egongo da zabalik –orria beteta eta bankuko ordainagiria eraman beharko dira–, eta Udalaren webguneko udalekuen atarian ere badago da aukera. Bihartik aurrera ez da eskaerarik onartuko.

OHARRAK

Herri Urrats: autobusa

Domekan Senperen egingo den Herri Urratserako autobusa Ibargaraiko geltokitik 09:15ean irtengo da eta Senperetik 19:00etan itzuli.

OHZ ordaintzeko epea

Ondasun Higiezinen gaineko Zerga (IBI) ordaintzeko epea maiatzaren 2tik uztailaren 2ra artekoa izango da. Argibide gehiagorako: 943 77 91 64.

Iaz Bizkaian egindako emanaldian, Egaña eta Arzallus bertsolari lanetan. TWITTER

Zientzia plazara aterako dute bertsoarekin lotuta

Bergarako Udalak beste eragile batzuekin elkarlanean antolatu duen emanaldia doan izango da. Hala ere, aurrez eskuratu beharko dira gonbidapenak, Seminarixoko txarteldegian; emanaldia hasi baino ordubete lehenago zabalduko dute

Arantzazu Ezkibel BERGARA

Lehenengo begiratuan, zientziak eta bertsolaritzak zerikusirik ez dutela esango dute askok. Bada, hain justu ere, bi diziplina horiek batuko dituzte datorren astean Seminarixoan. *Jakinduriek mundue erreko dau* bertso ikuskizuna eskainiko dute. Bertsolariak Andoni Egaña eta Miren Amuriza izango dira. Hizlariak, berriz, Ainara Sangroniz, Txoni Matxiain eta Gorka Azkune. Eta aurkezle lanetan, Anjel Alkain ibiliko da.

Antolatzaileek azaldu dutenez, Bertsozientzia izenez ezagutzen den ekimenak "itxuraz elkarrengandik urrun dauden bi diziplina elkartu nahi ditu".

Adimen artifiziala

Hiru zientzialariek aurrez zehaztutako gai bati buruz berba egingo dute. EHUko zientziaren dibulgaziorako arduradun Uxune Martinezek dio ezin dituztela gaiak aurreratu, "bertsolariei pistarik ez emateko".

Ainara Sangroniz kimikaria da, Txoni Matxiain kimikari kuantikoa eta Gorka Azkune informatikara, adimen artifizialean aditua. "Azkunek, adibidez, adimen artifizialaz jardungo du, robotek nolako gaitasuna duten eta gauzak zela ikasten duten azalduko du", gaineratu du.

Behin zientzialarien hitzaldiaren ostean, Alkainek lanean jarriko ditu bertsolariak.

Ikusle "jakintsuena"

Ekitaldiak bestelako sorpresak ere izango ditu. Ikusleei zuzendutako joko bat egongo da eta publikoaren jakinduria neurtuko dute. "Jakintsuenak saria eroango du", aurreratu du Martinezek. Publiko guztiari zuzendutako ekitaldia dela nabarmendu dute antolatzaileek: "Zientzia modu arin eta entretenigarrian azaltzeko eskatu diegu hizlariei: argiak izan daitezela eta hitz teknikorik ez erabiltzeko ere esan diegu", dio Martinezek. Saio informala izango dela dio, umore puntuarekin.

IKUSLEEI ZUZENDUTAKO JOKO BAT EGONGO DA, ETA IKUSLEEN JAKINDURIA NEURTUKO DUTE

Zientzia ere, plazan

Zientzia gizartetik urrun dagoen iritzia beti egon izan dela dio Martinezek. "Baina ez da horrela. Zientziak zerikusia du eguneroko gauzekin: mugikorra, osasuna, arrantza...". Horregatik, uste du jendeak zenbat eta ezagutza handiagoa izan, orduan eta samurrago hartuko dituela erabakiak.

Saio horiekin, zientzia plazara atera nahi dute: "Plazan bertsolariak egon izan dira, ba zientzia bertsoarekin batera aterako dugu plazara", dio. Sarrerak Seminarixoan eskuratu behar dira aurrez.

Zabalik dago udako futbol txapelketan izena emateko epea

Atzo egin zuten lehenengo batzarra; asmoa da maiatzaren 28ko astean ligari hasiera ematea

A.E. BERGARA

Ipintza Sumer Cup izenarekin aurkeztu dute Ipintzako futbol txapelketa. Atzo egin zuten lehenengo batzarra, eta hurrengoa maiatzaren 24an egingo dute. Bi aste horietan aukera izango dute herriko talde eta kuadrillek txapelketan izena emateko.

Emakumezkoen, gizonezkoen eta gizonezko beteranoen txapelketak izango dira. Emakumezkoek eta beteranoek zortziko futbola jokatuko dute eta gizonezkoek, aldiz, hamaikakoa.

25 minutuko bi zati

Ipintza futbol zelaian jokatuko dituzte partidu guztiak. 25 minutuko bi zati izango ditu partiduak, maila guztietan.

Lehenengo, liga erara jokatuko dute. Liga horrek bereiziko ditu taldeak mailaren arabera; hala, sailkapeneko lehenengo postuetan geratzen direnek txapeldunen liga jokatuko dute eta azkeneko postuetan geratzen direnek, kopa. Azken fase hori kanporaketa erara jokatuko dute.

Marrazain lanak

Izena eman nahi duenak 660 10 36 40 telefono zenbakira deitu beharko du eta 15 euro ordaindu beharko ditu jokalari bakoitzeko. Jokatzeaz gain –partidura agertzen ez den taldeak zigorra izango du–, taldeek marrazain lanak egiteko ardura ere izango dute –egiten ez dutenak zigortuak izango dira–.

Iaz ez zuten emakumezkoen talderik atera; horregatik, aurten parte hartu ahal izateko adina jaitsi egin dute, 14 urtera, eta federatu kopuruaren muga ere aldatu egingo dute. Asmoa da txapelketako finalak uztail hasieran jokatzea.

Bergara Hiria txapelketak baditu hiru finalista

Martitzenean izandako pilota partiduek dagoeneko utzi dituzte hainbat finalista. Maiatzaren 21ean jokatuko diren finaletan egongo diren bikote batzuk dira: emakumezkoetan, M. Larrarte eta M. Mendizabal; promes mailan, J. Osa eta Elizegi; eta nagusietan, O. Lerena eta Otadui. Martitzenean jokatuko dira beste finalerdiak.

Infantil mailako lauko finala jokatuko dute Labegaraietan

Mutiletan, Bergarako infantil mailako taldea sailkapeneko lehenengo postuan geratu da; hori horrela, Bergarako saskibaloi elkarteari dagokio lauko finala antolatzea. Zapatuan, 17:45ean, Bergara Soralucek eta Axularrek jokatuko dute; eta 19:30ean, Goierrik eta Easok. Finala domekan izango da, 18:00etan.

Txotxongiloek abesti ezagunak eroango dituzte Seminarixora

Kontu Kantari taldeak *Mendian ibiltari* haurrendako ikuskizuna eskainiko du domekan, 12:00etan, Seminarixoan. Nanu, Grani eta Kanutoren istorioak kontatuko dituzte. Txotxongilo ikuskizuna da, eta denon oroimenean dauden hamar abesti ezagun aurkeztuko dituzte. Nagusiek ahaztu ez ditzaten eta txikiek ikas ditzaten, besteak beste.

Lehenengo aldiz Euskal Herrian izango dira The Daltonz taldekoak

Maiatza gaztetxian ekimenaren barruan oi! kontzertuak izango dituzte gaur, barikua, 22:00etan. The Daltonz, Vietcong 68, Newroz eta Kaleko Urdangak taldeek emanaldia eskainiko dute. Lehen aldia da The Daltonz taldeak Euskal Herrian joko duena. Kaleko Urdangak Bergarako taldeak, aldiz, lan berria aurkeztuko du.

Ezohiko osoko bilkura, eguaztenean. ANER FERNANDEZ

Aho batez onartu dute Bolatokiaren esleipena

Bi eskatzaile aurkeztu dira esleipen prozesura, eta, proposamen biak aztertu ostean, kontratazio mahaiak Mari Carmen Salasek egindakoa hobetsi du. Eguaztenean elkartu zen udalbatza erabakia hartzeko, eta aho batez onartu zuten esleipena egitea

Larraitz Zeberio ELGETA

Mari Carmen Salasi emango dio Udalak kiroldegiaren eta Bolatoki taberna-jatetxearen ustiaketa zerbitzua. Hiru urteko kontratua izango da, beste bi urtez luzatzeko aukerarekin, eta urtean 2.400 euroko errentaren truke, BEZa barne.

"Bi interesatu aurkeztu dira eta kontratazio mahaian ikusi genuen biek betetzen zituztela baldintzak. Hala, bigarren bilera batean begiratu genituen egindako eskaintza ekonomikoak, eta baldintza orrietan jasotzen ziren ezaugarriak betetzen zituzten. Bi irizpide horiek baloratuta, eskatzaileetako batek 21,98 puntu eskuratu zituen eta besteak, 35 puntu", azaldu du Iraitz Lazkano alkateak. Azken hori Mari Carmen Salasen proposamena zen eta udalbatzak aho batez onartu zuen eguaztenean esleipena egitea.

Bolatokia zapatuan EITBn

Elgetako Bolatoki taberna, bestalde, *Historias a bocados* telebista saioan agertuko da bihar, zapatua, 20:00etan. Sorrerako urteak izango dituzte hizpide.

Jaietako kartel bila

Udalak martxan du Ferixa Nagusiko kartel lehiaketa. Lanak maiatzaren 23ra bitartean aurkez daitezke. Erakusketa egingo du jai batzordeak, eta herritarrek *Hirix* aplikazioaren bitartez emandako botoen arabera erabakiko da irabazlea. Saria ehun euro da.

Gaztelekuak antolatutako irteerak

Bosgarren mailatik gorako neska-mutikoendako bi irteera iragarri ditu gazteleku zerbitzuak. Lehenengoa hilaren 19an, zapatua, egingo dute, Donostiako Aquariumera. Taldea 09:00etan abiatuko da autobusean herriko plazatik, eta 18:30erako izango dira bueltan. Prezioak dira: hamar euro gaztelekuko erabiltzaileendako eta hogei euro gainerakoendako.

Maiatzaren 26an, berriz, Gasteizko Salburuko hezegunera egingo dute egun osoko txangoa. Autobusa 08:30ean abiatuko da Elgetatik eta itzulera 21:00etan izango da. Prezioak dira: hamabost euro gaztelekuko erabiltzaileendako eta 25 euro gainerakoendako. Udaletxean eman behar da izena, ordainagiria aurkeztuta.

ELGETAKO HERRI ESKOLA

Eskolatik Gomiztegira bisitan

Herri Eskolako hainbat ikaslek ardien eta artzainen mundua bertatik bertara ezagutzeko aukera izan zuten astelehenean. Ardien zaintzaren oinarriak erakutsi zizkieten Gomiztegi baserrian, baita gatzatua zein gazta zelan egiten diren ere. Giro paregabearekin, saien hegaldiez eta Arantzazu inguruko paisaiaz gozatzeko aukera izan zuten.

Kantu eta Dantza Eguneko bazkarirako izen-ematea zabalik

Goiena komunitatea
Herrixa Dantzan / ELGETA

Maiatzaren 20an, domeka, izango da Elgetako IV. Dantza eta Kantu Eguna. Kantu-jira, kantu-bazkaria eta Jainaga eta Narbaiza trikitilariekin egindako Herrixa Dantzan saioa iragarri dituzte antolaketa lanetan diharduten Elgeta Kantuan taldeak, Herrixa Dantzan ekimenak eta Elgetako Udalak. Kiroldegian izango da kantu-bazkaria. "Aldez aurretik izena eman eta ordaindu behar da, udaletxean bertan edo Elgetako Udalaren kontu zenbaki honetan: 30350009110090900039 —jarri izen-abizenak eta *Bazkaria*; epea: maiatzaren 15a—".

OHARRAK

'Gu ere kontalari'

Neska-mutikoak ipuin kontalari gaur, 17:00etan, Udal Liburutegian. Sarrera, irekia.

Gazte Asanblada

Gaztetxean pilatutako materiala eskuragarri gaur, 17:30ean. Interesatuek aurrez abisatu behar dute.

Mendi irteera

Domekarako Kantsatzekek familian egiteko antolatutako mendi irteera. Taldea 08:30ean abiatuko da herriko plazatik.

Podologoa

Erretiratuendako podologoa hilaren 17an. Txanda hartzeko, deitu 943 76 80 77 telefono zenbakira (Nati).

Asentzio eguneko ospakizunak domeka eguerdian

Aurten ere Asentzio eguna ospatuko dute, Elgetan. Iaz moduan, ermitaren inguruan egingo dituzte ospakizunak. 12:00etarako meza dago iragarrita ermitan, eta ondoren luntxa eta trikitilariak egongo direla iragarri dute antolatzaileek. Jatekoak eta edatekoak egongo dira putzu inguruan. Parte hartzera deitu dituzte elgetarrak.

Ibaialde erakusketa didaktikoa, atzo ezkero, buztin gelan

Erakusketaren helburua da herritarrak jabetzea ibaiek duten ingurumen balioaz, eta buztin gelan dago ikusgai, atzo ezkero. Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak garatua, bederatzi panelez osatuta dago. Urak duen funtsezko garrantzia eta ibai ingurunea sistema bizia dela azpimarratzen ditu erakusketak.

Martitzeneko ohiko osoko bilkuran, ordezkari politikoen botazioaren une bat. MAIDER ARREGI

Herriko pentsiodunen aldarrikapena aztergai

Martitzeneko ohiko osoko bilkuran hainbat mozio izan zituzten mahai gainean eztabaidagai. Baina, herriko erretiratu eta pentsiodun taldeak eroandako mozioak eztabaida piztu zuen; bertan izan zen azalpenak ematen Mikel Olabarria pentsioduna

Maider Arregi ANTZUOLA

Antzuolako erretiratu eta pentsiodunek aurkeztutako mozioa izan zen martitzeneko osoko bilkurako gai nagusia. Borondate politikoa egonez gero pentsioen arazoari irtenbidea emateko aukera badagoela defendatu zuen pentsiodunen elkarteko eta Duintasuna taldeko Mikel Olabarria ordezkariak. "Helburua da eros ahalmena errekuperatzea: pentsioak KPIaren arabera igotzea, hain zuzen. Fiskalitatea beste era batera ulertzen dugu eta aberastasuna beste era batera banatuz gero posible dela 1.080 euroko pentsio minimoa aztertu dugu".

EAJk, aldiz, mozio alternatiboa aurkeztu zuen. "1.080 euroko eskaera ez dugu posible ikusten. Sistemak gaur egun ezin dio horri erantzun. Gainera, lanbide arteko gutxieneko soldata –LGS– baino kopuru handiagoa da, eta injustizia hutsa litzateke. Gure alderdia zintzoa da, ez dugu erreala izango ez den ezer agindu gura. Kaxak ez du ematen. Guk herritarren kalitatea hobetzeko lan egingo dugu, ez dugu eskatuko posible ez dena", argitu zuen Luis Javier Telleriak.

Borondate politikoa baldin badago, sistema irauli daitekeela azpimarratu zuten EH Bilduk eta herriko pentsiodunek. "Sistemari aldaketak eta egokitzapenak eginda posible da; esaterako, iruzur fiskala saihestuz edo amnistia fiskalak ekidinez, betikoek diru gehiago izan ez dezaten; pertsona arruntak duintasunez bizitzeko eskubidea bermatu gura dugu".

EH Bilduren aldeko botoekin onartua geratu da herriko pentsiodunek eta erretiratuek aurkeztutako mozioa.

ALDARRIKATU DUTE SISTEMA FISKALEAN ALDAKETAK EGINDA POSIBLE DELA 1.080 EUROKO PENTSIOA

Iruñeko gertakizunak

Iruñeko gertakizunen gaineko adierazpena onartu zuten guztiek; aho batez, alegia. Alderdi Sozialista, baina, ez zegoen ados puntu batekin, eta puntu guztiak onartu zituen, bat izan ezik: "Epaiak sortu duen haserrea ulertzen dugu, baina epaia errespetatu egiten dugu. Izan ere, sozialistok, demokrazian, botere judizialarengan sinesgarritasuna dugula beti erakutsi eta azaldu dugu", adierazi zuen Miren Arrate Gallastegi bozeramaleak.

Erabakitzeko eskubidean fokua

EH Bilduk, Kataluniako atxiloketen harira, mozioa aurkeztu zuen. Onartua izan zen, EAJren eta EH Bilduren botoei esker. "Kataluniako atxiloketen aurka agertu gura dugu, eta atxilotuei babesa eta elkartasuna adierazi. Herritarren erabakitzeko eskubidean jarri gura dugu fokua", azaldu zuen Beñardo Kortabarria alkateak.

Errauskailuaren auzia politikoa dela salatu du Intxaurrandietak

'Angula ustelak' hitzaldiak ikusmina piztu du herrian eta herritar ugari gerturatu da Olarango solasaldira

A.T. /M. A. ANTZUOLA

Olaran herritarrez bete zen martitzen arratsaldean *Angula ustelak* hitzaldia entzuteko. Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko Ainhoa Intxaurrandietaren argibideak gertutik jasotzeko aukera izan zen. Batez ere, bi kontu azpimarratu zituen: auzia "politikoa" dela eta demandarekin bilatzen dutena dela Gipuzkoako Ingurumen diputatu ohi Iñaki Errazkinen eta bere aurkako "mendekua" eta "abisua, ondorengoek ez egiteko horrelako ausardiarik".

"Juridikoki dena ondo eginda dagoela jakinda, lasaitasun bat ematen dizu. Baina auzi politikoa denean eta alde batean EAJ, PSE eta PP daudenean, eta aulkian eserita EH Bilduko bi kide, ez du lasaitasunerako gunerik ematen. Aterako da aterako dena, eta nik uste dut bigarren partearekin gelditu behar dugula denok; guri ez dakigu zer gertatuko zaigun, baina horrekin aurrera, harro egin genuenarekin, eta nik uste dut garrantzitsuena dela hemendik aurrera horrelakorik ez gertatzea", gaineratu zuen Intxaurrandietak.

Intxaurrandieta, Olaranen. A. T.

'Mukuru' musika festaren lehen kontzertua, gaur

Mukuru musika ekimena jaio da Euskal Herriko hainbat talderen eskutik –bultzatzaileen artean, Antzuolako Klak!son dago–. Helburua da herrietan kontzertuak bultzatzea. Ekimenaren lehen kontzertua Seitan eta Klak!son antzuolarren eskutik izango da, gaur, egubakoitza, 19:00etan, gaztetxean. Sarrera 3 eurokoa da.

Abian da Kukumarru lehiaketa eta izena eman daiteke

Maiatzaren 19an, zapatua, San Isidro eguneko ospakizunen baitan, kukumarro edo txorimalo lehiaketa antolatu du Kultura Sailak. Izena emateko azken eguna maiatzaren 17a da. Hiru maila izango ditu: 12 urtera artekoak –sariak guztiendako–, 12 urtetik gorakoak –60 euro irabazlearendako– eta erretiratuak –90 euro irabazlearendako–.

Kataberako meatzeak bisitatzeko aukera Arrolaren eskutik

Domekan, Brinkolan hasita, Barrendiola, Artzanburu eta Kataberako meatzeak bisitatzeko irteera antolatu du Arrolak. "Aukera polita toki ezezagunak ezagutzeko. Goizeko irteera izango da; 08:30ean irtengo gara Olarandik. 615 73 16 19 telefonora deitu dezakete irteeran parte hartu gura dutenek", argitu dute Arrolako kideek.

Urola ibaia Telleriarten. ARROLA

Herritar bat plazan dagoen errefusaren ontzia erabiltzen. MAIDER ARREGI

Herriko garbitasunaren oinarria, hezkuntzan

'Antzuola hobetu, guztion artean garbi jokatuz' lelopean, abian da 'Garbi jokatu' kanpaina. Helburu didaktikoa du ekimenak eta, biharko, auzolanean herritar guztiei parte hartzeko dei egin die Udalak; festa giroan ospatuko dutela iragarri dute

Maider Arregi ANTZUOLA

Auzolanerako dei egin du Antzuolako Udalak. Helburua da jai giroan, herritar guztien artean eta garbi jokatuz, Antzuola hobetzea. "Aurrekontuan jaso genuen moduan, garbitasunaren didaktikaren ideiari tiraka, *Garbi jokatu* izeneko kanpaina jarri dugu abian. Dagoeneko, joan den asteburua ezkero, etxe guztietara bidali dugu diptiko bat, kanpainaren berri emanez", azaldu du Antzuolako alkate Beñardo Kortabarriak.

Ez zikintzea da gakoa

"Garbitasuna ez zikintzearekin identifikatzen dugu, gehienbat; nork bere ingurutxoa garbi edukitzeko duen ardurarekin, eta elkarren arteko errespetuarekin, hain zuzen ere", azpimarratu du Kortabarriak.

Jai giroan, hobeto

Garbi jokatu kanpainak helburu didaktikoa duen arren, jai giroan batuko dira bihar, zapatua, herritarrak. Hala, auzolanean jardungo dute, auzoz auzo, herria garbituz.

Egin behar dena

Etxeetara bidalitako diptikoan, zenbait gomendio daude jasota: Paperontziak erabiltzea –gozokipoltsak, zigarrokinak... ez bota lurrera. 115 paperontzi daude Antzuolan 30 puntutan banatuta–; hondakinak dagokion lekuan utzi eta ondo sailkatzea –egutegia eta ordutegia errespetatuz–; organikoaren kuboa bildu eta txakur kakak jasotzea.

Bestalde, auzo-konpostaren gaineko datuak kaleratu dituzte: auzo-konposta 45 familiak egiten dute eta etxeko konposta, 145 herritarrek. Hain zuzen, 36,8 tona konpost kudeatzen dira.

Auzolanerako deia herritarrei

"Goizeko hamarretan Herriko Plazan elkartzeko dei egin nahi diegu antzuolarrei, auzoz auzo joan eta agerian dagoen zikinkeria jasotzeko –plastikoa, zigarrokinak...–. Auzolanera animatu daitezen eskatu gura diegu", kontatu dute kanpainaren bultzatzaileek.

"11:30erako bukatzeko ideia daukagu eta jasotako hondakin guztiarekin argazkia aterako, dugu. Hamaiketako batekin bukatuko dugu *Garbi jokatu* ekimena".

Antzuolako Udalak pintzak, eskularruak, poltsak eta hamaiketakoa jarriko ditu; ekimenean jardungo dutenek, ordea, txaleko islatzailea eroan beharko dute.

GFA

Hobekuntzak Eztalan

Aintzane Oiarbide Bide Azpiegituretako diputatua Eztalan izan da. Jakinarazi duenez, aldagelak berritzeaz gain, hobekuntzak egingo dituzte inguru osoan. "Aparkalekua berriro antolatuko da, eta, malda arintzeko eta erosoagoa izateko, horizontalagoak diren bi plataforma eraikiko dira. Hilerriko sarrera eta hirigunerako pasabidea ere egokituko dira".

OHARRAK

Lehen sektorea gertutik

Maiatzaren 15ean, martitzena, bisita gidatuak egingo dira Irumendi elkartera –17:00-18:30– eta Irala-Torre baserrira –18:30-20:00–. San Isidro festaren bueltan antolatutako ekimena da. Aurrez eman behar da izena 659 781 415 telefonoan.

Agroekologiari buruzko hitzaldia

Antzuola 2030: Agroekologia helburu? izeneko solasaldia maiatzaren 17an, eguena, Olaranen, 18:30ean.

Basurdeen kudeaketari buruzko solasaldia

Basurdeen kudeaketarako baliabideak aztertuko dituzte maiatzaren 16an, Torresoroan, 19:00etan.

GORA ETA BEHERA

GOIENA

Emanaldia ikusteko zailtasun handia

Zurrategi plazako kiosko inguruko zuhaixken altueraz kexu dira herritarrak. Izan ere, zuhaixka horiek kiosko barruko emanaldia ikustea zaildu eta oztopatu egiten dute.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? *berriak@goiena.eus* edo 688 69 00 07.

Nerea Zubia –Euskara zinegotzia– eta Xabier Zabaleta –teknikaria– eguaztenean egindako aurkezpenean. XABIER URZELAI

Euskararen plan berria lantzen hasi da Udala

Non eragin gura den eta lehentasunak zeintzuk diren jasoko ditu, besteak beste, Euskararen Plan Estrategiko berriak, eta, horretarako, euskarak Oñatin bizi duen egoeraren argazkia atera gura dute. Inkesta bat prestatu dute, herritarrek erantzuteko

Oihana Elortza OÑATI

Joan den urtean, 2017an, bukatu zen euskararen azken Plan Estrategikoa, eta berriaren nondik norakoak azaldu dituzte astean. "Aro hori amaituta, tokatzen zaigu hurrengoa diseinatzea, ekintza horien definiziora iritsi eta plana garatzea. Bost urteko plangintza izango da oraingoa, 2018-2022", azaldu du Nerea Zubiak, Euskara zinegotziak.

Diagnosia

Fase bat baino gehiago izango ditu Plan Estrategikoak eta lehenengoa aste honetan bertan jarri dute martxan. "Lehen urratsa egungo egoeraren diagnosia, erradiografia, egitea da. Informazioa batu behar dugu, eta, horretarako, bide ezberdinak erabiliko ditugu: batetik, herritar batzuei elkarrizketa zuzenak egingo dizkiegu, eta, bestetik, Internet bidez aukera egongo da galdetegi bati erantzuteko", zehaztu du Zubiak. Euskara teknikari Xabier Zabaletak gaineratu duenez, dagoeneko hasita daude elkarrizketa zuzenak egiten: "Hamar egingo ditugu, arlo ezberdinetan diharduten herritarrei. Esate baterako, kirola, hezkuntza, gazteak... eta baita enpresaren batean lan egiten dutenekin; baita Udal Euskaltegian euskara ikasten ari den batekin ere".

Erabilera

Herritar guztiei zuzendutako galdetegi bat ere prestatu dute. Interneten jarri dute, udal webgunearen atarian. "Maiatzaren 10etik 24ra egongo da aukera horko galderei erantzuteko. Anonimoak izango dira erantzunak, baina aukera jarri dugu gura duenak bere helbide bat jartzeko prozesu guztiaren berri izan dezan", dio Zabaletak.

GALDETEGIA UDAL WEBGUNEAN DAGO ETA MAIATZAREN 24RA ARTE BETE DAITEKE

Lehen fase honetan, beraz, datuak batuko dituzte eta euskarak egun Oñatin duen egoeraren argazkia aterako dute. Horrekin, Plan Estrategikoa idazten hasiko dira; ikusten non eragin gura duten eta lehentasunak non jarriko dituzten. Horretarako, Elhuyar-en laguntza izango dute. Eurekin egingo dute hasierako zirriborroa eta batutako datuak herritarrekin partekatuko dituzte egingo duten bilera ireki batean, jasotakoa zabaltzeko eta lehentasunak markatzen hasteko. Handik Euskara batzordera pasako da egindako lana eta han aztertuko eta landuko dute. Asmoa da uztaileko osoko bilkuran udalbatzak onartzea euskararen Plan Estrategiko berria.

2016an egin zen azken kale neurketa Oñatin, eta erabilera %65,8an kokatu zen. Ezagutzaren datu orokorrak %77,9an jarri du euskaldunen kopurua.

Norbanakoen arrazoiak batuko ditu Gure Esku Dago-k bihar

Oñatiarrek erabakitzeko dituzten arrazoiak jasoko dituzte bihar goizean Eltzian, Herritarren Itunerako

O.E. OÑATI

Erabakitzeko arrazoiak batu gura ditu Gure Esku Dago dinamikak. Norbanakoak erabakitzeko dituen arrazoiak. "Hiriburuetan egin da ekimen hau dagoeneko, eta orain, herrietan egingo dugu. Oñatiarrek euren arrazoiak emango dituzte, eta horiek jasoko ditugu guk. Ez ditugu ez laburtuko edo aldatuko, dauden bezala jaso eta gordeko ditugu. Herritarren Ituna osatuko dugu ekarpen horiekin eta Legebiltzarrean ere egingo da 2.019 arrazoi edo gehiagoren entrega sinbolikoa", dio Lierni Olmedok. Eltzian izango da mintegia bihar, zapatua, 10:30etik 12:00etara.

Giza katea

Ekainaren 10ean egingo den giza katean, Zigoitiko (Araba) bi kilometro beteko dituzte oñatiarrek. Eguerdian izango da ekitaldia eta autobusak egongo dira joan-etorria egiteko. Parte hartu gura duenak Gure Esku Dagok Kale Barrian duen lokalean eman dezake izena eguen arratsaldeetan.

Kamera mugitu dutenak nortzuk diren ikertzen ari dira

Zazpihaizeta bidegurutzean jarritako kamera mugitu eta gora begira jarri zuten bi lagunek aurreko zapatu goizean, furgoneta batera igo eta makila baten laguntzarekin. Udaltzaingoa inguruko kamerak jasotako irudiak aztertzen ari da bi pertsona horiek identifikatzeko. Ondorio larriak izan ditzake ekintza horrek.

Egubakoitzetan zabalik egongo da EH Bilduren lokala

Herritarren proposamenak, zalantzak eta kezkak entzun gura ditu Oñatiko EH Bilduk, "erronka nagusia proiektu honekin bat egiten duten pertsonen arteko sare bat osatzea" da eta. Lokala "komunitatea saretzeko tresna bat gehiago" izango dela diote, eta egubakoitzetan zabalik egongo da 18:00etatik 20:00etara, maiatzaren 19tik aurrera.

NIRE USTEZ

XABIER IGARTUA

EZ esaten jakitearena

Bertute bat galdetuta "ez esaten jakitea" irakurri nion ezagun bati. Harrezkero erabaki bat hartzerakoan burura etorri ohi zaidan gogoeta da.

Egunerokoa gutxi-asko aldatzen du ekimen, elkartasun ekintza edo elkarte baten parte izateak. Deskantsu eta aisialdi tartetik "hartu" behar izaten dugu sarritan denbora. "Kendu" aukeratzea zuzenagoa ote? Ezezkoan nago, norbere burua zaintzetik norbere egoa soilik elikatzera badago-eta aldea.

Horregatik arduratuta nauka XXI. mendeko izurritetzat dudan indibidualismo orokorra guregana ere noraino barneratu den. Kooperatibismo eta auzolan ohiturak gertutik ezagutzeak ez gaitu, tamalez, jendartean bizi den joera orokorretik libratu.

Zoriontasuna modaren tendentziek markatzen dutenean, elkartasun eta ardura ekintzak gutxiesten dira. Ohartu gaitezen, baina, egun ditugun Ikastolak eta hezkuntza publikoa kooperatiba eta enpresa erreferenteetako lan baldintzak, kultura eta euskararen berreskurapena, eta abar zer liratekeen hautu pertsonal ugariren baiezkorik gabe.

GORBEIAREN SUPER 6

1. McDonald's
2. Gorbeia Zinemak
3. Big Karting
4. Mr. Wok
5. Gambrinus
6. Kids' City

LORTU ZURE KUPOIA PREZIO BEREZIEKIN ETA DESKONTUEKIN

1 McDonald's

1 McMenu®
McDonald's
Soilik 4'90 €

2 Cines Gorbeia Zinemak

1 Sarrera
Gorbeia Zineman
Soilik 4 €

3 Big Karting

2 Karting txanda
Big Karting
Soilik 19'90 €

4 Mr. Wok asian bistro

Buffet
Mr. Wok
%10eko
deskontua

5 1 Menu Gambrinus 2.zk.

Soilik
6'50 €

6 Kids' City

Kids' City
Haur parkea
Ordu erdia
Doan

Promozio hau indarrean izango da 2018ko maiatzaren 11tik uztailaren 1era arte. Kontsultatu promozioaren baldintzak hemen:

centrocomercialgorbeia.com

Carrefour · McDonald's · Cines Gorbeia Zinemak · Big Karting · Mr. Wok asian bistro · Gambrinus · Kids' City · GORBEIA

Gaztetxoek kirolaz goza dezaten lanean dabiltza

Oñatiko Eskola Kirola eta Hezkuntza Elkartea aurkeztu dute. Herriko hiru ikastetxeek osatuko dute elkartea, eta bidelagun izango ditu Udala eta Aloña Mendi. Ikasleen heziketa osoa sustatzea eta kirol modalitate ezberdinak ezagutaraztea du helburu

Arantzazu Ezkibel OÑATI

Eskola kirola sustatu eta kudeatuko duen elkartea eratu dute herriko hiru ikastetxeek: Oñatiko Eskola Kirola eta Hezkuntza Elkartea, hain zuzen. Oñatin eskola adinean dauden ikasleen heziketa integrala lortzeko eskola kiroleko egitura bat sustatzea da helburu nagusia.

Eskola kirolak 45 urteko ibilbidea du Oñatin, eta alkateak azaldu du "hezkuntza ikuspegitik garrantzi handia" duen egitasmoa dela. Hori horrela, Oñatiko Udalak kirol plana landu du Kirol Managment enpresarekin, eta, tartean, eskola kirola ere landu dute. Emaitzetan ikusi dute hainbat indargune dituela eskola kirolak herrian: ikasleen %81eko parte-hartzea eta nesken presentzia handia. Ahuleziak ere baditu: batez ere, aste barruko eta aste bukaerako saioen arteko loturarik eza.

Elkarteko kideak, alkatea, koordinatzailea eta Begoña Irazu, Aldundiko ordezkaria.

Kirol proiektua

Eskainiko duten kirol programa 2018-2019 ikasturtean jarriko dute martxan. Aldaketa nagusia Lehen Hezkuntzako hirugarren eta laugarren mailetan egongo da. "1+1 eskaintza izango dute; hau da, astegunetan saio bat eta asteburuan beste bat", adierazi du Elkar Heziko Koordinatzaile Ismael Zubiak. Modu horretan, aste barruko eta aste bukaerako saioen arteko lotura bermatuko dute.

HH-5 mailan psikomotrizitate saio bi izango dituzte astean; LHko 1. eta 2. mailetan jolasak izango dituzte, astean bi saio; LHko 3. eta 4. mailetan, multikirolean, 1+1 eskaintza izango dute, eta baita mendi programa ere; LHko 5. eta 6. mailetan, aste barruan bi saio eta aste bukaera bat edo 1+1 eskaintza izango dute, eta baita mendi programa ere; DBHn aste bukaera bateko eskaintza berezia izango dute. "1+1 eskaintzan, aste barruan lau aukera izango dituzte: bi egun eta bi ordu jarriko ditugu aukeran", azaldu dute.

KIROL PROIEKTUAREN BERRI EMATEKO, BILERAK EGINGO DITUZTE IKASTETXEETAN

Gurasoekin bilerak

Hori guztia azaltzeko, bilerak egingo dituzte datorren astean: martitzenean, Txantxiku Ikastolan; eguaztenean, Urgainen; eta eguenean, Elkar Hezin. Batzarrak 18:00etan izango dira. Eskola Kiroleko Koordinatzaile Egoitz Atxagak esan zuen ikuspegi hezitzailea arlo guztietara hedatu gura dutela. Horretarako, hiru lan-lerro bideratuko dituzte: ikasleen heziketa, hezitzaileen formakuntza eta epaileen formakuntza. "Gurasoen presentziak balio handia dauka. Lanketa egingo dugu guztiok helburu berarekin lan egiteko", nabarmendu du Atxagak.

Elkarteak dituen erronkak

Jabier Erostarbek egin du elkartearen irudia. Unibertsala, berdintasunezkoa, integratzailea, eskuragarria... irudikatu du. Balio horiez gain, erronka hauek ere baditu elkarteak.

Erronkak

- Koordinazio pedagogikoarekin eskola kiroleko kalitatea areagotzea.
- Herriko familiek proiektu berriekin bat egitea.
- Erakunde publiko zein pribatuen atxikimendua eta laguntza lortzea.
- Oñatiko kirol hastapenean erreferente izaten jarraitzea.

Agur-partidua izango dute etzi hainbat jokalari beteranok

Aloña Mendik liderra den Eibar Urko izango du aurrez aurre, Azkoagainen, domekan, 16:30ean

A.E. OÑATI

Etxekoen aurrean esango dio agur Aloña Mendik denboraldiari. Erregional mailako taldeak Eibar Urko taldearen aurka neurtuko ditu indarrak domekan, Azkoagainen, 16:30ean. Denboraldia amaitzeko ez dute nolanahiko aurkaria izango, gainera. Liderra den Eibar Urko izango dute aurrez aurre.

Etxeko taldeak denboraldia ondo bukatzeko ohorea bakarrik izango du jokoan. Izan ere, dagoeneko aukera guztiak galdu ditu Gotzon Urtzelairen taldeak mailaz igotzeko. "Denboraldia oso ondo hasi genuen, lehenengo itzulian 7 puntuko aldea geneukan, baina, Gabonetatik bueltan, bolada txar bat hartu eta zazpi puntu atzetik jarri ginen", dio Endika Ruizek. Hori horrela, "pena handia" dutela dio, eta datorren denboraldian ahaleginduko direla maila berreskuratzen.

Domekakoa agur-partidua izango da batzuendako: besteak beste, Aimar Lizarrak, Mikel Palaciosek eta Joseba Irizarrek itxiko dute futbola.

ARATZ LOSADA

Sasquatch, ligako txapeldun

Herriko Futbol Txapelketako finalak jokatu zituzten zapatuan Azkoagainen. Ligan, Sasquatch-ek 3-1 hartu zuen mendean Zalaparta. Iban Agirrek sartu zituen txapeldunen hiru golak; Zalapartarena, aldiz, Unai Uribeetxebarriak sartu zuen. Kopan, Txuskos gailendu zen Kalañatasarayen aurka (2-0). Merezimendu osoz irabazitako txapelak izan ziren.

Birako etaparako, bidegurutzeetarako jendea behar dute

Maiatzaren 21ean, astelehena, Emakumeen Bira Oñatitik pasako da. Hirugarren etapa izango da, Aretxabaletan hasi eta Aretxabaletan bukatuko dena, 114 kilometrokoa. Bada, bidegurutzeak zaintzeko, boluntarioak behar dituzte. Hain zuzen, 15:30etik 16:30era bitarteko lana izango da, eta izena Zubikoan eman beharko da.

Torreauzoko krosean izena emateko aukera badago dagoeneko

Uztailaren 1ean egingo dute Torreauzoko krosa, 10:30ean. Parte hartu gura duenak *Herrikrosa.eus* atarian edo Aloña Mendi tabernan eman dezake izena, ekainaren 29ra arte –8 euro–. Horrez gain, Mendizabal kirol dendan, ekainaren 30era arte –8 euro–. San Pedro-Olate-San Pedro ibilbideak 7,5 kilometroko luzera du.

Jose Mari Goenaga, Aitor Arregi eta Jon Garaño. MAYA BALANYA

Hasi da film berria egiten Aitor Arregiren taldea

Jose Mari Goenagarekin eta Jon Garañorekin batera zuzenduko duen 'La trinchera infinita' filmak Espainiako gerraren ondorioz 30etik gora urtez etxean ezkutatuta egon ziren 'sator'-en istorioa kontatuko du. Andaluzian hasi dituzte grabaketak

Julen Iriondo OÑATI

Irusoin eta Moriarti daude ekoizleen artean, eta astelehenean hasi zuten filmaketa, Huelvan. Bertan dago kokatuta Aitor Arregiren eta bere taldearen istorio berria, Espainiako gerrakoa. *Beldurra* du ardatz pelikulak, errepublika-zaleak izateagatik eta Francoren altxamendua gauzatuta etxetik ateratzeko beldurra; eta, bide batez, beste beldur batzuen metafora ere iradoki nahi du, Arregiren arabera. Euskal Herrian ere filmatuko dute, proiekturako baliabide ekonomikoak bertakoak ere badirelako –eta Andaluziakoak; Frantziako ekoiztetxe bat ere bada tartean–.

Filmaketaren hasiera "gogorra" eta "intentsua" izaten ari dela zioen zuzendari oñatiarrak aurreneko hiru egunen ostean, nahiz eta horrek ez dituen ezustean harrapatu. Jende askok eta arlo askotakoek osatzen dute lantaldea, eta zuzendariak dira dena koordinatzeko ardura dutenak; helburua da grabatzeko unean dena ondo atera dadila: "Egun intentsuak dira, ze egiten duzuna behin ontzat ematen baduzu, beste gauza batera zoaz eta hori horrela geratzen da; beraz, denok tentuz jokatu nahi izaten dugu, hankarik ez sartzeko". Horrek tentsio handia eragiten ei du.

Filmaketaren hasiera gogorra izaten ari da, baita ere ordu askoko jardunak izaten ari direlako, eta egunez zein gauez, gidoiak hala eskatuta, "14:00etan hasi eta 01:00ak arte, adibidez".

Lantaldean denetarikoak dituzte, batzuk euskaldunak, baina beste batzuk andaluziarrak eta zuzendariokin lehen aldiz dihardutenak. Dena dela, zentzu horretan, dena ondo doala dio Arregik. Baita aktoreekin ere; Belen Cuesta eta Antonio de la Torre dira protagonistak. Elkarrekin lehen aldiz jarduteak batzuk besteenagana eta alderantziz egokitu beharra dakar: "Oso aktore onak dira, baina orain arte ez dugu lanik egin halako aktoreekin, eta beste metodo bat dute". Lan nola egiten duten ikustea "oso polita" dela ere badio Arregik, eta "oso konprometituta" ikusten dituela baita ere. Filmaketak zortzi aste iraungo du.

EGUNEZ ETA GAUEZ FILMATZEN ARI DIRA, GIDOIAK HALA ESKATUTA, JARDUN LUZEEKIN

Istorioari dagokionez, 1936tik 1969ra etxean ezkutatuta egon zen Higinio Blanco deituriko gizonaren kasua du oinarri, Luiso Berdejoren eta Jose Mari Goenagaren gidoiarekin. Ateak itxi eta fisikoki barruan gorde zenaren istorioarekin, psikologikoki bere baitan gotortzearen metafora ere egingo du pelikulak: "Armairutik irteteko beldurra, aldaketa bat dakarren pauso bat emateko beldurra...".

Festak dira asteburuan Kasablankan eta Murgian

18:30ean Isidrotxo jaitsi eta hasiko dira jaiak kalean; Asentzio ermita inguruan bihar eta etzi izango dira jaiak

J.I. OÑATI

Txorimaloak eta kalejira izango dira 19:00etan Kasablankan, eta baita pintxo-potea ere; 22:30ean, rock metal jaialdia, Txua, D-skarga eta Deliriun taldeekin; 22:45ean, su artifizialak. Bihar, 12:00etan, haur jolasak izango dira; 14:00etan, auzo bazkaria; 17:00etan, txahalak eta zaldiak; eta 19:00etan, umeendako tailerrak eta olagarro eta sagardo dastatzea. Domekan, azkenik, 12:00etan meza egingo dute; 12:30ean, kalejira musika eskolako ikasleekin; 13:00etan, Oñatzeko dantzariak; eta 14:00etan, luntxa eta erromeria.

Murgian, berriz, ganadu erakusketa egingo dute zapatuan 10:30ean; 12:00etan, auzoko produktuen dastatzea, bertso eskolak girotuta: gazta, saiheskia, txakolina eta sagardoa; 15:00etan, mus txapelketa; 16:00etan, magoa eta txokolatada; 17:30ean, Manex Urrutia harri-jasotzen; 20:30ean, auzo afaria; eta Oier, Miren eta Agur taldearekin erromeria. Domekan, 12:00etan meza, eta gero Karmen Urteagari eta Joxe Intzari omenaldia, eta luntxa.



JOSE DE AZPIAZU

Jose de Azpiazu, Herbehereetan

Musika eskolako 26 laguneko talde bat Herbehereetan da, Musikari Gazteen Europako Jaialdiaren hamahirugarren edizioan parte hartzen. 6.000 izango dira, denera, musikariak, 200 gipuzkoarrak, eta hiru kontzertu egingo dituzte oñatiarrek, domekan etxera itzuli aurretik. Kontzertuen aurretik, Guinness errekor saiakeran parte hartu zuten, turutekin.

Hilaren 19ko bertso saiorako sarrerak salgai, Txokolateixan

Oxigenoa euskarari 6000 metroan egitasmoaren barruan bertso jaialdia izango da hurrengo zapatuan Zubikoa pilotalekuan –22:30ean hasiko da–, Uxue Alberdi, Amets Arzalluz, Maialen Lujanbio eta Aitor Sarriegi bertsolariekin. Amaia Agirrek jarriko ditu gaiak. Sarrerak salgai daude dagoeneko Txokolateixan, 10 eurotan.

Margo ikasleen pinturekin erakusketa astelehenetik aurrera

Udalak antolatutako ikastaroan egindako 80 lan dira, olioak eta akrilikoak. Mayra Jimenezekin jardundako 4 eta 16 urte bitarteko lagunak dira egileak. Urgain Errekalde ikastetxeko ikasleen lanak ere badaude –han ere eskolak ematen ditu Jimenezek–. Erakusketa hilaren 27ra arte egongo da kultura etxean, 18:00etatik 20:00etara.

Ford Mugarri Arrasateko taldekideak, elkar besarkatzen, Zarauzko taldearen kontrako garaipenaren ostean. GOIENA

Maila Nazionala dute jokoan

ESKUBALOIA Errioxako Soldaduras Carlos Clavijo, Kataluniako CH Poblenou, Nafarroako BM Iruña eta Ford Mugarri Arrasate taldeek Maila Nazionalera igotzeko fasea jokatuko dute gaurtik domekara arte Iturripen

Xabier Urzelai ARRASATE

Ford Mugarri Arrasateko jokalariendako igoera faseak ez dira gauza berria. Gazteendako bai, baina ez eskubaloian urteak daramatzatenendako, eta taldean oraindik badaude halako fase erabakigarriak jokatu izan dituzten hainbat beterano.

Baina, aurreko urteetan, halakoak Katalunian, Valentzian, eta Galizian jokatu izan dituzte, ez Arrasaten. Hori du oraingo asteburuak berezia: "Halako fase bat kanpoan jokatzea ederra izaten da, denboraldia agurtzeko modu ezin hobea da", dio duela hiru urte eskubaloira itzultzea erabaki zuen taldeko beteranoetako bat den Jonan Eskibelek: "Hiru urtean, bi fase jokatu ahal izango ditut, pentsa! Ez nuen halakorik espero eskubaloira itzultzea erabaki nuenean. Baina oraingoa berezia izango da, oraingoan etxeko txikien aurrean jokatu ahal izango dudalako. Hala ere, gu dagoeneko beteranoak gara, eta normalena da kantxan taldekide gazteek minutu gehiago izatea. Guk gure ekarpena egingo dugu".

Eskibelek berak ere ez daki beste beteranoetako batekin, Josu Herrerorekin, kantxan zenbat minutu partekatuko zituen. Zalantza barik, kapitainarendako ere hitzordu berezia izango da: "Halako faseak kanpoan jokatu izan ditugu lehenago ere, uste dut bost izan direla, baina, oraingoan, etxean antolatzeko apustua egin dugu, eta horregatik da berezia".

Gaurkoa, akaso, zailena

Kontrarioen gainean, Herrerok onartu du gaurko kontrario BM Iruña dela ondoen ezagutzen duena: "Iaz Oñatiko taldeak Burgosen igoera fasean jokatu zuenean Iruña izan zen, hain zuzen, fasea irabazi zuena. Goragoko kategorietan jokatu izan duten jokalariak dituzte taldean, oso jende beteranoa da eta esperientzia handikoa. Hori horrela, zozketan ez dugu zorte handirik izan, hobe izango zen horien kontra domekan jokatzea; izan ere, hirugarren partidua jarraian jokatzea oso nekagarria izaten da eta gazteek beste freskotasun bat izaten dute. Errioxarren gainean ez dakigu askorik, eta egia da Katalunian orokorrean oso maila oneko taldeak egoten direla. Baina garbi dagoena da kontrarioei begira egon barik, guk gurea egin behar dugula, eta gure maila erakusten ez badugu ez dugula askorik egingo".

Minutuak ondo banatu behar

Hain zuzen, talde osoena duenak asko izango du irabazita, eta atezainen lana ere ezinbestekoa izango da. Euskadiko Txapelketako igoera fasean, esate baterako, Asier Vallek lan azpimarragarria egin zuen: "Baina halako partiduak ez dira egunero errepikatzen". Eta Herrerok egin du azken *jaurtiketa:* "Zaleei esan etor daitezela eskubaloiaz gozatzera".

Igoera faseko ordutegiak:

Egubakoitza
- **18:00** Ford Mugarri Arrasate-BM Iruña Eskubaloia
- **19:45** Soldaduras Carlos Clavijo Calasancio-CH. Poblenou

Zapatua
- **17:00** Soldaduras Carlos Clavijo Calasancio-BM Iruña.
- **19:00** CH Poblenou-Ford Mugarri Arrasate.

Domeka
- **10:30** BM Iruña Eskubaloia-CH. Poblenou
- **12:15** Ford Mugarri Arrasate-Soldaduras Carlos Clavijo Calasan.

JONAN ESKIBEL
FORD MUGARRIKO JOKALARIA

"Lehenago ere jokatu izan ditugu halako faseak, baina kanpoan izan dira beti. Etxekoen aurrean jokatzea, baina, oso berezia izango da".

JULEN OTXANDIANO
FORD MUGARRIKO JOKALARIA

"Uste dugu gure partiduak oso bateragarriak direla Musakolako jaiekin [Barre]; horrenbestez, jendeari esan etor dadila gu animatzera".



KEPA ZELAIA
FORD MUGARRIKO JOKALARIA

"Duela bi aste fase honetarako sailkatzeko jokatutako lauko finala ederra izan zen, baina oraingoa emozio handiko asteburua izango da, gozatzea da helburua".

ASIER VALLE
FORD MUGARRIKO ATEZAINA

"Hiru partidu izango dira, eta batetik bestera ondo errekuperatzea ezinbestekoa izango da. Minutuak ere ondo banatu beharko ditugu".



JOSU HERRERO
FORD MUGARRIKO KAPITAINA

"Igoera fasea Arrasatera ekartzea erabaki dugu, jendeari eskubaloiaz gozatzeko aukera emateko, herrian kirol hau ere badaukagula erakusteko".

Opakuako indartsuenak Gorlan izango dira bihar

AUTOMOBILISMOA Bihar, zapatua, egingo dute Gorlako Igoeraren 27. aldia, eta aurten ere etxeko pilotu Aitor Zabaleta da faboritoa. Denboraldi berezia izango da bergararrarendako, 30 urte beteko ditu-eta Lola BMWren bolantean

Xabier Urzelai BERGARA

Gorlako mendateko bihurguneak zalez beteko dira bihar, zapatua, 15:00etan hasita. Ia 60 pilotu batuko dira irteera puntuan, eta horietatik herena Debagoienekoak izango dira: "Egia da beste edizio batzuetan pilotu gehiago izan ditugula, urte batetik bestera gorabeherak egoten dira, baina, akaso, igoeren denboraldi hasiera denez, bakarren bat autoa prestatzeko orduan berandu ibili da. Baina, antolatzaileon ikuspuntutik, kopuru polita da", dio Gorla Racing taldeko Aitor Zabaletak.

Berez, iragarpenek diote zapatuan eguraldi aldakorra izango dela, eta euria egin dezakeela. Bada, iragarpenak betetzen badira, ez da komeni auto kopuru handirik, lanak pilatu egiten dira eta.

40 urte inguru ditu Lola BMWk; hiru hamarkada daramatza Zabaletarekin. GOIENA

Egutegiko bigarrena

Euskadiko Mendiko Txapelketako bigarren lasterketa da Bergarakoa, pilotuek Opakuan estreinatu zuten-eta denboraldia, apiril erdian. Eta hango pilotu azkarrenak Boluko irteera puntuan izango dira bihar: Aitor Zabaleta eserleku bakarrekoen kategorian eta Bruno Scherer (Porsche 911 GT3) turismoenean. Hain zuzen, Schererrek oso lehia estua izan zuen Iñigo Olabegogeaskoetxearekin (BMW M3). Opakuako podiumera igo zen hirugarren postuan zirkuitutik mendiko igoeretara salto egin duen Xabi Fernandez arrasatearra, eta, turismoetan, hiru horiek Bergaran izango dira bihar.

'Lola'-rekin 30 urte

Zabaletak hiru hamarkada beteko ditu aurten Lola BMW T298 gidatzen; Gorlako Igoerak berak dituen urteak baino gehiago. Autoak 40 urte inguru ditu; Zabaletak Andres Vilariñori erosi zionean (1988), autoak hamar urte zituen: "Eta ordutik hona ez du automobilez aldatu", dio Xabier Zabaletak: "Hori bai, imajina dezakezuen moduan, autoak urte hauetan guztietan aldaketa asko izan ditu, pieza eta xasis aldaketak, motor konponketak...". Bada, 40 urte dituen barketak oraindik ikusmina pizten du zaleen artean: "Lolarekin Espainiako Txapelketa irabazi du bizpahiru alditan, Europako lasterketetan lehiakorra izan da, eta pentsa Euskadikoa zenbatetan irabazi duen". Hala, bihar garaipenerako faboritoa da, nahiz eta CM azkarrak –Silver Car edo Speed Car etxeetako auto arinak– gertu izaten dituen, batez ere, txarra egiten duenean.

Debagoieneko pilotuak

- **Aitor Zabaleta.** Gorla Racing eskuderia. Lola BMW.
- **Iñigo Lizarralde.** Gorla Racing eskuderia. BMW M3 E36.
- **Andoni Aperribai.** Gorla Racing eskuderia. Citroen AX.
- **Oscar Sarasua.** A + Gas eskuderia. Citroen Saxo VTS 16v.
- **Asier Unzetabarrenetxea.** A + Gas eskuderia. BMW M3 E36.
- **Xabi Fernandez.** A + Gas eskuderia. Seat Leon Supercopa Mk1
- **Mikel Beretxinaga.** A + Gas eskuderia. BMW E36
- **Ander Sarrao.** A + Gas eskuderia. BMW M3 E36
- **Mikel Fernandez de Arroyabe.** Esko Motor. BMW E30
- **Maialen Iarza.** Esko Motor eskuderia. Peugeot 205
- **Mikel Oiartzabal.** Esko Motor eskuderia. BMW 325i E36
- **Gorka Urrutia.** Esko Motor eskuderia. BMW 325i E36
- **Andoni Boyero.** Oñatiko Udana eskuderia. VW Golf 1.8 Turbo
- **Ruben Nogueiras.** Oñatiko Udana eskuderia. Silver Car S2
- **Julen Altuna.** Oñatiko Udana eskuderia. BMW 325i
- **Mikel Alustiza.** Durangalde Racing eskuderia. Seat Ibiza
- **Iñigo Errazti.** Durangalde Racing eskuderia. Renault Clio Sport
- **Ekaitz Egurrola.** Azpiko Racing eskuderia. Citroen Saxo

ASTE BUKAERAKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONA.

Bergara-Hernani
Domeka. 16:30. Agorrosin.

Mondra-Aretxabaleta
Domeka. 16:30. Mojategi.

ERREGIONAL PREFERE.

Ikasberri-Antzuola
Zapatua. 17:30. Azpeitia.

Aloña Mendi-Eibar
Domeka. 16:00. Azkoagai.

Bergara-Lagun Onak
Zapatua. 17:30. Ipintza.

Mondra-Elgoibar
Zapatua. 17:30. Mojategi.

Ordizia-Aretxabaleta
Zapatua. 17:30. Ordizia.

ERREGIONALA IGOERA

Aloña Mendi-Ilintxa
Zapatua. 16:30. Azkoitia.

GAZTEAK, IGOERA

Antzuola-Landetxa
Zapatua. 11:30. Estala.

EMAKUMEZKOEN IGOE.

Urnieta-Bergara
Zapatua. 16:00. Urnieta.

EMAKUMEZK. IGOERA.

Bergara-Lagun Onak
Zapatua. 15:30. Ipintza.

ARETO FUTBOLA

GIPUZKOAKO TXAPELKE.

Mondrate-Gamon
Zapatua. 17:00. Musako.

SASKIBALOIA

SENIOR EMAKUMEZKOA.

Eskoriatza-Astigarraga
Domeka. 17:00. M.Muñoz

JUNIOR PARTAIDETZA

Atletico-Bergara Sora.
Zapatua. 16:00. Donostia.

Ordizia-Aloña Mendi
Zapatua. 10:00. Ordizia.

KADETE EMAKUMEZK.

Easo-Eskoriatza
Zapatua. 13:00. Donostia..

INFANTIL TXIKI, FINALAK

Bergara Sor.-Axular
Zapatua. 17:45. Labegara.

Goierri-Easo
Zapatua. 19:00. Labegara.

Finala:
Domeka. 18:00. Labegar.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO KOPA

Urola-Ford Mugarri
(Informazioa 38. orrian).

GIPUZKOAKO KOPA

Arrasate-Bergara
Zapatua. 11:30. Iturripe.

AUTOMOBILISMOA

GORLAKO IGOERA

Zapatua. 15:00. Bergaran.

ATLETISMOA

Otala Zelai krosa.

Domeka. 11:00 Urkulu.

ESKUBALOIA

IGOERA FASEA

Egubakoitza (Iturripe):

18:00 Ford Mugarri-Iruña

19:45 Calasancio-Poblenou

Zapatua (Iturripe):

17:00 Calasancio-Iruña

19:00 Poblenou-F. Mugarri

Domeka (Iturripe):

10:30 Iruña-Poblenou

12:15 F.Mugarri-Calasan.

Mondrak eta Aretxabaletak derbia dute domekan Mojategin

FUTBOLA Erregional Preferentean, infartuzko jardunaldia izango da Bergara, Aretxabaleta eta Antzuolarendako

X.U. ARRASATE

Bartzelonak eta Real Madrilek joan den asteko derbian ez zuten askorik jokoan, eta eskerrak, astebete geroago oraindik bueltaka dabiltza-eta partiduarekin. Ibarrera etorrita, Mondrak eta Aretxabaletak ere ez dute sailkapenean askorik jokoan, baina Mojategiko berdegunera garaipen gosez zelairatuko dira biak ala biak (domeka, 16:30), taulan non dauden askorik inporta barik. Klubaren eguna izango da Mondrarendako.

Maila berean, Bergarak ere domekan jokatuko du, Hernandiren kontra (16:30, Agorrosin).

Gorka baloiarekin. GOIENA

Hiru talde arriskuan

Erregional Preferentean, berriz, urte osoko lana jokoan izango dute mailari eusteko lehian dabiltzan Antzuolak (32 puntu), Bergarak (31) eta Aretxabaletak (29). Azken bi taldeek zuzenean galduko dute kategoria, eta azken hirugarrenak promozio partidua jokatuko du. Ordizia (21) jaitsita dago jada, baina Ikasberri (32) ere arriskuan dago. Denek 17:30ean jokatuko dute zapatuan. Kontuz bihotz taupadekin...

"Jarrera militantea beti presente dago nigan"

LEO BASSI KOMIKOA

Eskoriatzako EskoZap elkarteak antolatuta, Arrasateko Udalaren eta AMS taldearen laguntzarekin, komiko polemikoa Amaia antzokian izango da etzi, domeka, 19:30ean

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE

Bere ibilbidearen "laburpen filosofikoa" egiten duen *El último bufón* ikuskizuna eskainiko du Leo Bassik (New York, 1952), Chiapasen alde. Sarrerak 15 eurotan eros daitezke *Arrasate.eus* atarian eta leihatilan.

Aspaldiko partez, Amaia antzokian. Oso pozik nago; gustuko dut horko publikoa. Euskaldunei buruz dudan oroitzapena da jende herrikoia, harrotasun handikoa eta indartsua dela, bere buruaren jabe dena. Oso gustuko dut hori, zirku tradizioko familiakoa naiz eta familia oso herrikoi batekoa, bada. Publiko pijoaren kontrakoa da horkoa; hortaz, oso gustuko dut.

***El último bufón* ikuskizunarekin zatoz oraingoan. Zelakoa da?** Niretzako, oso berezia eta garrantzitsua da; nire sustraien inguruan hitz egiten du. Nire ibilbidearen laburpen anekdotikoa baino gehiago, laburpen filosofikoa da. 66 urtean bizi izan ditudanak ez dituzte hurrengo belaunaldiek biziko: zirku-karabana batean bizi ginen, herriz herri ibiltzen ginen familia osoa. Ez genuen gaur egungo gailurik, baina aske ginen. Gaur egun, denetik daukagu: Internet, sare sozialak, enpresa handiak... baina zelako askatasuna?

Leo Bassi umorista Amaia antzokian izango da domekan. MATTEO ABATI

Diozu zure bizipenekin belaunaldi berriei mezua bidali gura diezula. Harrotasunez aldarrikatu nahi dut, oraindik, bizirik dagoen ibilbidea. Nire egiaren alde borrokan inoren aurrean belaunikatu barik jarraitu nahi dut; eta, bide batez, hurrengo belaunaldiei esan nahi diet kontuz ibiltzeko: askatasuna ematen dutela diruditen gauza asko, azkenean, konturatuko direla ez dela horrela. Manipulatuta daude!

Irudiekin jantziko duzu ikuskizuna. Dokumentu asko erakutsiko ditut, bai: nire txikitako argazkiak guraso eta aitona-amonekin, gure zirkuarenak... Bitxikeria asko eta gertakari gogorragoak ere kontatuko ditut; adibidez, lehergai bat jarri zidatela 2006an; geroago, aretoa erre egin zidatela... Horiek guztiak 90 minutuko saioan.

Chiapasen aldeko jaialdia da, zuk ere gertukoa duzun auziaren alde. Sekulako indarra dauka Chiapasek, eta aspektu militantea beti dago presente nigan; hortaz, Arrasaterako proposamena jaso nuenean, argi izan nuen nik ere lagundu nahi nuela.

Zitim osasun zentroa. HEBAMME

Chiapasi laguntzeko helburuarekin

Aste Zapatistan parte hartzen duen lagun baten bitartez jo zuen komiko ezagunaren atea 1994a ezkero Chipasen hainbat ekimen bultzatzen dituen EskoZap taldeak. "Mexikoko Chiapas estatuan bi ekimen ditugu: San Cristobal de las Casasko Colectiva Cereza, bata, eta landa eremuan dagoen Zitim Camino del Viento komunitatean, bestea", dio elkarteko kide Ahinara Zubizarretak, eta zera gaineratu du: "Bidegabeki espetxeratutako emakume indigenei eta horien seme-alabei bidezko defentsa egiten lagundu, eta kartzelatik ateratakoan arreta osoa eskaintzea da Colectiva Cerezaren lana, eta Zitimen, beste osasun zentro bat eraiki dugu beste elkarte batzuekin".

31. Arrasate Literatura Lehiaketako sariak, banatuta

Lehen Hezkuntzako 5 mailatik Batxilergora bitarteko ikasleen 86 lan jaso dituzte oraingoan

A. A. ARRASATE

Kulturateko areto nagusian egin zuten atzo, eguena, AED elkarteak ikastetxeen laguntzarekin antolatzen duen lehiaketako sari banaketa ekitaldia.

Ipuinak, poesia eta bertsoak izan dira oraingoan ere lehiaketaren hiru sailak, eta horiek epaitzeko askotariko kolaboratzaileen "ezinbesteko laguntza" izan dute AED elkartekoek. Honako hauek dira ipuinen ataletan aurtengo saridunak: LHko 5. eta 6. mailetan: Maren Tena eta Ane Saizar; DBHko 1-2: Lide Ezpeleta eta Itsaso Urgoitia; DBHko 3-4: Kattalin Linazisoro; eta Batxilergoko Judith Zubia eta Nerea Agirre.

Bertso-paperetan, honako hauek dira irabazleak: LHko 5. eta 6. mailetako Alaitz Etxebarria, Lide Azkarate, Maren Tena eta Miriam Moya; DBHko 1-2: Beñat eta Garazi Barrena; DBHko 3-4: Olatz Zuazubiskar eta Malen Basabe; eta Batxilergoko Haizea eta Oihana Arana.

Poesia atalean, berriz, LHko 5-6: Josune Nieto eta Maren Tena; DBHko 1-2: Danel Iturbe; DBHko 3-4: Esti Benitez; eta Batxilergo mailan ez da lanik jaso. Hortaz, ez da maila eta sail horretan saririk banatu.

ELIKATU
GOIENA TELEBISTA
MAIATZAREN 11N, EGUBAKOITZEAN, 21:00ETAN
MAIATZAREN 12AN, ZAPATUAN, 18:30EAN
MAIATZAREN 13AN, DOMEKAN, 14:00ETAN
ELIKADURA ARDATZ DUEN SAIOA
goiena
Zu hemen zaude.

Euspot lehiaketa: urtetik urtera, markak hausten

Maiatzaren 17an, eguena, egingo dute, Arkupe kultura etxean, 19:00etan, Iban Garcia 'youtuber'-ak eta Ana Goitia 'instagramer'-ak aurkeztuko duten eta umoretik joko duen ekitaldia; guztiontzako zabalik dago, eta, sariak banatu ondoren, luntxa egingo dute

A. Aranburuzabala ARETXABALETA

Euskaraz sormena sustatzeko eta gazteen artean ikus-entzunezkoen diziplina berriak bultzatzeko sortutako lehiaketa da Euspot. Gaur egun, Aretxabaletako Udalak, Mondragon Unibertsitateak, Artemanek, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Arizmendi Ikastolak antolatzen dute, eta pozik dira aurtengoak izan duen harrerarekin; izan ere, "izugarrizko igoera izan da parte hartzaile kopuruari begiratuta eta baita kalitateari dagokionez ere".

Oraingoan, Euskal Herri osotik bidalitako 73 spot jaso dituzte, iaz baino 22 iragarki gehiago. "Aurkeztutako lanen artean, 18 urtetik beherakoek eginiko 47 lan jaso ditugu, eta 18 urtetik gorakoek eginiko 26 lan. Iazkoarekin alderatuz, igoera horren arrazoia da hainbat ikastetxetan propio lehiaketarako egindako lanketa berezia. Aipatzekoa da, era berean, batez ere, 18 urtetik beherakoen arteko lanek kalitatean izan duten igoera nabarmena", azaldu du Artemaneko Gorka Zubizarretak.

Euspot 2018 lehiaketako epaimahaikideak, eguaztenean. ARTEMAN

Irudi digitalaren eraginari buruz

Sare sozialen erabileraren inguruan hausnarketa egiteko asmoarekin proposatu zuten antolatzaileek aurtengo gaia. "Nerabeek eta helduok sare sozialetan gutaz lantzen dugun irudiari ematen diogun garrantzia, eta sare sozialek gure arteko harremanetan duten eraginari buruzko iragarkiak eskatu genituen; eta, egia esan, modu ezberdinetan ulertu da gaia; hortaz, askotariko istorioak jaso ditugu, baina, orokorrean, eskatutako bidetik".

Lehiaketa huts bat baino gehiago da, baina, Euspot: "Ikastetxeetan izan gara ikus-entzunezkoei buruzko formakuntza txikiak ematen. Aurten, gainera, Debagoiena gaindituta, Donostiaraino heldu gara. Era berean, ikaragarria da sare sozialetan izan dugun oihartzuna: bikoiztu egin dugu kopurua, 2.000 jarraitzaile izan ditugu".

2.550 euro, saritan

Bost kategoriatan, bost sari banatuko dituzte: spotik onenarentzako; MUko ikasleentzako; publikoaren saria; 14 eta 18 urteko ikasleentzako BHKlip saria, eta aurtengo berria: musika sinkronizazio onenarena.

Dantza eta antzerkia zuzeneko musikarekin lotzen duen saioa

'El fin de las cosas' ikuskizuna egingo du Bilboko Doos Colectivo elkarteak, bihar, 19:00etan, Seminarixoan

A. A. BERGARA

Dantza eta antzerki garaikidean eskarmentua du Eva Guerrero artista bilbotarrak; urrian Leioan estreinatu zuten Guerrerok zuzentzen duen *El fin de las cosas* ikuskizuna eta bihar, zapatua, Bergaran izango da ikusgai. Sarrerak leihatilan eskura daitezke, zortzi eurotan.

Hiru lagun izango dira agertoki gainean: Garazi Lopez de Armentia eta Aritz Lopez dantzariak eta alboan izango duten Ainara Legardon musikaria. "Unerik gozoenak bizi ez dituen bikote baten istorioa da oinarria. Guerreroren lanen ezaugarria da oso lan espresiboak direla, ulertzeko errazak; publiko gaztearendako eta helduarendako proposatzen dugu honako hau. 55 minutuan, naturako hainbat elementurekin apaindutako oholtzaren gaineko bi dantzari-aktorek, Legardonen rock esperimental doinuekin lagunduta, ikuskizun ganberroa eskainiko dute", diote Doos Colectivo elkartekoek.

Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubeko maiatzeko sariak!

Doctor Deseo taldearen liburua + diskoa

Parte hartzeko sarearen izena: doctordeseo

Sarrerak
Arrikrutz kobak bisitatzeko, sarrerak.
Parte hartzeko sarearen izena: Arrikrutz

ARRIKRUTZ

Otarrea
Bidezko merkataritzako produktuak.
Parte hartzeko sarearen izena: Otarrea

PARTE HARTZEKO:
E-postaz: klubo@goiena.eus **WhatsApp:** KLUBA "Sarearen izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Endesa liga Goiena Klubean!

BASKONIA vs. SAN PABLO BURGOS

BASKONIA-SAN PABLO BURGOS
Partidurako 4 sarera bikoitz ditugu.
Maiatzaren 19an, 19:00etan.
Buesa Arenan jokatuko den partidureko.

PARTE HARTZEKO: MAIATZAREN 15ERA ARTE
Posta elektronikoz: klubo@goiena.eus **Whatsapp:** KLUBA "Baskonia" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Irabazi bi lagunendako sarrerak

Arrasateko Udalari esker
'Drog-e' haur antzerkirako sarrerak ditugu.
Arrasate | Amaia Antzokia | Maiatzaren 20an | 17:00etan

PARTE HARTZEKO: MAIATZAREN 16RA ARTE
Posta elektronikoz: klubo@goiena.eus **Whatsapp:** KLUBA "Antzerkia" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Irabazi bi lagunendako otordua
ERREKA JATETXEARI ESKER
Begiratu *Puntua* aldizkariko *Otorduon* atala eta hartu parte!

943 25 05 05 klubo@goiena.eus

KLUBA Jatetxea
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailez gozatzeko...

Bazkidetu orain. Urteko kuota 56€.
Deitu: 943 25 05 05. klubo@goiena.eus

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

OROIGARRIA

Eli Irazabalbeitia Viteri

'Beitxi'

2018ko maiatzaren 6an hil zen, 55 urte zituela.

Bihotzez, 1963 kintako lagunak.

Bergaran, 2018ko maiatzaren 11n.

OROIGARRIA

Elixabete Irazabalbeitia Viteri

Bergarako Musika Eskolako lehendakari ohia

2018ko maiatzaren 6an hil zen, 55 urte zituela.

Musika eskolak elkartu gintuen
Musika eskola hobetzen lagundu zenuen
Musikak zure oroitzapena ekarriko digu.

Bergaran, 2018ko maiatzaren 11n.

OROIGARRIA

Eli Irazabalbeitia Viteri

2018ko maiatzaren 6an hil zen, 55 urte zituela.

Ahazten ez dana ez da inoiz, sekula, hilko.
Hire betiko kuadrillak ez hau, Eli, inoiz ahaztuko.

